

Aitziber Lekuona
Ilundain

Olazabalgo San Salbatore monasterioaren dohaintzak Iurrealdea zehazteko eta ulertzeko proposamena

Juan José Larrea Conde Dk. jaunak (Euskal Herriko Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako irakasle titularra) onetsitako historia ikerketa. Lan honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko bekak programaren barruan 2013. urtean beka jaso zuen.

Trabajo de investigación histórica avalado por el Dr. D. Juan José Larrea Conde (profesor titular de Historia Medieval de la Universidad del País Vasco), becado en 2013 dentro del programa de Becas de investigación histórica sobre Gipuzkoa de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

San Sebastián, 2021

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gatzetza
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ARCHIVO GENERAL
DE GIPUZKOAKO
ARTXIBO OROKORRA

Bekak / Becas saila Gipuzkoako Artxibo Orokorraren bilddumetako bat da eta Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen bekekin burututako lanak.

Bekak / Becas es una de las colecciones del Archivo General de Gipuzkoa, que reúne trabajos realizados con las becas de investigación histórica sobre Gipuzkoa concedidas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Erreferentzia bibliografiko gomendatua (ISO 690-2):

LEKUNA ILUNDAIN, Aitziber. *Olazabalgo San Salbatore monasterioaren dohaintzako lurraldea zehazteko eta ulertzeko proposamena* [linean]. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2021 [kontsulta: urtea-hilabetea-eguna]. World Wide Weben eskuragarri:

<<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas12.pdf>>.

Referencia bibliográfica recomendada (ISO 690-2):

LEKUNA ILUNDAIN, Aitziber. *Olazabalgo San Salbatore monasterioaren dohaintzako lurraldea zehazteko eta ulertzeko proposamena* [en línea]. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa, 2021 [consulta: año-mes-día]. Disponible en World Wide Web:

<<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas12.pdf>>.



Liburu hau hurrengo **Creative Commons** lizentziaren mende dago:



[Aitoru-EzKomertziala-LanEratorrikGabe 4.0 Nazioarteko \(CC BY-NC-ND 4.0\)](#)

Lizentzia honek obra partekatu, birbanatu edozein bitarteko edo formatutan eta kopiatzeko aukera ematen du, baldintza hauek betez:

- **Aitoru** — Aitorza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu.
- **Ez Komertziala** — Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako.
- **Lan Eratorrik Gabe** — Materiala nahasten, eraldatzen edo horretan oinarrituz sortzen baduzu, ezin izango duzu aldatutako materiala banatu.

Este libro está bajo la siguiente licencia **Creative Commons**:



[Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 Internacional \(CC BY-NC-ND 4.0\)](#)

que permite compartir, copiar y redistribuir el material en cualquier medio o formato, bajo las siguientes condiciones:

- **Reconocimiento** — Debe reconocer adecuadamente la autoría, proporcionar un enlace a la licencia e indicar si se han realizado e indicar si se han realizado cambios.
- **No Comercial** — No puede utilizar el material para una finalidad comercial.
- **Sin Obra Derivada** — Si remezcla, transforma o crea a partir del material, no puede difundir el material modificado.

Argitalpena / Edita:

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua / Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

Gipuzkoako Artxibo Orokorra / Archivo General de Gipuzkoa

<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/index.php>

<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/index-es.php>

Maketazioa / Maquetación: ACC

OLAZABALGO SAN SALBATORE MONASTERIOAREN DOHAINTZAKO LURRALDEA ZEHAZTEKO ETA ULERTZEKO PROPOSAMENA

**GIPUZKOAKO ARTXIBOEN ERABILERA-METODO
BATEN PROPOSAMENA, GOI ERDI AROKO
ERREALITATERA HURBILTZEA HELBURU DUENA**

Aitziber Lekuona Ilundain

2013-2014

Juan José Larrea Conde Erdi Aroko irakasleak (UPV-EHU)

zuzendutako ikerketa

AURKIBIDE OROKORRA

0.IRUDI ETA TAULEN AURKIBIDEA.....	3
1.SARRERA.....	6
2. SAN SALBATORE MONASTERIOAREN DOHAINTZA DOKUMENTUA.....	9
2.1 Olazabalgo dohaintza dokumentuaren kopiak.....	9
2.2. Olazabalgo monasterioaren inguruko kopiak.....	10
2.2.1. Lakidaingo Santiago monasterioaren dohaintza.....	10
2.2.2. Binieseko Santa Eufemiaren inguruko auzia.....	10
2.2.3. Agoncillo herriaren dohaintza.....	12
2.3. Data.....	12
2.4. Kontestu historikora egin diren hurbilketak.....	13
2.5. Dokumentuaren interpretazioa.....	14
2.6. Proposatutako transkribapenak.....	19
2.7. Toponimoen identifikazioa.....	25
3. AGIRIEN HUSTUKETA TOPONIMIKOA ETA IDENTIFIKAZIO POSIBLEAK.....	29
3.1. Gaharraga.....	29
3.2. Orerurte.....	34
3.3. Lascuren.....	35
3.4. Uzturre.....	40
3.5. Ainarte de Areiznabar.....	43
3.5.1. Areiznabar.....	43
3.5.2. Areiz.....	46
3.5.3. Arayz ibaia.....	48
3.5.4. Arnabar.....	50
3.5.5. Ainarte edo Amatre.....	51
3.6. Arzagudum.....	51
3.7. Verasibia.....	56
3.7.1. Berazubi baserriak.....	56
3.7.2. Tolosako Berazubi auzoa.....	57
3.7.3. Tolosako Berasibia etxea.....	59
3.8. Haralarre.....	62
3.9. Hezizazaual alia Hezizaray.....	63
3.10. Arrandari Sansoiz.....	69
3.11. Ugarte.....	70
3.12. Zuhaznabar.....	73
3.13. Otsabio.....	75
3.14. Haya et Elcanno.....	76
3.15. Ezquiaga.....	79
3.16. Iturrioz.....	81
3.17. Gurtia.....	85
4. MONASTERIOAREN LURRALDE LOGIKA.....	87
4.1. Monasterioaren lurrdealdearen zedarritzea.....	88
4.2. Aralarreko ondasunak.....	96



4.3. San Salbatore inguruko lursailak.....	99
4.4. Semeen dohaintzak.....	102
4.5. Monasterioaren lurraldea eta inguruko lursailak.....	108
 5. ALTZOKO OLAZABAL LEINUA ETA SAN SALBATORE PARROKIAREN PATRONATUA.....	112
5.1. Altzoko errotak.....	112
5.2. Olazabalgo patronatua.....	114
5.3. XII-XIII mendeetako Olazabal: toponimia ala leinuaren adierazle?...	119
 6. ONDORIOAK.....	123
 7. ERABILITAKO DOKUMENTUAK.....	127
 8. BIBLIOGRAFIA.....	130
 9. ERANSKINAK.....	134



0. IRUDI ETA TAULEN AURKIBIEA

IRUDIAK

1go IRUDIA. Toponimoen kokapen posiblea eta hauetako transhumantzia bidearekin izan dezaketen harremana.....	17
2 IRUDIA. Toponimoen kokapena, Múgica eta Arocenaren proposamena.....	25
3. IRUDIA. Galarraga toponimoaren kokapena Lizartzan.....	31
4. IRUDIA. Araxes ibaiaren ibildidea.....	32
5. IRUDIA. Belauntzako Galarraga baserriaren antzinako argazkia.....	33
6. IRUDIA. Belauntzako Galarraga baserriaren kokapena.....	33
7. IRUDIA. Belauntzaren gertutasuna Berasivia, Lascuren eta Uzturre toponimoekiko.....	34
8. IRUDIA. Lascuren toponimoa Liburu Gotikoan jasotako kopian.....	35
9. IRUDIA. Tolosako San Frantzisko komentuaren kokapena.....	38
10. IRUDIA. Lascoaineko Iurrak 1802ko plano batean.....	39
11. IRUDIA. Albiztur eta Altzo herrien arteko distantzia.....	40
12. IRUDIA. “Haya et Helcano” erreferentzia Liburu Gotikoan jasotako kopian....	41
13. IRUDIA. Liburu Gotikoan jasotako kopian agertzen diren hainbat termino....	41
14. IRUDIA. Uzturre mendia, Tolosako herrigunearen ipar-ekialdean.....	42
15. IRUDIA. Leaburuko “Aznabar” toponimoa eta inguruko baserriak.....	44
16. IRUDIA. Leaburuko “Aznabar” toponimoaren lursaila.....	46
17. IRUDIA. 1417an aipatzen diren Altzoko etxeak dagozkien kolazioen arabera sailkatuak.....	53
18. IRUDIA. “Arçagudum” abizena XVI mendeko dokumentu batean.....	54
19. IRUDIA. San Salbatore eliza Ollagon mendiaren magalean.....	55
20. IRUDIA. Alegia eta Tolosako Berazubi baserriak.....	56
21. IRUDIA. Berazubi baserrien eta Altzoazpiren arteko distantzia.....	57
22. IRUDIA. Iurramendi muinoa Berazubi auzoaren ondoan.....	58
23. IRUDIA. “Lascuren” toponimoaren proposamena eta Berazubi auzoa.....	61
24. IRUDIA. Zabalegi saroia eta Aralarreko beste hainbat toponimo.....	66
25. IRUDIA. Etitzegi parajearen kokapena (Enirio-Aralar).....	67
26. IRUDIA. Altzoko Ugarbesaiets parajea.....	71
27. IRUDIA. Ugarbe ibaiaren ibilbidea (Altzo).....	72
28. IRUDIA. Altzoko Zuaznabar baserriak.....	73
29. IRUDIA. Zuaznabar aldea (Altzo).....	74
30. IRUDIA. Zuaznabar aldea eta Ollagon mendia.....	74
31. IRUDIA. Zuaznabar aldea, nekazal lurrez osatutako eremua.....	76
32. IRUDIA. Liburu Gotikoan jasotako “haya ethelcano” terminoa.....	77
33. IRUDIA. Aia eta Elkaroneran arteko distantzia.....	78
34. IRUDIA. Ikaztegietako Ezkiaga terminoaren kokapena.....	79
35. IRUDIA. Lizartzako Ezkiaga toponimoa.....	80



36. IRUDIA. Ezkiagaene baseria (Gaztelu).....	80
37. IRUDIA. Ibarrako Zubiaurre eta etxea Leaburuko Gurreaga baseria.....	85
38. IRUDIA. Gurriaga terminoaren kokapenea Leaburun.....	86
39. IRUDIA. Belauntzako Galarraga baseria.....	89
40. IRUDIA. San Salbatoreko dokumentuan agertzen diren hainbat toponimoren kokapen posiblea.....	90
41. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren iparraldeko muga posiblea.....	91
42. IRUDIA. Leaburuko Aznabar mendi eremua.....	92
43. IRUDIA. Leaburuko Aznabar terminoa Baratzerreka ibaiaren ondoan.....	92
44. IRUDIA. Baratzerreka ibaia, Araxes ibaiaren ibaiadarra.....	93
45. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren hegoaldeko muga posiblea.....	94
46. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren hegoaldeko mugaren jarraipena.....	95
47. IRUDIA. Aralar mendiko Etitzegi eta Zabalegi parajeak.....	97
48. IRUDIA. Aralarreko Etitzegi eta Zabalegitik San Salbatorerainoko distantzia...	97
49. IRUDIA. Ugarbesaiets mendi-eremua (Altzo).....	99
50. IRUDIA. Altzoko Zuaznabar auzoko etxeen kokapena.....	100
51. IRUDIA. Otsabio mendiaren bista orokorra.....	101
52. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren inguruko lurrik.....	102
53. IRUDIA. Liburu Gotikoan gortzen den kopian jasotzen den “VI bakas” aipua..	103
54. IRUDIA. Aznabar parajea (Leaburu) eta Ezkiagaenea baseria (Gaztelu).....	104
55. IRUDIA: Ezkiagaenea baserriko (Gaztelu) mendi ingurua.....	104
56. IRUDIA. “Iturrioz de Gurtia”-ren kokapen-proposamena.....	106
57. IRUDIA. Semeek dohaintzan emandako lurrik.....	107
58. IRUDIA. San Salbatore dokumentuko toponimoen kokapen-proposamena eta monasterioaren zedarritze posiblea.....	108
59. IRUDIA. Gartzia Azenarizen sagastiak eta Iturrioz de Gurtiako lursailak osatzen duten eremuaren zedarritzea.....	109
60. IRUDIA. “Molinos de Alzo” izenburua daraman liburua, Altzoko patronaturen inguruko XV eta XVI mendeko dokumentuak gordetzen dituena.....	113
61. IRUDIA. Olazabalgo patronatuaren inguruko XV mendeko dokumentuetan agertzen diren eliztarren etxeak.....	115
62. IRUDIA. San Salbatore eliza, Olazabal Haundi etxea eta Borda izeneko eraikuntza.....	120
63. IRUDIA. Olazabalgo parajeak aurkitzen den harrobia.....	121
64. IRUDIA. Olazabalburu terminoa (Altzo).....	122
65. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren bi proposamenen alderaketa.....	123
66. IRUDIA. Monasterioaren menpeko lurren egitura espaziala.....	125



TAULAK

1go. TAULA. Argitalpen ezberdinetan jasotako toponimoen aldaerak	20
2. TAULA. Lan ezberdinetan jasotako toponimoen identifikazio proposamenak.....	28
3. TAULA. Lascuren toponimoaren aldaerak XIV eta XVI. mendeko dokumentuetan.....	36
4. TAULA. Amezketako leinuak XV. mendean Aralarren zituen ondasunak.....	64
5. TAULA. Amezketako koalizioak XV. mendean Aralarren zituen ondasunak.....	64
6. TAULA. Aralarreko toponimoen eboluzioa XV eta XVI mendeetako bi dokumneturen alderaketan oinarrituz.....	68



1. SARRERA

Goi Erdi Aroko eta Lehen Aro Feudaleko gizarteez diharduen historiagile orok ondo dakien bezala, badago Mendebaldeko lurralte guzietan tarte kritiko bat eskura dauden informazioen esparruan, Antzinatetik datozen iturri kronistiko eta literarioen eta Erdi Aroak sortu dituen iturri diplomatikoen artekoa, hain zuen ere. Tarte horren luzera aldagarria da oso. Gipuzkoa –Ingalaterrako eta Eskoziako hainbat lurralte bezala, adibidez– iturri idatzietan hutsune luzeena pairatzen duten espazioen artean dago. Zentzu honetan, tradizio klasikotik datorkigun azken aipua Hidazioren kronikan jasotzen dena da, bertan Heruloeek 456 urtean Varduliako kosta erasotu zutela kontatzen da. Ordutik, isilune dokumental erabatekoan sartuko da gure lurraldea, XI. mendearen inguruko monasterioetan idatzitako agirietan espazio honen lehen aipuak azaltzen diren arte.

Hutsune honek, jakina, zeharo baldintzatu du XI.-XII. mendeetako testuen azterketa. Gehienetan historiagileek testu urri horiek gure garaiko paisaiatik eta azken mendeetako usadioetatik (abeltzantzan adibidez) izan dira analizatuak. Guk ordea uste dugu Gipuzkoako Artxiboen aberastasuna baliatu dezakegula hurbiltze-metodo sendoago bat proposatzeko: XI.-XII. mendeetako gizartea halabeharrez oinatzak, aztarnak, izenak, norabideak e.a. utzi ditu Behe Erdi Aroko eta lehen Aro Modernoko agirietan. Hortaz, artxibo hauen arakatze eta ustiatzeak abantaila bikoitza dauka: bata, errazen ikusten dena, kronologikoa da, hurbil geratzen direlako errealtitate zaharragoetatik. Bigarrena, agian garrantzitsuagoa, gizartean logikari dagokio: kategoria sozial, ekonomiko eta paisajistiko gehienak, funtsean, berdinak dira –edo logika berean murgiltzen dira– XII. eta XV. mendeetan. Ez da oraindik gertatu modernitateak ekarriko duen hausturarik. Harrobi hau ezin zitekeen luzaroago alde batera utzi.

Gogoeta orokor hauei bi aspektu praktiko gehitu behar zaizkie. Batetik, gaurko Interneten bidezko tresna kartografikoek gure aurreko historiagileek ametsetan ere ez zituzten tresnak eskaintzen dizkigute. Bestetik, zentzu berean, artxiboetako funtsetara iristeko erraztasunek, gure kasuan Gipuzkoakoetara, zeharo aldatzen ari dira, eta sakonkiago aldatu beharko dute, historiagileen Iana. José Ignacio Tellechea Idígoras bekak sustatu duen ikerlan hau koordenatu hauetan kokatzen da, artxiboetako lanaren metodoaren inguruko hausnarketa eta problematika zehatz bat uztartu nahi dituela.

Gure Ia honek beraz hau proposatzen du: 1) Olazabalgo San Salbatoreren inguruko historiografia aurkeztu eta aztertu 2) 1025ko dohaintzako agiriak aurkeztu eta aztertu 3) Gipuzkoako artxiboetako informazioa baliatu 1025eko agiriaren lurralte-logika ulertzeko 4) Honen guztiaren ondorio gisa, orain arteko errepresentazio espaziala zeharo aldatzen duen proposamen berri bat aurkeztu.



Olazabalgo San Salbatore

Olazabalgo San Salbatore dokumentua, Gipuzkoako historiari dagokionean, agiri ezagunenetakoentzako artean sar genezake zalantza handirik gabe. 1025eko urtea izanik historialarien gehiengoak onartutako data, Gipuzkoako lurraldearen lehengo agiria bezala konsideratua izan da. Dokumentuan bertan *Ipuzcoa* hitza agertzeak baieztapen hau indartzen du¹.

Dokumentuaren muina jaun Gartzea Azenarizek eta andre Gailak, San Juan de la Peña monasterioari egindako dohaintza bat da, honen bitartez Olazabalgo San Salbatore monasterioa eta honen inguruko lurrak zein beste hainbat ondasun ere ematen dizkiotearik. Komeni da hemen hau gogoratzea: Mendebalde osoan arrunta den dinamika bati jarraiki, Iruñeko erreinuko agintariekin honelako dohaintzen bitartez harreman sareak trinkotzen dituzte (PEREZ DE CIRIZA: 2005, 191-252; LARREA: 1998, 461-467, LARREA: 2007, 69-119) sare hauen giltzarri politiko, sozial eta ekonomikoak erreinuko monasterio handiak direla: Leireko San Salbatore, Iratxeko Andre Maria, Donemiliaga Kukula eta San Juan de la Peña.

Dokumentuan aipatzen diren ondasunek Aiatic Aralarrera doan espacio bat hartzen dutela konsideratu izan da tradizionalki; S. Múgica eta F. Arocenak termino hauen identifikaziorako 1931ean proposatu zuten mapa onartua izan baita gaia aztertu duten historialarien artean, proposamena luzatu zutenek planteamenduaren behin behinekotasuna azpimarratu bazuten ere.

Zergatik da garrantzitsua lurraldea identifikatzea? Bata, San Salbatore garaiko monasterioen eskalan kokatzen gaituelako; nolabait, konparatzeko elementu bat ematen digu. Bigarrena, agintarien familia baten eragin-esparruaren neurria ematen digu. Hirugarrena, artikulazio ekonomikoaz hitz egiten digulako. Eta azkena, agiriak deskribatzen duen lurraldean populazioa dagoelako, eta beraz gizarte eta dominazio sinboliko zein ekonomiko harremanak gauzatzen dira.

Toponimo hauen identifikazio lana berez konplikatua suertatzen bada, are konplexuagoa bihurtzen da agiri honen kopiak oinarritzat hartuz argitaratu diren transkribapen kopurua kontutan hartzen badugu. Aurrerago sakonago aztertuko dugun modura, termino batzuentzat proposatzen diren aldaerak ezberdinak izan daitezke transkribapen batetik bestera eta, honez gain, zaila izaten da maiz bata

¹ Donemiliaga Kukulako kartularioko dokumentu labur batean, 943 urtean idatzia, *Gipuzare* toponimoa agertzen da, antza Burgoseko eskualdea den Montes de Oca-n aurkitzen zen kokaleku txiki bati erreferentzia eginez; Gipuzkoatik etorritako jendea izango zen hau fundatu zuena edo bertan bizi zena. Honek 80 urte aurreratuko luke koronimoaren agerpena (PETERSON: 2004, 597-608).



bestearen segidan datozen bi terminok bi hitz ala bakarra osatzen duten zehaztea, egile bakoitzak bere hautua egiten duelarik.

Agiriaren edukiaren azterketari dagokionean, dokumentu honek gorde ditzakeen aspektu politikoak aztertu izan dira bereziki, hala nola, jaun Azenarizen jatorria edo Gipuzkoako tenentziaren presentzia, baita bi pertsonai hauen ezkontzak izan zezakeen eragin politikoa ere. E. Barrenak, 1989an bere tesia argitaratu zuenean, agiri hau beste ikuspuntu batetik aztertu zuen, lurralte honen gizarte zein espazio antolamendua ikertuz.

Gizarte gentilizio baten eta transhumantzian oinarritutako ekonomiaren isla identifikatu zuen dokumentuan. Bainazken interpretazio hauetan ere hasieran planteatutako identifikazio toponimikoaren gainean egin ziren, Aralerretik Aiarraino doan eremu zabal hori erabiliz oinarri bezala.

Ez dira gutxi gaia dagoeneko aztertuta dagoela eta toponimoen identifikazioak modu egokian burutuak daudela kontsideratzen dutenak; edo, bestela, identifikazio hauetan modu zehatzago batean finkatzea ezinezko lana dela pentsatzen dutenak. Bainaz ezin dugu ahaztu dokumentu hau Gipuzkoako XI mendeko monasterio baten lurralte-logika ulertzeko bide bakarra dela eta hau, ondo justifikatutako identifikazioen gainean baino ezin dela egin. Arrazoi nahikoa iruditzen zaigu helburu horretan saiatzeko.

Orain arte proposatu diren identifikazioek egungo toponimia izan dute oinarri eta, gehienetan, baserri izenak izan dira abiapuntua. Proposamen berriak aurkitzeko lan-metodologia aldatzea berebiziko aspektua iruditu zaigu. Erabili dugun lan-erremineta berria Gipuzkoako artxiboetako agirien hustuketa toponimikoa izan da, bereziki Gipuzkoako Artxibo Orokorrrean kontserbatzen direnak izan zaizkigularik baliagarri. XV mendetik hasi eta XIX mende bitartera doazen hainbat dokumentu kontsultatu ditugu, izaera ezberdineko agiriak, eta, horietatik, Olazabalgo dokumentuarekin harremana izan zezaketenak jaso ditugu.

Lanaren emaitzak erabat aldatu du orain arte Olazabalgo San Salbatore monasterioaren ondasunen inguruan genuen kontzeptua, batez ere hedadurari dagokionean, modu oso nabarmenean murritztu baitu monasterioaren inguruko espazioa.

Hemen aurkezten dugun lanak ez du behin betikoa izateko asmoa, etorkizuneko ikerlariarentzat interesgarriak izan daitezkeen hainbat ideia zein proposamen berri haien eskura jartzea izan da helburu nagusia. Izan ere, agiri honen inguruan asko esan den arren, aztertu ez diren zantzu txiki eta planteamendu ezberdinak ikerketa-lerro berriak irekitzea posible egiten dute oraindik ere.



2. SAN SALBATORE MONASTERIOAREN DOHAINTZA DOKUMENTUA

2.1. Olazabalgo dohaintza dokumentuaren kopiak

Ez daukagu San Salbatore monasterioaren jatorrizko dohaintza-agiria. XIX. mendetik aurrera, San Juan de la Peñako artxiboen zatiketak bi tokitara eraman ditu dauzkagun dokumentuaren bertsio biak.. Dokumentu hau ziurrenik 1025.az geroko konposaketa bat da (ez halabeharrez faltsutasunaren zentzuan, baizik eta, ohikoa den legez, jatorrizko agiri bat baino gehiago pergamo bakar batean bildua izan zelako).

Aipatu bi tokiak hauek dira. Bertsio zaharra San Juan de la Peñako Liburu Gotikoan dago. Hau monasterioko kartulariorik zaharra da, eta XI.-XV. mende bitarteko dokumentuak jasotzen ditu. Olazabalgo dokumentua XII mende bukaerako edo XIII mende hasierako kopia da (75v-76r), idazkera karolinoan idatzia (eranskineko 1go dokumentua). Bestea pergamo solte batean dago eta Madrileko Artxibo Historiko Nazionalean (695 karp., 8. zbk) gordetzen da egun. Egile batzuk bigarren agiri hau, idazkera gotikoan idatzia, XII-XIII (UBIETO: 1962, 114-117) edo XIII. mendean (MARTÍNEZ DÍEZ: 1975, 33), kokatzen badute ere XIII. edo XIV. mendean burutua izan zela esan dezakegu².

Desamortizazioaren ondoren, San Juan de la Peñako artxiboko fondoak bertatik atera ziren, Liburu Gotikoa Jakako Beneditarren komentuan agertu zen eta AHN-ra 1270 pergamo (828-1793 urteak) eta 22 paper-sorta eramanak izan ziren. (AGUD: 1969, 331). M. Agudek ez du uste AHN-ko kopia Liburu Gotikoa oinarritzat hartuz egin zenik, erreferentzi bezala beste kopia bat erabili zutela konsideratzen du.

La copia conservada en el AHN no ha sido hecha evidentemente a pesar de su cronología, sobre el Libro Gótico, sino sobre algún otro ejemplar.
¿Copiaron los dos de la misma fuente? No inclinamos a suponer otra intermedia... (AGUD: 1969, 332)

² José Angel Lema Pueyo irakasleari eskertu nahi diogu aspektu paleografikoen azterketari dagokionean emandako lagunza.



2.2. Olazabalgo monasterioaren inguruko beste kopiak

Dohaintzaren dokumentuaz gain, Olazabalgo San Salbatore monasterioaren inguruko erreferentziak jasotzen dituzten beste hiru dokumentu kontserbatu dira.

2.2.1 Lakidaingo Santiago monasterioaren dohaintza

Aztertu beharreko hurrengo dokumentua -irizpide kronologikoa jarraituz- 1048 urtean kokatu behar dugu³. Dokumentu honetan⁴, andre Gaila alargun bezala agertzen zaigu eta Lakidaingo Santiago monasterioan, bere guraso eta anaietatik jasoa⁵, dago erretiratua. Galgak monasterio hau bera emango dio dohaintzan San Juan de la Peñakoari. Antza, andre Gaila bere bizitzaren bukaeran aurkitzen zen dohaintza hau egiteko unean, urte bat beranduago idatzi zen dokumentu batean (jarraian aztertuko duguna) hilda zegoela aipatzen baita (MARTÍNEZ DÍEZ: 1975, 40).

2.2.2. Binieseko Santa Eufemiaren inguruko auzia

1049ko hirugarren dokumentu honek⁶, hainbat elementu interesgarri gordetzen ditu. Jakina da garai hauetan emaileek ez zituztela dohaintzan emandako ondasunen gaineko eskubide guztiak galtzen, eta dokumentu hau praktika honen adibide garbia da.

Si algo no supone la donación a las grandes abadías, es la enajenación del monasterio vizcaíno o guipuzcoano por quienes dicen darlo. No sólo porque encontramos cláusulas bien conocidas en otras regiones, en virtud de las

³ AHN, San Juan de la Peña. Karp. 695, 9. zbk. (eranskineko 2. dokumentua).

⁴ Liburu Gotikoan (41v.-42r.) XI-XII mendeetako kopia kontserbatzen den bitartean, AHN-an (698 karp., 9. zbk.), dokumentuaren originala edo kopia garaikidea kontserbatzen da (UBIETO: 1963, 78)

⁵ E. Barrenak beste irakurketa bat planteatzen du (1989, 70): *No creemos acertada la traducción de estos “parentes mei et germani mei” por “mis padre y mis hermanos”, tal y como ha solidó hacerse. La anterior referencia del mismo texto a “parentum meorum vivorum ac defunctorum” indica su equivalencia por “parientes” y no “padres”. En esta misma concepción de los ascendientes, se inserta la referencia expresa a “germani” –hermanos consanguíneos, naturales, y no a “frates”. Doña Gayla dispone, en consecuencia, de los bienes que le han sido reconocidos por un “consejo de familia”.*

⁶ Liburu Gotikoan (15r.-15v.) kontserbatzen da kopiarik zaharrena, XI-XII mendeetan zehar burutua. Beste bi kopia kontserbatzen dira AHN-an (698 karpetako 12 eta 13 zenbakiek). Aipatzeko Liburu Gotikoan eta AHN-ko kopietako batean (karp. 698, 12 zbk) “*Sancti Salvatoris de Ippuzka*” aipatzen den bitartean, AHN-an kontserbatzen den bigarren kopian ez dela “*de Ippuzka*” agertzen (karp. 698, 13 zbk).



cuáles una familia se reserva a perpetuidad el derecho de vigilar el respeto a las condiciones de la donación y de proteger la supervivencia del monasterio cedido. En la vecina Guipúzcoa encontramos un ejemplo manifiesto de control absoluto por parte de los retóricos donantes que sin duda es aplicable a Vizcaya (LARREA: 2007, 86).

Edukiaren muinari erreparatzen badiogu, andre Gailak San Juan de la Peñako abadeari monje bat bidaltzea eskatzen dio, Binieseko Sancho, San Salbatoreko monasterioaren kargu egiteko. Honek, San Juan de la Peñako goi-karguei inongo baimenik eskatu gabe bere burua Olazabalgo San Salbatoreko abade izendatzen du eta monasterio honi eliza propio bat gehitzen dio, Binieseko Santa Eufemia (Huesca). Damutu eta, azken monasterio honen barkamena eskuratzeko asmoarekin, San Juan de la Peñari itzuli zion berriro ere Binieseko monasterioa. Galgaren heriotzaren ondoren, Blasquitak Santa Eufemiaren gaineko jabetza berreskuratu nahi izan zuen. Monasterioak eskaera hau onartuko du baina bizirik dauden bitartean soilik, ondoren San Juan de la Peñara itzuliko den baldintzarekin.

Que Sancho de Biniés es un hombre de los patronos del monasterio queda fuera de toda duda: el documento que nos da noticia de todo esto recoge el acuerdo por el que Santa Eufemia es tenida por la hija de Gailla, *pro manu abatte*, durante su vida y se compromete a devolverla a su muerte. Para el abad pinatense, no perder todo el derecho sobre la iglesia de Biniés ya es suficiente: difícilmente puede esperar ejercer un ápice de autoridad en Olazábal. Es más, una expresión del redactor del documento –*Mortua est et suprafata domina Galga, et succesit in loco eius fillia illius domna Blasquita et senior Sancio Fertungonis suus vir-* parece insinuar una especie de reconocimiento de, digamos, un “abadiato laico” sobre San Salvador de Olazábal” (*Ibid.* 86-87 or.).

Baina istorioa ez zen hemen amaitu. Dokumentu honi atxikita bigarren pasarte bat jasotzen da, datarik gabea. Bertan, Blasquitak, San Juan de la Peñaria Santa Eufemia itzultzen dio.

Dohaintza hauen atzean interesak daudela begibistakoa da. Hau agerian geratzen da dokumentuak jasotzen duen *traditi* edo *traditi et amici* –dokumentuaren bertsioaren arabera- esamoldean. Honekin Blasquita eta bere senarra San Juan de la Peñaren “lagunak” direla konsideratzen da, hau da, laguntza eta babes harremanak finkatzen dituzte monasterioarekiko, guzti hau, noski, denboraldi baterako egiten dituzten dohaintzen truke (*Ibid.* 87 or.)



2.2.3. Agoncillo herriaren dohaintza

Azken dokumentuan⁷ Sancho Fortuñones eta Blasquitak Agoncillo herria⁸, eta beste hainbat ondasun, ematen dizkiote dohaintzan San Juan de la Peñako monasterioari, horien artean *illos palazos quos comparavimus in Luquiange*. Hauez gain, dokumentu honetan San Salbatore monasterioaren dohaintza berresten da.

Et ego Blasquita, filia de domna Galga et de senior Garcia Azenarez, confirmo et auctoritatem pono ad istum locum Sancti Iohannis de monasterio Sancti Salvatoris de Ipuzka de nostra propria hereditate, ut quomodo dimiserunt eum meus pater et mater (...)

Aipagarria da batetik, dokumentuaren barne-egiturari dagokionean, berrespen hau gainontzeko dohaintzetatik desberdintzen dela eta Blasquitak egiten duela bere izenean, ez senar-emaztearenean.

2.3. Data

Olazabalgo dokumentuarentzat proposatu eta gehiengo batek onartu duen data 1025 urtea da –dokumentuan *era MLXIII*-. Antonio Ubietok (1963) aldiz, arrazoi paleografikoak medio, 1055 urtea proposatu zuen. Idazkera bisigotikoan –Olazabalgo dohaintza dokumentuaren originala idazteko erabiliko zena- “X”-aren aldaera berezi bat erabiltzen zen XXXX zenbakia adierazteko. A. Ubietoren ustez, kopistak ez zuen jakin zeinu hau identifikatzen eta MLXXXXIII irakurri behar zuen lekuan MLXIII ikusi zuela konsideratzen du. Baina teoria hau indartuko duen beste argudiorik ezean, eta originala galdu denez, zaila suertatzen da hipotesi honi eustea. Gaia ikertu duten historialarien gehiengoak ez du proposamen hau ontzat hartzen. M. Agudek, adibidez, bere desadostasuna agertu zuen teoria honen aurrean:

La fecha dada por Ubieto al doc. que nos ocupa (nº 117 de su edición, pg. 114), que coincide con la dada de Usón-Canellas (1. c.) no responde a las de

⁷ Liburu Gotikoan (41 r.) XI-XII mendeetako kopia bat kontserbatzen da eta AHN-an (699 karp., 7. zbk) XIII mendeko traslado bat. (UBIETO: 1963, 175). Eranskineko 4. dokumentua.

⁸ Dokumentu honen ez du datarik. 1056an Sancho Fortuniones eta Blasquitak Antso Peñalengoari Villanueva eta Agoncillo (Errioxa) herrixkak erosi zizkiotenez, urte hau erabiltzen da *ante quem* data modura.



sus herederos, pues el citado sería de 1055 y aquellos ya aparecen en 1048 (AGUD: 1969, 336).

Aztertu ez den beste aspektu bat, eta testuaren data zehazteko berebizikoa dena, dokumentuaren barne-egitura da. Garai hartan ohikoa zen bezala, hemen ere dokumentua hainbat agiri ezberdinako pasarteak kopiatuz egin zela argia dirudi. Hau horrela izango balitz, azterketa paleografiko sakonago bat eskatuko luke, posible litzatekeelako doahintzaren pasarterea eta datazioarena agiri ezberdinakoak izatea eta, hortaz, 1025eko datak monasterioaren inguruko deskribapenarekin bat ez egitea.

2.4. Kontestu historikora egin diren hurbilketak

Testuinguruari dagokionean, G. de Balsarda (1923) eta G. Martínez Díez (1975) izan dira aspektu hau gehien landu duten egileak, betiere ikuspegi politiko zurren batetik. Kasu honetan, gure ikerketa lanean aurrera egiteko lagungarri izan daitezkeen datuak soilik bildu ditugu, monasteriorean lurralde-logika ulertzeko baliagarri direnak.

Dohaintza burutzen duten senar-emazteen inguruko azterketetan, erabateko adostasuna jaso du andre Gailaren senarrak jatorri aragoiarra duelako iritziak. Andre Gaila ordea Gipuzkoartzat hartua izan da tradizionalki.

...diremos que la originaria y raigada en Guipúzcoa era Doña Galga, mientras su marido García Aznar era aragonés de origen y gobernador o “señor” de la tierra “sub imperio” o bajo la soberanía de Sancho el Mayor de Navarra (MARTÍNEZ DÍEZ, 1975: 37).

Hipotesi hau, baina, izenetan soilik oinarritzen da eta kontuan izan behar dugu Gartzea eta Aznar oso izen arruntak direla garai hartan, ez dutelarik zertan Aragoikoak izan. Ildo honetan, hainbat egilek Gartzea Azenarizen leinua aztertzeko saiakerak egin dituzte, baina kasu guztietan agerian geratu da aurreko belaunaldiak segurtasunez finkatzeko ezintasuna, izen eta abizen bera daramaten pertsonaiak ugariak direlako dokumentazioan.

Oso gutxi dakigu, VIII, IX eta X mendeetan zehar Gipuzkoak bizi zuen erreallitateaz. Bestela esanda, ez dakigu Gipuzkoako agintariekin nolako harremanak zituzten ingurukoekin, bereziki Iruñekoekin (baina baita ere Baztangoekin edo Bizkaikoekin zein Arabakoekin), erreinurako integrazioa formalizatu zen arte.



Hainbat egileren ustez, Olazabalgo dokumentuak Nafarroak erreinu honetan zuen presentzia hitz egiten digu, egoera hau noiztik ematen zen finkatzea ezinezkoa baldin bazaigu ere. Argudio dokumentalak medio, botere hau ez zela lurralte osora zabaltzen planteatzen da, baina Nafarroako boterearen eragina noraino iristen zen zehaztea zaila litzateke. Monasterioaren inguruko lurraldearen identifikazio egoki baten beharra agerian geratzen da berriro ere, dokumentu honetan oinarrituz, *Ipuzcoako senior*-aren presentzia Zarautz eta Aralar bitartean aurkitzen den eremuan finkatzen zela konsideratu izan baita. Gainera, jakin badakigu mekanismo mota ugari daudela Goi Erdi Aroan harremanak gauzatzeko (izan ere, haietako bat San Salbatorek erakusten du): azalpenak ezin daitezke alternatiba simple anakroniko batean bilatu: edo erreinu barruan edo erreinu kanpoan.

G. Martínez Díezek, dokumentu honetan Gipuzkoako lurraldearekiko lotura agerian uzten duten hainbat elementu identifikatu daitezkeela konsideratzen du, hala nola, Gartzea Acenarizen ezkontza lurralte honetakoa den emakume batekin, bere semeek lurraldean ondasunak izatea, Gartzea Acenarizen izenean dagoen jabetza baten aipamena... Egile honen iritziz, honek guztiak Gartzea Azenariz *senior*-aren presentzia Gipuzkoan lehenagotik zetorrela frogatuko luke. Teoria hau indartuz, ez Arabako apezpikutzak ezta, geroago, Calahorrakoak ere, ez zutela lurralte honen gaineko eskubiderik aldarrikatu gaineratzen du (*Ibid.*, 38). Bainan kontuan hartu behar dugu Bizkaian ere ez duela autoritaterik Arabako apezpikutzak XI.eko lehen erdialdean. Martínez Díezen ahaleginak geografia politiko eta eklesiastiko bat egiteko, geroko logika politiko baten iraganerako projekzioak baino ez dira behin baino gehiagotan.

2.5. Dokumentuaren interpretazioa

Aurreko atalean dokumentu hau ikuspegi politiko batetik aztertu duten egileak mintzagai izan baditugu, oraingoan Olazabalgo dokumentuaren atzean ezkutatzen den espazio eta giza antolamenduaren inguruan egin diren proposamenak jasoko ditugu.

Zentzu honetan Elena Barrenaren lana da aipagarria. Egile honek planteatzen duen dokumentuaren interpretazioak bat egiten du Gipuzkoako sorreraren inguruan bere *La formación histórica de Guipúzcoa: transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval* lanean (1989), planteatzen duen hipotesiarekin. Lan honetan, bere tesi zuzendari izan zen J.A. García de Cortazarrek hasitako ikerketa-lerroan sakondu zuen.



E. Barrenak, XI. mende aurreko “Gipuzkoa” aztertzen du, errealtitate espazial honen sorrera baita bere ikergai nagusia. Horrela, Goi Erdi Aroan lurralde hau okupatzen zutenen antolamendu sistemak gizarte gentilizioaren ezaugarriak zituela planteatzen du, famili harremanak izanik erlazio hauen funtsa. Honekin batera, eta gizarte honen oinarri ekonomiko modura, transhumantziaren idea garatzen du, bereziki artzaintzari lotua egongo zena.

Pixkanaka, XI-XII. mendeetan Nafarroatik iritsitako eragin feudalek, espacioarekiko harremana aldatu zutela proposatzen du, lurraldetasunaren ideia indartuz eta giza-talde hauek gune zehatzetan modu iraunkorrean finkatzera bultzatuz. Hipotesi hauek, gizarte gentilizioarena eta transhumantziaren nagusitasunarena, Olazabalgo San Salbatore monasterioaren inguruko dokumentuetan isla dutela konsideratzen du egileak.

Hasteko, gizarte gentilizioaren hipotesian sakontzeko, *Ipuzcoa* eta *Ipuça* kontzeptuak hartzen ditu abiapuntutzat. *Ipuzcoa* hitza, jaun Azenarizekin erlazionatzen du, baita bere tenentziarekin ere, Olazabalgo dohaintzan bertan irakurri baitaiteke *senior Garsia Acenariz de Ipuzcua*. Egilearen ustez, Nafarroako erregearen aginduetara zegoen jaun honek, lurralte hartatik zetozan ideia eta eragin feudak islatzen ditu bere pertsonan, eta arrazoi honegatik erabiltzen du *Ipuzcoa* terminoa, hitz honek lurraltearekiko atxikimenduarekin izango lukeelako erlazioa eta ez taldekako antolamenduarekin:

Por ello, recién iniciado el milenio se hacen presentes una serie de transformaciones que quedan encerradas en la formación del nombre “Ipuscua”, aquél que utiliza García Acenáriz para referirse al espacio del que es “senior” (BARRENA: 1989, 56)

Bigarren kontzeptua, aldiz, 1048ko dokumentuan jasotzen da, bertan andre Gaila San Juan de la Peñako abadeari *Ego humillima Galga de Ipuçcha* bezala aurkezten baitzaio. E. Barrenak, argudio linguistikoak oinarri, *Iputzak* talde bat erreferentzia egiten diola konsideratzen du eta, hortaz, lurraltearen antolamendu gentilizioari.

En nuestro caso, al añadirse este morfema de plural a un nombre propio, el compuesto origina el nombre de un colectivo animado, el grupo de “los de ipu”, “Ipuçcha”, que es la denominación de origen que utiliza doña Galga, pues las grafías “-ç” y “ch” no parecen ser más que una innecesaria duplicidad de la partícula de pluralidad “-tza”... (*Ibid.*, 56)



Argudio hau indartuz beste hainbat dokumentutako pasarteak jasotzen ditu, horietan ere *Ipuzcha* terminoa agertzen delarik.

XII mende erdialderako badirudi *Iputzak* errelitate zabalago bati egiten diola erreferentzia, 1150ean Gartzia Ramiritzek bere burua izendatzeko momentuan *rege Garsia in Pampilona et in tota Navarra, in Ipuzcha et in Alava* bezala egingo baitu. Modu berean burutuko du bere izendapena Antso Jakitunak urte horretan bertan tronua eskuratzen duenean: *domino Sancio dominante in Navarra et in Ipuza et in Alava*. XII. mende bukaeratik aurrera Nafarroako dokumentazioan, *Ipucha*, izen zein abizen modura aurkituko dugu hainbatetan (*Ibid.*, 57).

Aipatzekoa da 1049 urtean, Galgak bere burua *Ego humillima Galga de Ipuçha* izendatu eta urtebetera, honen alabak amari erreferentzia egiten dionean *domna Galga ex regione Ipuzka* esamoldea erabiltzen duela. E. Barrenaren ustez, bigarren zehaztapen honek ez luke zentzurik izango, ez litzateke beharrezkoa izango, lehenengoak espazio konkretu bati erreferentzia egingo balio.

Todos estos indicios apuntan a la primera mitad del siglo XI como el período en el que se están dando los primeros pasos firmes en la utilización de un nuevo compuesto de “Ipu”, “Ipuscua” o “el lugar de los Ipu”, formado sobre el anterior sustantivo “Iputza” (*Ibid.*, 58).

Bigarren aspektuari dagokionean, transhumantziarena, Olazabalgo dokumentuan agertzen diren toponimoen identifikazioa hartzen du oinarritzat eta, behin mapa osatuta, Aralarretik kostaraino doan transhumantzia bidearekin izan ditzakeen antzekotasunak aztertzen ditu. Termino hauek identifikatzeko orduan, S. Múgica eta F. Arocenak proposatutako mapa hartzen du abiapuntutzat eta, identifikazio batzuen behin behinekotasuna gogora ekartzen badu ere, proposamen hauek aldatu gabe erabiltzen ditu.

1931ean S. Múgica eta F. Arocenak planteatutako mapan adierazten diren ondasunak bere osotasunean hartuta, Aralar mendizerratik Urola eta Debaren behe ibilguraino doan espazio laukizuzen bat irudikatzen da (*Ibid.*, 76), beheko mapan ikus dezakegun modura. Eremu hau, bertatik igarotzen den abeltzaintza bidearekin jartzen du erlazioan, artzaiek Aralarretik kostaraino, eta alderantziz, ardiak eramateko erabiltzen dutenarekin.

Bestetik, dokumentuaren idazkera eta esamoldeetan sakonduz gero, San Juan de la Peñari dohaintzan emandako ondasunen artean hiru talde bereiz daitezkeela ondorioztatzen du (*Ibid.*, 80):



1- San Sabaltore monasterioaren lurrak (mapan urdinez adierazita):


Dokumentuan, *Gaharragatik* hasi eta *Verasibiaraino* doan pasartearekin bat egingo luke. Hauetatik *Gaharraga* (Aduna), *Aluitz urre* (Albiztur), *Lascuren* (Errexil), *Arzagudun* (Altzo) eta *Berasivia* (Alegia) kokatzen ditu, S. Múgica eta F. Arocenak egin zuten modura. Ez dira aipatzen *Orer urte* eta *Ainarte de Areiznabar*.

2- Oriaren eskubiko ibaiertzean dauden lurrak, Aralarerraino (mapan berdez adierazita):

Talde honetan sartzen ditu *Haralarre*, *Ezizagaray* (Tolosa), *Arrandari* (Abaltzizketa) eta *Osavio* (Altzo). Pasarte honen barne dauden, eta mapan adierazi ez diren toponimoak: *Hezizazaual* (*Hezizarayren* sinonimo konsideratzen duela dirudi), *Sansoiz*, *Ugarte* eta *Zuhaznabar*. Azken biak S. Múgica eta F. Arocenaren mapan agertzen ziren arren mapa honetan ez dira kontutan hartu.

3. Gartza Azenariz eta Galgaren semeen jabetzak:

Hauen artean Aia, Elkano eta Iturrioz (Aia) identifikatzen dira. Ezkiaga azalpenik gabe geratuko litzateke.



1go IRUDIA. Toponimoen kokapen posiblea eta hauek transhumantzia bidearekin izan dezaketen harremana

BARRENA: 1989, 77 or (mapa moldatua)

Ikusi dugunez, egileak toponimo hauek mapan kokatzeko orduan S. Múgica eta F. Arocenak egindako proposamenak jarraitzen ditu, azken hauek planteatutako identifikazio batzuk barne hartzen ez baditu ere. Aukeraketa hau egiteko orduan, ez da azaltzen azken toponimo hauek kontuan ez hartzearen arrazoia. Toponimoen identifikazioen egokitasunaren inguruko baloraziorik ere ez da egiten.

E. Barrenaren ustez, lehenengo bi taldeek, monasterioaren lurrak osatuko lituzkete. Espazio hau trasnhumantzia bidearen ondoan kokatuko litzateke, baina, agerian geratuz, bi eremuek, abeltzainak eta monasterialak, beraien artean ez lituzketela antzekotasun gutxi batzuk baino izango. Lehenengo espazioak laukizuzen itxurako eremu bat osatuko lukeen bitartean, menditik kostarako lurrak hartuz, bigarrenak espazio erdi-zirkular bat irudikatuko luke monasterioaren inguruan (*Ibid.*, 80).

Monasterioarena propioa den eremu honek, baina, hedadura handia hartzen du; egileak berak adierazten duen modura, espacio honetan urrunen aurkitzen diren puntuak –*Gaharraga, Lascuren* eta *Aralar*– hamar bat kilometroko distantzian aurkitzen dira monasterioarekiko. E. Barrenaren ustez, honek agerian utziko luke más que la fuerza centrífuga de este polo de colonización agraria, la escasa transformación del área guipuzcoana (*Ibid.*, 81).

Hirugarren taldeko toponimoak kostatik gertu kokatzen ditu, Urola ibaiaren inguruetañ. Kasu honetan aipagarria da ondasunen jabetza ez dagokiola monasterioari, Gartzea Azenariz eta Galgaren semeei baizik, eta hauen izenean ematen dituela dohaintzan hauen amak. Kokapenari dagokionean, egileak transhumantzia bidearekin jartzen ditu harremanetan, espacio honetan, Andazarraten, hau da, Iturriotzetik gertu, abeltzaintza-bide honek bi norantza ezberdin hartzen baititu.

A partir de todos los datos encerrados en el texto del monasterio de San Salvador de Olazábal, puede deducirse que con la donación de los Acenáriz, el monasterio aragonés de la Peña se hizo presente a lo largo de toda la ruta ganadera que atraviesa la tierra de los iputzanos, con su dirección dominante S.E.-N-O., desde Aralar a Elcano (*Ibid.*, 88).

Hala ere, transhumantzia bidearekin duen harremana agerikoa dela konsideratzen badu ere, hainbat zehaztapen egiten ditu honen harira, bide honetan espacio zein giza errealtitate ezberdinak topa baititzazkegu. Batetik, Aralarretik Hernio eta Urolara doan eremua definitzen du. Espazio honek Nafarroatik datozen influentzia feudalen korridore moduan funtzionatuko luke, betiere abeltzaintzaren ardatza jarraituz, Larraun eta Araxes ibaien norantzan.



Eremu honen ertz batean San Salbatore monasterioa egongo litzateke, Goiherri inguruan eragin feudal handiena jasoko lukeen espazioa. Hemendik kanpo, Iputzako artzaien bizimoduak iraungo luke. Azkenik, Iturriotz eta Kantauri itsasoaren arteko gunea okupazio indigena eskasekoa litzakeela konsideratzen du, egoera honek ahalbidetuko lukeelarik habitat errealtitate berriak sortzea, Aia herria kasu (*Ibid.*, 88).

A semejanza de estos tres niveles de transformación, el mecanismo de la donación de San Juan de la Peña de cada una de las zonas respectivas es, como lo recoge el texto de 1025, plenamente diferente: en la zona más transformada es el matrimonio Acénariz quien dispone de la heredad de Olazábal; en la menos ocupada, es a la iputzana a quien corresponde privativamente el derecho de transmisión de los bienes de sus hijos; en la central, sujeta a la tradicional organización del pastoreo, será conveniente adjuntar al atrio de San Salvador para poder segregarla a favor del cenobio aragonés.

2.6. Proposatutako transkribapenak

Dokumentu honen bi kopien transkribapenak sarritan izan dira argitaratuak, baina ez dago edizio egoki ziur bat. J.A. Llorentetik (1807) hasi eta M. Aguderaino (1968) egile ezberdinek proposatu dituzte agiri hauen transkribapenak. Esan beharra dago, egoera honek, ikerketa lana erraztetik urrun, toponimoen identifikazioa konplexuago bihurtzen duela.

Berez identifikatzeko arazoak eskaintzen dituzten toponimoak izateaz gain, transkribapen hauek terminoen aldaera ezberdinak aurkezten dituztenez, ikerketa lana zaidu egiten da. Egoera hau agerikoa da jarraian ikus dezakegun taulan. Bertan lan garrantzitsuenak jaso ditugu, transkribapen berriak proposatu dituztenak, argitalpen urtea eta transkribapena egiteko erabilitako kopia zehatz.



1go TAULA. ARGITALPEN EZBERDINETAN JASOTAKO TOPONIMOEN ALDAERAK

F. AROCENA (1958, L.G.)	A. UBIETO (1963, L.G.)	M. AGUD (1968, L.G.)	J.A. LLORENTE (1807, A.H.N⁹)	S. MÚGICA (1931, A.H.N)	A. UBIETO (1963, AHN)	M. AGUD (1968, AHN)
gaharraga	gaharraga	gaharraga	Gaharraga	Gaharraga	gaharraga	gaharraga
orer arrte	Orer urte	orer urrte	Orer Urte	Orerarte	Orer urte	orer urte
aluizturre	Alvitzurre	Aluizturre	Alvizurre	Aluizurre	Alviçurre	Aluiçurre
lascurende	Lascurende ¹⁰	lascuren	Lascurren	Lasturrende	Lascurrede	Iascuren
ainarte	Ainarte	ainarte	Amarte	Ainatre	Amatre	amatre
areiz nabar	Areiz nabar	areiz nabar	Araiz-Nabar	Areiznabar	Areiz nabar	areiz nabar
arzagudun	Arzagicorin	arzagudum	Arzagicori	Arzagudun	Arzagicorin	arzagudum
uerasibia	Vera sibia	uerasibia	Verasibia	Uerasibia	Vera sibia	uerasibia
haralarre	haralarre	haralarre	—	Haralarre	haralarre	haralarre
hezizazaual	Heziza zaval	hezizazaual	Heri-Zabal	Hezizazabal	Heziza zaval	hezizazaual
hezizaray	Hezi caray	hezizaray	Heri-Zaray	Herizaray	Hezi caray	hezizaray
arrandari	arrandari	arrandari	Arandari	Arandari	arandari	arandari
sansoyz	Sansoiç	sansoiz	Sansoiz	Sansoiz	Sansoiç	sansoiz
ugarte	Ugarte	ugarte	Ugarte	Ugarte	Ugarte	ugarte
zuhaznabar	Zuhaz nabar	zuhaznabar	Zuhaznabar	Zuhaznabar	Zuhaz nabar	zuhaznabar
ossauio	ossavio	ossauio	Osavio	Ossabio	ossavio	ossauiio
haya	Haya	haya	Haya de Elcano	Haya	Haya	haya
helcano	Ethelcano	helcanno		Helcano	Etchelcano	helcanno
ezquiaga	Ezquiaga	ezquiaga	Ezquiaga	Ezquiaga	Ezquiaga	ezquiaga
iturrioz de gurtia	Iturrioz de Gurtia	iturrioz de gurtia	Iturrioz de Gurtia	Iturrioz de Gurtia	Iturriz de Gurtia	Iturrioz de gurtia

⁹ J.A. Llorentek iturri bezala ondorengoa aipatzen du: *Archivo de san Juan de la Peña, ligarza 12, núm. 36.* Jarrain ikusiko dugun modura egun AHN-an kontserbatzen den kopiari egiten dio erreferentzia, baina Llorenteren kopistek agiri hau erabili zutenean hau oraindik San Juan de la Peñako artxiboa aurkitzen zen, horregatik da sailkatzekeko modua ezberdina.

¹⁰ Egileak oharrean hitz hau zatitu beharko litzatekeela aipatzen du: *Lascuren de.*



Gaharraga: adostasun erabatekoa ikusten da termino honen transkribapenari dagokionean.

Orer urte: toponimo honi dagokionean, kasu bakarrean agertzen dira bi hitzak elkarrekin, S. Múgica eta F. Arocenaren (1931) lanean. Bestetik, esan beharra dago bi egile hauek soilik transkribatu dutela *orer arte* edo *orerarte* modura, *urte*-ren lekuan *arte* jarriz. Hortaz, *arte* edo *urte* transkribatzeko hautua, agerian geratzen da ez dela erabilitako kopiaren ondorio. Izen ere, bai S. Múgica eta F. Arocenaren (1931) lanean, AHN-ko kopian oinarritua, zein F. Arocenarenean (1958), oinarritzat Liburu Gotikoa hartzen duena, *arte* bezala transkribatzen da. Gainontzeko egileek, dokumentuaren kopia bat ala bestea erabili, *urte* bezala transkribatu dute.

Alvitz urre: Liburua Gotikoa oinarritzat hartu dutenen kasuan *Alvitz/aluizt urre* bezala transkribatua izan da. Llorentek *Alvizurre* idazten du. Azken aldaera hau, “t” hizkirkir gabea, AHN-ko kopia transkribatu duten kasuetan aurkitzen dugu, grafiak batetik bestera aldatzen badira ere (*Aluizurre*, *Alviç urre*, *Aluiç urre*).

Lascuren: Termino honek aldaera ezberdinak eskaintzen baditu ere, funtsean antzekotasun nabariak aurkituko ditugu. Kasu ia gehientan – F. Arocenarenean (1958) izan ezik- *Lascuren/Lascurren* da hitzaren zati nagusia, honi, hainbat kasutan “-de” gehintzen zaiolarik bukaeran. Ubietok ere ala egiten duen arren ohar batean “-de” hori bananduta agertu beharko litzatekeela iradokitzen du: ... *super Lascuren. De alia parte inferiorem....*

Ainarte: Adostasun erabateko dago Liburu Gotikoa erabili dutenen artean *Ainarte* bezala transkribatzeko. Gainontzeko kasuetan hitzaren lehenengo zatia batzuetan “Aina-” bezala agertzen den bitartean beste batzuetan “Ama-” transkribatzen da. Hitzaren azken zatiari dagokionean, “-rte” edo “-tre” atzizkiak erabiltzen dira.

Areiz nabar: Termino honen transkribapenean Llorente da salbuespen bakarra, *Areiz* transkribatu beharrean *Araiz* idazten baitu. Bestetik, aipatzekoa da S. Múgica eta F. Arocenak (1931) soilik proposatzen dutela bi termino hauek hitz bakarra osatuz transkribatzea.

Arzagudum/Arzagudun: Toponimo honi dagokionean deigarria da bai Llorentek eta bai Ubietok proposatzen duten transkribapena. Lehenengoak, *Arzagicori* transkribatzen du, eta bigarrenak *Arzagicorin*, Ubietok proposamen berdina egiten du bi kopien transkribapenerako.



Verasibia: hitz honen transkribapenak ere ez du arazo handirik planteatzen. Batetik, grafia aldaera batzuk agertzen dira (*Uerasibia/ Verasibia*); bestetik, kasu batzuetan bi hitz izango balira bezala eta besteetan hitz bakarra osatuz agertzen da.

Haralarre: Erabateko adostasuna dago termino hau transkribatzeko orduan, honen irakurketak ez baitu arazorik eskaintzen. Aipagarria da, baina, Llorentek (1807) ez duela termino hau transkribatzen, honen lekuari *alia parte* idazten du.

Hezizazaual: Grafia aldaerak eta kasu batzuetan bi hitzetan eta bestetan hitz bakarrean aurkezteaz gain, ez dugu beste ezberdintasunik topatzen. Kasu honetan ere Llorente da salbuespena, bere lanean *Heri-Zabal* agertzen baita.

Hezizaray: J.A. Llorentek eta S. Múgica eta F. Arocenak *Heri Zaray* proposatzen dute. A. Ubietok *Hezi caray* bi kopietarako. Gainontzekoek *Hezizaray* transkribatzen dute.

Arrandari / arandari: Bi aldaera hauek aurkitzen ditugu termino hau transkribatzeko orduan. L.G. oinarri bezala erabili dutenek *Arrandari* transkribatu dute, eta AHN-koa erabili dutenek *Arandari*.

Sansoiz: Grafia aldaketak soilik jasotzen dira: *Sansoyz/Sansoiç/ Sansoiz*.

Ugarte: Termino honen inguruan erabateko adostasuna agerikoa da.

Zuhaznabar: Bi termino osatuz edo hitz bakarrean, transkribapen bera proposatzen da kasu guztietai.

Ossavio: Llorentek “s” bakarrarekin transkribatzen du. Gainontzeako artean grafia aldaerak baina ez dira agerian geratzen: *ossauio/ossavio/ossabio*.

Haya et Helcano: Kasu honetan, transkribapenaren aldaerari baino, bi toponimo hauen arteko erlazioari errepasatuko diogu. Gehienek Haya eta Helcano/Helcanno bi errealitye ezberdin bezala aurkezten baditzte ere, Llorentek *Haya de Helcanno* esaten du, eta Ubietok ez du “et” juntagailu kopulatibo bezala hartzen, Helcanori atxikita doan hitzaren zati bat bezala baizik, *Ethelcano/Ethelcanno* transkribatuz –horrela dator dokumentuetan-.

Ezquiaga: termino honi dagokionean, egile guztiekin proposatzen dute transkribapen bera.



Iturrioz de Gurtia: transkribapen honek ere erabateko adostasuna lortzen du.

Agerian geratzen denez, toponimoen transkribapenak arazoak ematen ditu. Dokumentuaren irakurketak zaitasunak eskaintzen dituelako kasu batzuetan; bi termino elkarren segidan transkribatu behar diren ala bi errealtitate osatzen duten jakitea zaila delako, bestetan.

Las diferencias registradas en nuestro documento en algunas palabras corrientes hacen pensar que otras hayan sido mal leídas y entre ellas naturalmente las escritas en una lengua extraña al copista, como tenían que ser los términos vascos... Salta a la vista su corrupción. No es arriesgado suponer que quien copió sobre el primitivo original no comprendió una porción de cosas (AGUD: 1969, 331).

Llorenteran (1807) kasuan, San Juan de la Peñako artxiboa iturri bezala aipatzen badu ere, ematen duen erreferentzia ez da Liburu Gotikoko: *Archivo de San Juan de la Peña, ligarza 12, núm. 36.* M. Aguden ustez, ez da zehazki ezagutzen nondik kopiari zuen Llorentek.

Este autor menciona legajos de documentos (ligarza 12, n.º 36) y la transcripción que hace, *de Sulue superiore ad Gaharraga...* (¿acaso *silue*?) no ha podido tomarla del Cartulario de la Facultad de Derecho de Zaragoza, donde aparece clarísimoamente, sin lugar a dudas y en absoluto incompatible con otra lectura, *des scilice superiore gaharraga;* ni del B [AHN] (donde tenemos *et gaharraga*), por poco fiel que haya sido el copista de Llorente (AGUD: 1969, 332).

Ondorengoa ere gehitzen du:

El copista transcribió con bastante fidelidad en general; por tanto hemos de pensar que las divergencias en términos de fácil comprensión sólo pueden achacarse a un original distinto, que por varios indicios tampoco sería acaso el diploma primitivo, aun cuando la coincidencia en ciertas omisiones inclinaría a pensar que los copistas de Llorente emplearon el documento actualmente en el AHN (*Ibid.*, 331).

Dokumentuaren transkribapena egitea beste pertsona batzuei enkargutu zien Llorentek berak. Egile honen ustez, Llorentek 1807an argiratu zuenez, San Juan de la Peñako artxibotik kopiari behar izan zuten derrigorrez, monasterioko funtsak beranduago atera baitziren bertatik, desamortizazioaren ondorioz (*Ibid.*, 328-329).



Ez zaio arrazoirik falta Llorenteren kopistek San Juan de la Peñako Artxibotik kopiari zutela esaten duenean, eta honen bitartez azaltzen da Llorentek ematen duen erreferentziaren (ligarza 12, 36 zbk.) misterioa. Izan ere, AHN-an dokumentu ha izantzeko erabiltzen duten erreferentzia bestelakoa baldin bada ere (karp. 695, 8 zbk), dokumentua bera aztertzeko aukera izan dugunean, honen atzealdean eskuz idatziz agertzen den beste erreferentzia zaharrago batekin egin dugu topo:

Carp – 25

Ligar- 12

Num- 36

Exp- 115

Dokumetuan bertan aurkitzen dugun sailkatzeo modu hau, agiria San Juan de la Peñako Atxiboan kontserbatzen zen garaikoa behar du izan.

Llorentek erreferentzi hauak berak jasotzen dituenez, inongo zalatzarik gabe ondoriozta dezakegu egile honek bere transkribapenak egiteko orduan, oinarri modura AHN-an kontserbatzen den dokumentu hau erabili zuela. Gauzak horrela, Llorenteren transkribapenean agertzen diren ezberdinatasunak egile honentzat lan egin zuten kopisten praktikaren ondorio direla konfirmatu dezakegu, zehazterik ez dugun arren irakurketa oker batek edo testua ulergarriago egiteko helburuak bultzatuta sortu ziren aldaera horiek.



2.7. Toponimoen identifikazioa

Olazabalgo San Salbatore dokumentuan agertzen diren toponimoen identifikazioari dagokionean aipa genezakeen lanik garrantzitsuena S. Múgica eta F. Arocenak 1931ean RIEV aldizkarian argitaratutako *Un documento importante: San Salvador de Olazabal* da, zalantzarik gabe. Artikulu honetan, AHN-an gordetzen den dokumentuaren argazki bat argitaratzen da eta baita honen transkribapena ere. Egileek, toponimo hauetako hainbaten identifikazioa proposatzen dute eta mapa batean kokatzen dituzte krokis modura, izan ere, toponimoen kokapen zehatza baino, zein udalerritan aurkitzen diren zehazten baita.

Ello no obstante, sólo queremos presentar nuestras conclusiones a título provisional, mientras otros argumentos basados en las investigaciones o en más atinadas interpretaciones no las rebatan o modifiquen (MÚGICA; AROCENA: 1931,371)



2.IRUDIA. Toponimoen kokapen posibleen mapa, Múgica eta Arocenaren proposamena
MÚGICA; AROCENA: 1931,370 (mapa moldatua)

Identifikazio batzuk ontzat ematen dituzten bitartean, beste batzuk hurbilketa baten ondorio direla adierazten dute:

En algunos casos la identidad entre la designación antigua y la moderna resulta evidente. Pero en otros, sólo puede establecerse una identificación relativa, aunque siempre muy aproximada y en forma de quedar a salvo la analogía semántica de los términos comparados (*Ibid*, 370).

Historiografiari erreparatzen badiogu, esan genezake nolabaiteko onarpena jaso dutela identifikazio hauek, egile batzuk hainbat toponimoren inguruan zalantzak agertu badituzte ere:

Aun cuando la toponimia se puede localizar más o menos, no están claros algunos nombres. Tal ocurre con *hezizaray* (se ha supuesto Eceizagoena); acaso también con el propio *haralarre*; *gaharraga* es discutible, como *lascuren y gurtia* (AGUD: 1969, 331).

Egile honek berak interpretazio arazoak ikusten ditu toponimo hauek mapan kokatuta dauden modua azaltzeko orduan:

Aun cuando en principio, según hemos indicado siguiendo a Múgica y Arocena, parece corresponder la toponimia del documento a la realidad actual, puestos sobre el terreno quedamos un tanto perplejos. Ya se ha dicho que los límites de punto a punto no son racionales. Esto, unido a la obscuridad de algunos nombres, hace sospechar errores iniciales de copia (*Ibid.*, 333).

M. Agudek (*Ibid.*, 333-334), gainera, hainbat arazo azpimarratzen ditu toponimoen identifikazioan:

Gaharraga: Adunan egongo balitz, dohaintzaren lehenengo toponimoetik urrun aurkituko litzateke. Lanzadazuriren interpretazioa ere, *Goiko Gaharraga* modura ulertuz, ez du begi onez ikusten.

Lascuren: *Lascurain*, Gorosabelen *Lascoain*, izan zitekeela konsideratzen du. Tolosatik gertu Lascurain izeneko baserri bat dagoela aipatzen du, eta hau Albizturen gainean kokatuko litzatekeela.

Arzagudun: ez du zalantzarik egungo Arzadunekin identifikatzeko orduan.

Verasibia: egungo Berazubi hitzarekin erlazionatzen du. Errepide nagusiaren ondoan kokatzen du, Oria ibaiaren ondoan. Gorosabelek Berasibia zubia aipatzen duela gehitzen du, Tolosa eta Ikaztegiak amankonumeen zutena, baita *Berasibia erdicoa* eta *Berasibia andia* baserriak ere, hau da Alegia eta Tolosaren arteko mugan aurkitzen direnak.



Haralarre: hemen ere arazo bat dagoela konsideratzen du. Egile honen ustez, *Aralar*, *Hezizazaual*, *Heziray* eta *Sansoyz* toponimoek talde bat osatzen dutela konsideratuko bagenu, batzuk monasterioaren hegoaldean dauden bitartean besteak iparraldean aurkitzeak ez luke zentzurik izango.

Zuhaznabar eta Otsabio: *Hezizaray* eta *Zuhaznabar* elkarrekin joatea arraro ikusten du, bata bestetik urrun aurkitzen direlako. Egile honen ustez berdina gertatuko litzateke *Zuhaznabar* eta *Otsabiorekin*, lehenengoa Altzoren iparraldean dagoen bitartean, bigarrena hegoaldean aurkitzen baita.

Iturrioz: Albizturtik gertu dagoen toponimo bati erreferentzia egin diezaiokeela konsideratzen du, Aiako Iturriozt ermita baina zentzuzkoagoa ikusten du aukera hau.

Arranadari, Sansoyz, Ezquiaga eta Gurtia identifikatu gabe geratuko lirateke.

Jarraintzako toponimo hauen inguruan proposatu diren hainbat identifikazio posible aurkezten ditugu taula batean. Aipatutako Serapio Múgica eta Fausto Arocenaren proposamenez gain, Manuel Agudek planteatzen dituen aukerak ere agertzen dira. Bestetik, Alberto Santanak hainbat baserriren izenekin ikusi dituen antzekotasunak ere bildu ditugu eta azkenik, Siratz Aldanondok, historian lizentziatura, Juan José Larrearen zuzendaritzapean burutako karrera amaierako lanean –argiratu gabea- aurkeztutako hainbat proposamen ere kontutan hartuak izan dira.



2. TAULA. LAN EZBERDINETAN JASOTAKO TOPONIMOEN IDENTIFIKAZIO PROPOSAMEAK

	S. MÚGICA (1931)	M. AGUD (1968)	A. SANTANA (2003)	S. ALDANONDO (2013)
Gaharraga	Aduna (Galarraga)			Aduna (Galarraga)
Orer urte				Orendain
Alvitz urre	Albiztur			Albiztur
Lascuren	Errezil (Lasturreta)	Tolosa (Lascoain)		-Deba (erreka) -Errezil (Lasturreta erreka) -Billabona (mendia)
Ainarte				Aralar (Ariñate-Añate)
Areiz nabar				Aralar (Aiznabar)
Arzagudum	Altzo (Arzadun)	Altzo (Arzadun)		Altzo (Artzadun)
Verasibia	Alegia	Tolosa (Berazubi Haundi, Berazubi Erdi)	Tolosa (Berazubi Haundi)	Alegia (Berazubi)
Haralarre	Aralar	Amezketa (barrio Aralar)		Aralar
Hezizazaual				Tolosa
Hezizaray	Tolosa (Ezizagoena)		Tolosa (Ezizagoena)	Tolosa (Ezizagoena)
Arandari	Abaltzizketa (Arandi)			Abaltzizketa (Sasiaín-Arandi) Antzuola (erreka; Arrandaritorre; Arrandariozaeta)
Sansoiz				
Ugarte	Amezketa	Amezketa	Amezketa	Amezketa
Zuhaznabar	Altzo		Altzo (Zuaznabar Haundi)	Altzo (Zuaznabar)
Ossavio	Altzo (Otsabio)			Altzo (Otsabio)
Haya	Aia	Aia		Aia
Helcano	Aia (Elkano)	Aia (Elkano)		Aia (Elkano)
Ezquiaga			Ikaztegieta	Ikaztegieta
Iturrioz de Gurtia	Aia (Iturrioz)	Albiztur Tolosa (Iturrioz baseria)		Ikaztegieta (Iturrioz)



3- AGIRIEN HUSTUKETA TOPONIMIKOA ETA IDENTIFIKAZIO POSIBLEAK

3.1. Gaharraga

Galarraga terminoak ez du transkribapen arazorik sortzen, erabateko adostasuna delarik nagusi bi kopietarako proposatu diren transkribapen ezberdinetan. Kokapenari dagokionean, S. Múgica eta F. Arocenak Adunan kokatu zuten eta ordutik ez da beste proposamenik iradoki. Identifikazio hau burutzeko orduan, Adunan kokatzen den Galarraga baserria hartuko zuten oinarri bezala seguruenik, tradizio luzeko leinua izanik udalerrian. M. Agudek hainbat zalantza planteatzen ditu kokapen honi dagokionean:

Si Gaharraga pudiera ser identificado, al decir de los autores mencionados, con Galarraga (por Aduna), es decir, un poco lejos de los demás nombres de la primera parte de la donación, quedan, no obstante, en pie dos problemas: 1) a qué corresponde *orer urrte*; 2) Albiztur (*aluizt urre*) no está en “la parte superior” (*si entendemos en el documento des scilice [parte] superiore*). De todos modos, caso de no ser interpretado así, no tiene sentido. Tampoco parece aceptable la traducción de Landazuri “la Gaharraga de Arriba”; puesto que luego tenemos, *de alia parte inferiore* (separamos de *de Lascuren*); no parece nombre común o genérico (AGUD: 1968, 333).

Adunako baserriaz gain, Errezilen ere kontserbatzen dira izen hau daramaten beste hainbat etxe¹¹, baina oraingoan Altzotik gertuago aurkitzen diren bi kokapen posibletan jarriko dugu arreta.

Lizartzako herrigunea

XVI. mendeko dokumentazioa izan da toponimo hau berreskuratzea ahalbidetu duena, egun ez baita erabiltzen. Jarraian, agiri hauetako hiru pasarte ekarriko ditugu, toponimoaren kokapena zehazten lagunduko diguten deskribapenak jasotzen baititzute.

Lehenengoak, 1568ko agiria, Araxes ibaian horma bat eraikitzeko helburuarekin idatzitako hitzarmena jasotzen du, bidean ura sartzea ekiditeko; Lizartzako

¹¹ Galarraga Goena, Galarraga barrena, Galarraga saletxe, Landarrain Galarraga eta Galarraga bitarte.



kontzejuak, alde batetik, eta Joan Apaeztegi eta Joanes Goikoetxeak, bestetik, sinatu zutena.

...obiesen de hazer et yziesen una pared de piedra seca en el término de Galarraga, por la parte del río, para defensa del agua. Comenzando dende la tierra de la casa de Arrate¹², asta junto la tierra Martín de Ag[uirr]e. Y la dicha pared sea de piedras grandes y en el grosor que conviene y en alto quanto en las crecientes suele subir el río que ba dende la dicha tierra para abajo, de manera que sobrepaze al río y el agua no ocupe al camino en ningún tiempo. E fecha la dicha pared, arrasen e anibelen el camino de manera que se pueda enpedrar.¹³

Galarraga izeneko lurra ibaiaren ondoan aurkitzen dela ondorioztatzeaz gain, Arrate etxeari egindako erreferentzia datu baliagarria izango da espacio hau mapa batean kokatzeko orduan.

Urte batzuk beranduago, 1582an, Martin Iribarrenek Tristan Barrenetxeari lursail bat salduko dio Galarragako lurretan, 32 dukaten truke.

...una pieça de tierra sembradía llamada de Galarraga que tengo y me pertenece en la dicha tierra; que por arriba se atiene al camino real, e por abajo al río, e por los lados tierra de la casa de Apaeztegui con todas las entradas y salidas...¹⁴

Hortaz, Arrate etxeaz gain bigarren erreferentzia bat ere berreskuratu dugu, Apaeztegui etxea. Garaikidea den beste agiri batean, 1583an idatzia, Apaeztegui hitza topatzen dugu berriro ere, baina oraingoan abizen lokatibo modura.

... una pieça de tierra sembradía que yo he y tengo e posseo en la dicha tierra de Liçarça, llamada Galarraga, que confina e tiene por linderos por ambos lados a tierras de Miguel de Apaeztegui, vecino de la dicha tierra, e por abajo al rrío e por arriba con el camino real...¹⁵

Egun oraindik kontserbatzen dira Apeztegi izena daramaten bi etxe –Apeztegi Berri eta Apeztegi Zahar–, Lizartzako Santa Katalina parrokiaren ondoan, baita Arrate etxea ere. Mugak aipatzen direnean etxeak baino hauen lurrak erabiltzen diren arren, bi etxe hauen hurbiltasunak eta ibaiari eta erret-bideari egindako aipamenek, Galarraga egungo Lizartzako erdigunean kokatzera eramatzen gaituzte.


¹² Gaur egun Arrate baseria Lizartzako Elbarrena kalean, 16. zenbakian, dago.

¹³ AGG-GAO PT44: 617r, 1568 urtea.

¹⁴ AGG-GAO PT60: 518r, 1582 urtea.

¹⁵ AGG-GAO PT82: 223r, 1583 urtea.






3. IRUDIA. Galarraga toponimoaren kokapena Lizartzan
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

Lizartza mapa orokorrago batean kokatzen badugu, monasterioarekiko dagoen distantzia 5 km ingurukoa dela ohartuko gara. Bestetik, aipagarria da herrigunetik pasatzen den Araxes ibaia Tolosaraino iristen dela, Oria ibaiaren ibaiadarra baita. Honek, monasterioaren ekialdeko muga markatzen duela pentsa genezake, baina interpretazio arazo batekin topo egingo genuke Olazabalgo dokumentuan jasotzen dena kontutan hartzen badugu. *Des scilice superiore esamoldeak goiko parteari erreferentzia egiten badio, monasterioaren goiko mugari erreferentzia egiten diola pentsatzea litzateke logikoa eta, Lizartza, monasterioaren hego-ekialdean kokatuko litzateke.*





4. IRUDIA. Araxes ibaiaren ibildidea
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Zentzu honetan, E. Barrenak ibai honek Nafarroarekiko harremanei dagokionean izan zezakeen garrantzia azpimarratzen du:

...las heredades del monasterio de Altzo, el cual se levanta, de manera muy indicativa para la historia de sus orígenes, en la boca del río Araxes, el afluente del Oria que, desde una óptica agrícola, constituye la vía natural de penetración de influjos mediterráneos en el área cantábrica guipuzcoana (BARRENA: 1989, 80).

Belauntzako Galarraga etxea

Bigarren kokapen posible modura Belauntzako Galarraga aztertuko dugu, bertan aurkitzen baitzen izen hori zeraman oinetxea. Gipuzkoako Artxibo Orokorean kontserbatzen den dokumentazioaren artean ugariak dira etxe honi egiten zaizkion erreferentziak, horietatik zaharrena 1557koa izanik¹⁶.


¹⁶ AGG-GAO PT8:346-349. Belauntzako Galarraga etxea, Leaburuko Izurrain etxearekin batera, ordainketa baten berme modura aipatzen dira.






5. IRUDIA. Belauntzako Galarraga baserriaren antzinako argazkia
Galarraga etxea. AGG-GAO OA04565 ©CC BY-SA: Ojanguren, Indalecio

Ondorengo mapan Belauntzako Galarraga etxearen kokapena ikus dezakegu.



6. IRUDIA. Belauntzako Galarraga baserriaren kokapena
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Belauntzaren kokapenari erreparatzen badiogu, Galarraga Tolosatik gertu aurkitzen dela agerian geratzen da, hau da, testuan aipatzen diren Lascuren, Berasivia eta Uzturretik gertu, hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala.



7. IRUDIA. Belauntzaren gertutasuna Berasivia, Lascuren eta Uzturre toponimoekiko Geoeuskadi (mapa moldatua)

3.2. Orerurte

Toponimo hau da, zalantzarik gabe, identifikazio arazo handienak ematen dituena. Hasteko, bi transkribapen aldaera nagusi jasotzen dira: *Orer urte/urrte* eta *Orer arrte/Orerarte*. Kasu honetan esan genezake, aldaera bat edo bestea aurkeztearen arrazoia ez dela erabilitako kopiaren araberakoa, transkribatzailearen irakurketarekin izango luke-eta erlazio handiagoa. Identifikazioari dagokionean S. Aldanondo (2013) da proposamen bat planteatzen duen bakarra, Orendain udalerriarekin erlazonatuz, zalantzarekin egiten badu ere.

Artxiboetako toponimiaren hustuketa lanek ere ez dute honi dagokionean aurrerapausorik ematea ahalbidetu. Geratzen zaigun aukera bakarra gainontzeko terminoak bere tokian kokatu eta *Orerarte* ze ingurutan aurki zitekeen proposatzea da, beste argudio fidagarriagoak agertu bitartean. Ekar dezagun gogora toponimo honi dagokion pasartea:


Des silice superiore: Gaharraga, Orer urrte, alias Uzturre super Lascuren

Jarraian zehaztasun handiagoarekin azalduko dugun modura, Albiztur bezala identifikatua izan den toponimoak Uzturreri erreferentzia egiten diola planteatuko dugu hipotesi modura lan honetan. Bestetik *Lascuren* terminoa egungo Laskoain eremuan kokatu dugu, hau da, Tolosako erdigunean. Honi dokumentuaren bigarren pasarteko aipamena gehitzen badiogu, zeinetan monasterioaren beheko

aldetik doan muga *Verasibian* amaitzen dela esaten den, *Orerurtek Oria ibaiaren Tolosako zatiari edo honen inguruan aurkitzen den espazioari erreferentzia egiten diola pentsa genezake. Aspektu honi, baina, lana aurreratuagoa dagoenean eutsiko diogu berriro ere, oraindik aipatutako gainontzeko toponimoen identifikazio posibleak aztertzeke baititugu.*

3.3. Lascuren

Toponimo honen transkribapen ezberdinak proposatu dira, baina ia denek dute oinarri bera: *Lascuren/Lascurren*. Honi kasu batzuetan “-de” atzikia gehitzen zaio, *Lascurende* (A. Ubieto eta F. Arocena), dokumentuko hurrengo hitzarekin elkartzen dutelako seguruenik: *super Lascuren. De alia parte inferiorem...*



8. IRUDIA. Lascuren toponimoa Liburu Gotikoan jasotako kopian
Zaragozako Liburutegi Unibertsitarioa (ZLU, Liburu Gotikoa. 75v-76r.)

Bi kasu berezi ere topatzen ditugu, S. Múgica eta F. Arocenaren (1931) *Lasturrende* eta A. Ubietoren (1963) *Lascurrede* -AHN-ko kopia erabiltzen duenean-.

Gauzak horrela, Serapio Múgica eta Fausto Arocenak, toponimoen identifikaziorako *Lasturrende* leku-izena hartzen dute abiapuntutzat eta Errezilen aurkitzen den *Lasturreta* izenarekin erlazionatzen dute.

Gure ustez baina, identifikazio egoki baterako *Lascuren* erabili beharko genuke oinarri bezala, hau baita kasuen gehiengoan errepikatzen dena, Liburu Gotikoan argia izanik honen irakurketa. Identifikazio posibleei dagokienean, M. Agudek (1968, 338) egungo Lascurain izan zitekeela planteatzen du, P. de Gorosabelek Lascoain bezala izendatzen duena.

Esan beharra dago, dokumentazioari erreparatzen badiogu, azken hipotesi honek indarra hartzen duela. Tolosako lehenengo agirietan maiz agertzen den abizen lokatibo bat izateaz gain, abizen honen aldaera ezberdinak gordetzen dira agirietan. Honen eredu garbia udalerri honetako artxiboa kontserbatzen den 1349ko dokumentua dugu (ROLDÁN: 1991, 20 dok); bertan, Gaztelako Alfontso XI-ak, Tolosako aitonen semeak hainbat zerga ordaintzetik salbuesten ditu.

Dokumentu originala berantiarragoak diren beste bi kopiekin alderatzen badugu abizen honen garapena igarri daiteke:

3.TAULA. LASCUREN TOPONIMOAREN ALDAERAK XIV. ETA XVI. MENDEETAKO DOKUMENTUETAN

1349	1351 ¹⁷	1577 ¹⁸
Martin Yeneguez de Lascoan ¹⁹		Lascoayn
Ferrando de Lascoan ²⁰	Lascoan	Lascoayn
Martin Martinez de Lascayan ²¹	Lascayan	Lascoayn/ Lascoain
Aparicio de Lascoayen ²²	Lascoayen	Lascoayn
Sancho Ximenez de Lascuen ²³	Lascuen	Lascoayn

Taula honetan aldaera adierazgarrienak soilik jaso ditugu, baina aipatutako agirian beste bost kasutan agertzen da abizen lokatibo hau. Kasu guztiak aztertu ondoren ondoriozta genezake *Lascoain* aldaera, Gorosabelek jasotzen duena, XIV. mendearen bigarren erdialde eta XVI mendearen bitarte horretan zabaltzen joan zela, 1577 urterako erabat finkatuta dagoela agerian geratzen delarik. Bestetik, azpimarratzeko da 1351 urterarte ugariak direla abizen hau erabiltzeko orduan jasotzen diren idazkera ezberdinak. Gure ikerketari dagokionean, aldaera guztien artean *Lascuen* da interesgarriena suertatzen dena, honek Olazabalgo San Salbatore dokumentuko *Lascuren* toponimoarekin duen antzekotasunagatik.

Lascoain terminoari dagokionean, ugariak dira agirietan aurki daitezkeen aipamenak. Gipuzkoako Artxibo historikoan topatu dugun lehenengoa 1551koa da, Lascoayn-eko lurretan aurkitzen den Iursail baten salmentaren ingurukoa:

¹⁷ ROLDÁN: 1991, 20 dok.

¹⁸ *Ibid.*

¹⁹ Eusko Ikaskuntzak argitaratutako transkribapenean *av* hizkiekin adierazten da abizen lokatibo honen oin-oharra.

²⁰ Kasu honetan, oin-oharra *ay* hizkiekin adierazita datorrena da.

²¹ Oin-oharra *bb* hizkiekin adierazita datorrena da.

²² Oin-oharra *em* hizkiekin adierazita datorrena da.

²³ Oin-oharra *go* hizkiekin adierazita datorrena da.



Sepan quantos esta carta de benta vieren cómo yo, el bachiller Joan Martínes de Elduayen, vezino de la villa de Tolosa, otorgo e conozco por esta carta, que e bendido e bendo a bos, Martín Sánchez de Anchieta, que presente estays, para bos e para vuestros herederos y perpetuamente, una pieza de tierra senbradía qu'es sita en el campo de Lascoayn, a la parte llamada Oria, tanta quanta es ella en largo y en ancho, que se atiene de la una parte a tierra de dos herederos de Martín Labrenz de Goycochea, e de la otra parte a tierra de Ramus de Eliaobiaga et María de Herbeeta, et de la otra a tierra de Mari Antón de Lapurdi, por precio et quantía de beynte y dos ducados de oro que por ella me abeys pagado oy, día de la fecha d'esta carta, de los cuales me doy e me llamo por contento e pagado a toda mi boluntad y en razón de la paga que al presente non parece.²⁴

XVI mende bukaeran beste dokumentu batean ere aipatzen da eremu hau.

...una pieza de tierra sembradía, que es una peoneada y media, que abemos y tenemos en los campos de Lascoayn, a la parte de Gorridi, en el término de Andralopa, que es fuera y extramuros de la dicha villa, ateniente por los lados a tierras de bos, el dicho Joanes de Luberiaga, y por la parte del monasterio de Sant Francisco a tierras de los herederos de Antonio de Eleyçalde, y por arriba a tierras de dona María Dominguez de Arteaga, la qual dicha tierra heredad que hemos vendido y vendemos con todas sus entradas y salidas usos y costumbres, franquezas y libertades...²⁵

Kasu honetan, saldutako lursaila, Lascoayneko zelaietan aurkitzen dena, hiriaren harresietatik kanto dagoela zehazten da. Honez gain, San Frantzisko monasterioari ere egiten zaio erreferentzia. Urte batzuk beranduago, 1634 urteko ordainagiri batean, bigarrenez agertuko zaigu komentua:

...vna pieza de tierra sembradía de postura de treinta y quatro pies de mançanos de a doce codos cada postura en los campos de Lascoain de acia la parte del conuento de yglesia San Francisco como constaua por la scripture de venta...²⁶

Oria ibaia beste bi kasutan aurkituko dugu zedarri modura, XVII mende hasierako bi dokumentu ezberdinetan:

²⁴ AGG-GAO PT32: 396r. 1551 urtea.

²⁵ AGG-GAO PT129: 506r. 1593 urtea.

²⁶ AGG-GAO PT 178: 187v. 1634 urtea.



...una pieça de tierra sembradía de peonada y media algo más en los campos de Lascoayn, dada y donada por sus padres, la qual dicha tierra thenía por linderos por la parte de San Esteban el camino público que ban para el río de Oria, y por la parte del dicho río tierras de Catalina Pérez de Aguirre y de Miguel de Ybarra y Mariona de Aguirre, su muger, y por la parte de la dicha villa y del combento de San Franciso d'ella, tierra de la cassa Maalaessea.²⁷

...dos peonadas y media de tierra sembradías pertenecientes a la cassa de Ateagaechea y su vínculo y mayorazgo. La vna de vna peonada que es en los campos de Lascoayn de suso, ateniente a las tierras sembradías de dona Marina de Areista, biuda, y de los capellanes de la capellanía de doña Ana de Areista, difunta, y la otra peonada y media en los campos del dicho Lascoayn de yusso, que alienda con e tierras de Miguel de Eleyçalde y de Joan Martínes de Ayestaran y con el río de Oria...²⁸

Hurrengo mapan Tolosako herrigunea ikusten dugu. San Frantzisko komentua urdinez markatua agertzen da, harresitik kanpo. Esan beharra dago San Frantzisko komentua eta Alde Zaharra elkartzen zituen harresiko atek Laskoain izena zuela. Beste muga Oria ibaiak ezartzen zuela ikusi dugu.



9. IRUDIA. Tolosako San Frantzisko komentuaren kokapena (urdinez)
Geoeuskadi (mapa moldatua)

²⁷ AGG-GAO PT114: 298r. 1610 urtea.


²⁸ AGG-GAO PT247: 315r. 1642 urtea.



Hortaz, esan genezake, Lascoain terminoa eta honen aldaera den Lascuren, egungo Laskurain ibarrean kokatu beharko genituzkeela.

Aipatzeko da, bestetik, beranduago zehaztasun handiagoz ikusiko dugun arren, Laskoainen parean, ibaiaren beste aldean, Berazubi auzoa aurkitzen dugula, Olazabalgo dokumentuan *Verasibia* izenarekin agertzen zaiguna.

Hurrengo planoan, 1802koa, Lascoaineko lurrak agertzen dira. Dokumentazioan ikusi dugun bezala, Iursail ezberdinek osatzen zuten espazio hau. Planoaren goialdean Oria ibaia ikus daiteke eta ezkerreko aldean San Frantzisko komentua.



10. IRUDIA. Lascoaineko lurrak 1802ko plano batean
Tolosako Udal Artxiboa (TUA A-1-49)


3.4. Uzturre

Toponimo honek soilik mereziz izan du gaia aztertu duten ikerlarien interpretazio bateratua; *Aluizturre* bezala transkribatua, Albiztur herriari erreferentzia egiten diola konsideratu izan da. M. Agudek soilik planteatu ditu identifikazio honen inguruko zalantzak:

Como los nombres identificables están más próximos al punto de situación del Monasterio de San Salvador, uno comienza a sospechar de todo; por ej. que Alvizt-urre no sea Albistur... (AGUD: 1969, 334).

Liburu Gotikoko kopiari erreparatzen badiogu, baina, aspektu paleografikoei dagokienean bi irakurketa ezberdin egitea posible litzakeela konsideratzen dugu. Batetik, transkribapen guztietaan jasotzen den *aluizturre* eta, bestetik, lan honetan proposatuko dugun *aliuzturre*.


Lehenengo kasurako Albizture irakurriko litzatekeenez, zalantza handirik gabe identifikatu izan da Albiztur herriarekin. Hala ere, M. Agudek azpimarratzen zuen modura, herri hau dokumentuak jasotzen dituen gainontzeko toponimoetatik urrunduko litzateke. Egia da egungo udalerriaren lurrek Tolosarekin muga egiten dutela, baina zaila litzateke Olazabalgo dokumentuan errealtitate hori islatzea. Albiztur erreka beste aukera bat izango litzateke.



11. IRUDIA. Albiztur eta Altzo herrien arteko distantzia
Geoeuskadi (mapa moldatua)


Badaude, bestetik, toponimo honekin antzekotasunak aurkezten dituzten beste leku-izenak ere, hala nola, *Abiturri* Belauntzan edo *Albiturri* Orexan (Mujika: 1989) –esan beharra dago, hala ere, azken hau ere monasteriotik urrunegi aurkituko litzatekeela-.

Bigarren irakurketa ontzat hartuko bagenu *aliutzturre* hitzarekin topatuko ginateke. Kasu honetan, eta hipotesi modura, termino hau bi elementuz osatua lego keela planteatuko dugu. Batetik *ali*, *alius*-en laburdura modura, eta bestetik *Uzturre*, azken hau litzatekeelarik toponimoa. Horretarako, batetik hitzak bananduta agertu beharko luke eta, bestetik, laburdura-zeinu bat egon beharko litzateke *ali*-ren gainean. Hala ere, esan beharra dago ugariak direla dokumentu honetan kopistak burututako akatsak, bereziki toponimoei dagokienean. Honen eredu da *Helcanno* toponimoa, dokumentua kopiatu zuen monjeak izen honek bere aurretik daraman “et” juntagailu kopulatiboarekin lotu baitzuen, modu honetan *Ethelcanno* transkribatuz.



12. IRUDIA. “Haya et Helcano” erreferentzia Liburu Gotikoan jasotako kopian Zaragozako Liburutegi Unibertsitarioa (ZLU, Liburu Gotikoa, 75v-76r.)

Dokumentu honetan bertan beste *ali* batekin topo egiten dugu. Kasu honetan laburdura zeinuaz lagunduta, *alius* bezala transkribatua izan da, *alius mazaneto de Ezquiaga*²⁹.




13. IRUDIA. Liburu Gotikoan jasotako kopian agertzen diren hainbat termino Zaragozako Liburutegi Unibertsitarioa (ZLU, Liburu Gotikoa, 75v-76r.)

²⁹ F. Arocenak (1958) *allium* bezela transkribatzen du.

Honekin guztiarekin, *alias Uzturre* irakurketa proposatuko dugu hipotesi modura hitz hau transkribatzeko orduan. Toponimo hau bere testuinguruan sartzeak, hau da, esaldi osoa kontutan hartzeak, teoria hau indartuko luke: *alias Uzturre super Lascuren*. Aurreko atalean, *Lascuren* Lascoainekin identifikatzeko hainbat argudio azaldu ditugu, hau da Tolosako Alde Zaharraren ondoan aurkitzen den ibarrarekin. Uzturre mendia hainbat udalerritan zehar zabaltzen den arren – Tolosa, Ibarra, Berrobi eta Irura-, aipatzekoa da Tolosako erdigunetik oso gertu aurkitzen dela. Gauzak horrela, interpretazio arazoak eman dituen *Uzturre super Lascuren* esamoldeak zentza hartuko luke, mendia Tolosaren gainean kokatzen dela esan baitaiteke, mendiaren zati bat behintzat. Zentzu honetan, oso adierazgarria da P. de Gorosabelen hurrengo aipua Tolosaren deskribapena egiteko orduan:

[Tolosa] tiene su asiento en terreno llano sobre la carretera general al pie de los montes de Hernio y Uzturre, junto a la hermosa vega de Lascoain; y se halla bañada por el río Oria (GOROSABEL: 1862, 508)



14. IRUDIA. Uzturre mendia, Tolosako herrigunearen ipar-ekialdean
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Olazabalgo dokumentuak, hortaz, Uzturreri erreferentzia egiten diola esan genezake, baina ez mendiari bere osotasunean, Lascurenengainean aurkitzen den espazioari soilik baizik. J.A. García de Cortazarrek (1979, 66), *super Lascuren*, “Lascuren barrena” bezala itzultzen du, hau da, monasterioean muga bertatik pasatzen zela ulertzera emanez. *Super Lascuren*, “Lascurenengainean” bezala ulertzen badugu, aldiz, honek ez du zergatik monasterioaren lurren parte izan behar, erreferentzi geografiko modura erabiliko litzateke soilik. Antzeko zerbait gertatuko da, beranduago ikusiko dugun bezala, *sub de Arzagudum* esamoldearekin.

3.5. Ainarte de Areiznabar

3.5.1. Areiznabar

Toponimo honen transkribapenak ez du inongo azarorik sortzen, adostasun ia erabatekoa antzeman baitaiteke. Zalantza handiena hitz hau bi terminok ala bakarrak osatzen duen jakitean datza, batzuk *Areiznabar* idazten duten bitartean, beste batzuk *Areiz nabar* jasotzen baitute. J.A. Llorente (1807) da kasu honetan ere arau orokorra hausten duena, berak *Araiz Nabar* bezala transkribatzen baitu, bigarren terminoa letra larriz hasten duelarik, bi toponimo ezberdin direla adieraziz. *Ainarteren* transkribapena askozaz konplexuagoa da, beherago ikusiko dugun modura.

Toponimoaren identifikazioari dagokionean, S. Aldanondok (2003) soilik planteatzen du proposamen bat, Aralarren aurkitzen den Aiznabarrekin erlazionatuz. Atzizki hau, *nabar*, duten hainbat toki-izen topa daitezke Gipuzkoako geografian, hauen artean antzekotasun gehiena aurkezten duena *Aiznabar* edo *Aznabar* toponimoa izanik. Aztertzen ari garen espaziotik gertu ere, badago modu honetan izendatzen den paraje bat, Leaburun.

Gipuzkoako Artxibo Orokorean ez dugu topatu toponimo hau jasotzen duen agiririk, baina Tolosako Jabetza Erregistroan bai. Bi dira honen harira jaso ditugun toponimoak, *Aiznaar* eta *Aznabar*. *Aiznaar* izeneko Iursaila 1879ko abuztuaren 30ean inskribatu zen erroregistroan. Honela dio deskribapenak:



Finca rústica: Montazgo llamado Aiznaar, radicante en jurisdicción de Leaburu. Contiene treinta áreas de robledal y doscientas cincuenta áreas y setenta y dos centiáreas de terreno helechal y argomal, y confina por Norte con los terrenos de los caseríos nombrados Gurreaga, Arbola-chiqui, Baratza y de Yturregui, por Oriente an los terrenos del lugar de Gaztelu, por Mediodía con los terrenos comunes del mismo lugar de Leaburu y del caserío Saizar y por Poniente con los terrenos de los caseríos nombrados Olatza y de Miquelenea. Su valor es de seiscientas veinte y seis pesetas, ochenta céntimos.³⁰

Deskribapenean Leaburuko hainbat baserriren izenak agertzen dira, gehienak arazorik gabe identifika daitezkeenak mapa batean.



15. IRUDIA. Leaburuko “Aznabar” toponimoa eta inguruko baserriak
Geoeuskadi (mapa moldatua)

³⁰ Tolosako Jabetza Erregistroa (TJE). Tomo 141, finca 49, fol. 82. Dokumentu honen ohar batean, 1884ko otsailean idatzia, adierazten da lursail hau bereizi egin zela beste lursail baten parte izateko: *finca nº 76 al nº 45 del tomo 234 libro 3º de esta sección inscripción primera.*



Ikusten dugunez, handiegia da baserri hauek zehazten duten eremua eta, gainera, sarri ez dute bat egiten testuan aipatzen diren puntu kardinalekin. Izan ere, kontutan hartu behar dugu ez direla baserriak eremua markatzen dutenak, hauen lursailak baizik, eta hauek ez dutela zergatik baserriaren ondoan egon behar. Gauzak horrela, identifikagarria den puntu bakarra ekialdekoa da, Gazteluko lurrekin muga egiten duela esaten baita.

Bigarren lursaila, Aznabar, urte bat beranduago inskribatu zen erregistroan, 1880ko uztailaren 17an. Bi erregistro zenbaki ezberdin izateak bi espazio ezberdinez hitz egiten digun arren, toponimoaren antzekotasunak bien arteko nolabaiteko harreman bat egon zitekeela pentsatzera eramatzen gaitu. Agian bi espazioek bakarra osatzen zuten garai batean eta, ezagutzen ez dugun arrazoien batengatik, beranduago bananduak izan ziren. Aznabar lursailaren inguruko deskribapenak honela dio:

El montazgo nombrado Aznabar confina por el Norte con camino carretil por Oriente con los terrenos del caserío nombrado Torrea y con terrenos comunes, por Mediodía con los terrenos de los caseríos de Babatza y de Minchenea, y por Poniente con los terrenos del caserío nombrado Arbolaberría. Contiene doscientas cuarenta y seis áreas y veinticinco centíreas de terreno argomal y elechal, peñascal y robledal a dos pesetas y cincuenta céntimos de peseta cada área, importan seiscientas quince pesetas sesenta y dos céntimos³¹.

Kasu honetan ere, aipatzen diren baserriak espazioan zehar barreiatuta agertzen dira, ez dituzte Aznabarren mugak markatzen. Baserri hauek mendialdean dituzten lursailak dira oraingoan ere erreferentzia. Badago, baina, lursail honen mugak ulertzen lagundi gaitzakeen datu interesgarri bat dokumentazioan, hedadurarena.

Aiznaar lursailean esaten da: *Contiene treinta áreas de robledal y doscientas cincuenta áreas y setenta y dos centíreas de terreno helechal y argomal.* Guztira, 280,72 area ditu lursailak, hau da, 28. 072 m². Hurrengo mapan hedadura hau duen eremu bat markatu dugu Aiznabar toponimoaren inguruan, ekialdeko muga bezala Gazteluko lurra erabiliz. Orientazio modura soilik balio duen arren ideia bat egiteko baliagarria izan daiteke.

³¹ Tolosako Jabetza Erregistroa (TJE). Tomo 141, finca 65, fol. 170.





16. IRUDIA. Leaburuko “Aznabar” toponimoaren lursaila
Geoeuskadi (mapa moldatua).

Aiznabar lursailari dagokionean hurrengoa jasotzen da: *Contiene doscientas cuarenta y seis áreas y veinticinco centíreas de terreno argomal y elechal, peñascal y robledal.* Kasu honetan 246,25 area ditu lursailak, hau da, 24.625 m², aurreko kasuan baina 3.400 m² gutxiagoa.

Pasarte hauetatik atera dezakegun beste datu interesgarri bat ustiapen motarena da. Lursail hauek ez dira labore-lur bezala erabiltzen, haritzak, garoa eta ote zuria aipatzen baitira lur honek dituen landarediaren artean. Beraz, baso-ustiapen eremuak direla kontsidera genezake.

3.5.2. Areiz-

Areiznabar toponimoaren lehenengo zatiari dagokionean, deigarria da Leabururen inguruko XVI eta XVII mendeetako dokumentazioan Areyz aurrizkiarekin aipatzen diren izen kopurua. Hauen artean Areyznia abizen lokatiboa; Ariznea lursaila; eta Areyzegui Eder edo Areyztieder mendia topatzen ditugu.

Abizen lokatibori dagokionean, Joanes de Areysnia de Bengoetxea³² aurkitzen dugu. Honez gain, dokumentu horretan bertan gizon honen etxea ere zehazten zaigu:

³² AGG-GAO PT99: 1r. 1594 urtea



...E yo, el dicho Joanes de Areysnia de Bengoechea, sobre la mi cassa de Beengoechea de Arguinarena, e su huerta e tierras sembradías e baldías e baldías (sic), castanales, maçanales, montes, prados, pastos y derechos de bezindad e patronazgo a mí e a la dicha cassa anexos y pertenecientes.³³

Tolosako Jabetza Erregistroan hiru izen ezberdinekin ezagutzen den lursail bat jasotzen da: Ariznea, Bengoetxea edo Bengoetxearginaren. Hortaz, denborarekin, Areynia izena Ariznea bilakatu dela ondoriozta genezake.

Areytieder edo Areyzeguieder mendiari dagokionean Leaburuko kontzejuko propio modura agertuko zaigu, kontzejua norbaiten aldeko fidatzaile modura azaltzen denean.

...sobre nuestro molino llamado de Ayzperro, y su presa, anteparas, ruedas, rodeznos e piedras, y su rrenta e maquilla, y sobre los nuestros montes de Areystieder, Acutogui e Guecatedi e Garmendiola los demás montes, yerbas, prados y agoas, castanales, mançanales del dicho nuestro concejo.³⁴

Ugariak dira modu honetako aipamenak aipatutako mendeetan, mendi honen izenak bilakaera txiki batzuk baina jasaten ez dituelarik.

Y sobre los [ezabatua: molinos] montes de Areystieder e Acutogui e Gueçatedi e Garmendiola y los demás montes y castanales, yerbas, prados, pastos y agoas del dicho nuestro concejo.³⁵

Toponimo hauek kokatze aldera, hurrengo pasarteak arrasto bat ematen digu, aipatutako parajeak bata bestearen ondoan aurkitzen direla zehazten baita.

...Para la paga de los cuales ypotecamos por especial y expresa ypoteca la renta e maquilla del molino y su presa, anteparas, ruedas, piedras y las demás sus hazenderas; y sobre los montes, robledales y castanales del dicho concejo llamados Acutogui y Areizteguiheder e Ygoberardi y en la (sic) y Garmendiola e Gueçatedi que todos estan juntos en término redondo.³⁶

³³ AGG-GAO PT99: 2r. 1594 urtea

³⁴ AGG-GAO PT99: 1v. 1594 urtea.

³⁵ AGG-GAO PT 100: 5v. 1595 urtea

³⁶ AGG-GAO PT 96: 61 v. 1591 urtea.



Garaikoa den beste dokumentu batean, aldaketa bat ikusten dugu toponimo honetan, oraingo honetan *Areyzti* bezala aurkitzen baitugu. Baliteke toki-izen honek egungo Aristi pinudiari erantzutea.

...especial y sennaladamente sobre el molino del dicho nuestro concejo llamado Ayzperro y su renta y maquilla y su presa, canales, azequias, ruedas y rodeznos y sobre los montes de Garmendiola, Areyztiherder, Ygoberardi y Acutogui y el monte xaral llamado de Machindurango, y sobre los castañales que están comprehensos en Ygoberardi y Garmendiola e Huynçia y otras partes del dicho nuestro concejo y sobre los prados , yerbas y agoas del.³⁷

3.5.3. Arayz ibaia

Bestetik aipagarria da dokumentazioan Araxes ibaia aipatzeko orduan, ez zela izen hori erabiltzen, honen ordez ibaiaren jatorria adierazten zela. Kasu batzuetan Nafarroako Araitz udalerria aipatzen da, Gipuzkoako mugatik eta ibairen sorlekutik gertu aurkitzen dena:

...sobre los propios, rentas y aber del dicho nuestro concejo, especial y expresamente sobre el molino que tenemos en el río que baxa de Arayz y su presa, anteparas, ruedas, rodeznos piedras y las demás sus hazenderas, y sobre la renta e maquilla del dicho molino. Y sobre los montes y castañales...³⁸

Beste kasu batzuetan “Lizartzatik jaisten den” ibaia bezala ere topatu dugu:

Y sobre los términos castañales, montes brabos y xarales y tierras baldías de Hunsala y Aldarrizta y Olladun y Gasteanayzperro, que confinan por una parte con el río de Oria y por otra con el río que baxa de Liçarça; y por el un lado con los términos del concejo de la dicha villa de Tolossa y vecinos particulares d'ella; y por el otro con tierras de los vecinos particulares d'esta dicha villa de Alço; y sobre los castañales de Olaeta y Çureta y Amategui y Beobia y Albiçuri-Sasiola, que confinan por abajo con el dicho río que baxa de Liçarça; y por el un lado con tierras de la cassa de Huynçia y tierras concegiles de la tierra Liçarça. Y sobre la tierra castañal y robledal de Ygoberardierloa que confina con los montes de la tierra de Leaburu por la parte de arriba y los lados, y por abajo con el dicho río que baxa de la dicha tierra de Liçarça³⁹.

³⁷ AGG-GAO PT110:65v. 1606 urtea.

³⁸ AGG-GAO PT102: 51v. 1597 urtea.

³⁹ AGG-GAO PT120: 66r. 1616 urtea



1619ko dokumentu batean berriro ere topo egingo dugu esamolde honekin:

(...) para pagar alguna parte d'ellos abían acordado de bender al concejo y vezinos de la tierra de Leaburu, que es vezina cercana, una pieça de tierra castañal que ellos y el dicho concejo thenían entre sus montes y tierras castañales, que hera y es postura de cincuenta y un pies de castaños, pegante al río que baxa de la tierra de Liçarça en el puesto llamado Yruberardi, por preçio de ciento y seis ducados que el dicho concejo y vecinos de la dicha tierra de Leaburu les querían dar y pagar por ella⁴⁰.

Beraz, esan genezake XVII mende hasieran ez dela oraindik Araxes izena erabiltzen ibai honi erreferentzia egiteko. Honen harira Jesús Elósegui (1968,4), Araxes terminoaren inguruan, ondorengoa adierazten du:

Jamás hemos podido recoger tal versión fonética en los muchos sondeos que hemos efectuado desde Lezaeta-Betelu hasta Txarama a lo largo de la preciosa regata que nos ocupa. Sondeos efectuados, bien entendido, con personas no letradas (que no saben leer) pero que tienen el oído muy avezado, lo que hace que su testimonio tenga un valor excepcional.

Podemos asegurar que en testimonio oral, exento de mediatizaciones, no existe *Araxes*.

Por otro lados hemos llegado a advertir que en topónimia, en la vasca que investigamos al menos, cuando un topónimo es aplicado a un accidente geográfico de inusitada longitud, como un río, tiene un imperio muy limitado. En el caso de nuestro fantasmagórico Araxes oiremos denominaciones como: Azpirotz-erreka, Betelu-ko erreka, Araitz-erreka, Narbaizu-erreka... Pero *Araxes*, jamás.

Egile honek berak aipatzen duenez Araxes izenaren lehen erreferentzia 1571ean topatzen dugu, Esteban de Garibai y Zamalloa-ren *Los XL libros del Compedio Historial de las Crónicas y Universal Historia de todos los reinos de España* lanean. Ikusi dugunez, garai bereko dokumentazioan ez dugu oraindik izen honen aipamenik topatzen. Jesus Eloseguik, artikulu berean, ondorengo baieztapena gehitzen du:

Para nosotros, pues, “Araxes” es una desgraciada alteración de río de Araiz, que en un tiempo se escribía Arayça.

Honekin guztiarekin, Areyz atzizkia Leaburuko lurraldean ohikoa dela agerian geratu da, jakin ez dakigun arren Arayz ibaia bertatik igarotzeak toponimo hauen sorreran eragina izan duen ala ez.

⁴⁰ AGG-GAO PT122: 530r. 1619 urtea.



Panorama honen aurrean zilegi litzateke pentsatzea egungo *Aznabar* edo *Aiznaar* garai batean *Areiznabar* izan zirela eta, ondorioz, monasterioaren beheko mugaren zedarritza puntu honetatik hasiko zela.

3.5.4. Arnabar

Badago Altzon Arnabar izeneko paraje bat, Gipuzkoako Artxibo Orokorean aurkitu ez dugun arren Tolosako Jabetza erregistroan kontserbatzen dena, 1884ko otsailaren 13an inskribatu zutelarik bertan. Honela dio lursailaren deskribapenak:

Finca rústica. Terrenos denominados Olaeta, Otsavio, Muñobil, otro Muñobil Arnabar, Elordiluz o Goinsoro, Munubelzaga, y Pagoerloa, Artesayaz, radicantes en jurisdicción de Alzo y su descripción es como sigue.

....

El terreno hayal llamado Arnabar, confinante por Oriente con pertenecidos de don Antonio María Mar y Juan Bautista Echezarreta, por Mediodía con el de Manuel de Franconi, por Poniente con el de don José Antonio Goicoechea, y por Norte // (133r) con el de don José Manuel Beracoechea, contiene doscientas treinta y un áreas y ochenta y seis centíreas, que salen mil cuatrocientas cuarenta y nueve pesetas y quince céntimos⁴¹.

Dokumentu honen ohar batean, 1908an idatzia, adierazten da lursail hau osatzen duten parajeak bereizi zirela eta Arnabarrek soilik jarraituko duela lursail honen parte izaten. Zaila da aipatzen diren erreferentziekin paraje hau Altzoko mapa batean kokatzea, muga bezala ez baitira etxeak erabiltzen, hauen lurrik baizik, eta hauetan zein puntutan aurkitzen ziren zehaztea konplexuagoa da. Hala ere, aipatzen diren beste lur-eremuak mendialdean kokatzen dira eta Arnabarrek ere izaera hori izango zuela pentsa genezake. Teoria hau indartuz, Arnabarren aurkitzen dugun landaredia garoak direla esaten zaigu, ez labore-lurrik. Lursail hau osatzen duten eta identifikagarriak diren parajeek ere ez dute jarraipen logiko bat erakusten espazioan, hala nola Olaeta eta Muñobil, bata bestetik oso urrun aurkitzen dira.

Lan honetan Leaburuko Aznabar hartuko dugu identifikazio posible bezala, baina beste aukera hau etorkizuneko ikerlarien eskura jarri nahi izan dugu, norbaitek bigarren proposamen hau egokiagoa konsideratu dezakeelakoan.

⁴¹Tolosako Jabetza Erregistroa (TJE). Tomo 241, finca 82, fol. 132.



3.5.5. Ainarte edo Amatre

Toponimo honen aldaera ezberdinak jaso dira argitaratu diren transkribapenetan. Esan beharra dago, Liburu Gotikoa oinarri bezala hartu dutenek modu berean irakurri dutela terminoa, *Ainarte* transkribatzen baitute denek. AHN-ko kopia erabili dutenen artean, bi kasutan *Amatre* transkribatu duten bitartean (A. Ubieto eta M. Agud) hirugarren batean (S. Múgica eta F. Arocenaren lanean) *Ainatre* bezala agertzen zaigu. J.A. Llorentek, kasu honetan ere, proposamen ezberdin bat eskaintzen du, *Amarte* irakurri dezakegularik bere argitalpenean.

Identifikazioei dagokienean, S. Aldanondo (2003) da oraingoan ere proposamen bat egiten duen bakarra, Aralarreko Ariñate-Añate (Amezketa) toponimoarekin alderatuz.

Guri dagokigunean ez dugu toponimo honen identifikazio posiblerik aurkitu ez egungo toponimian ezta kontsultatutako agirietan ere. Esan dezakegun bakarra, toponimo hau Areiznabarrekin batera doala da, *Ainarte de Areiznabar*, eta, hortaz, azken hau aurkitzen den eremutik gertu egongo litzakeela. *Ainarte* ez da ohikoa den toponimoa, baina bai *Aizarte*, etorkizuneko ikerketa lanetan aukera hau kontutan hartu beharko litzatekeela iruditzen zaigularik.

3.6. Arzagudum

Transkribapenei dagokienean, *Arzagudum/Arzagudun* gehien errepikatzen den aldaera baldin bada ere, beste aukera batzuk ere planteatzen dira, lehenengo honetatik nabarmen ezberdintzen direnak. Horrela, A. Ubietok kopia baterako zein besterako *Arzagoricorin* proposatzen du eta J.A. Llorentek oso antzekoa den *Arzagicori*.

Hala ere, oraingo honetan ez dugu zalantza handirik aldaera egokiena zein den baloratzeko orduan, jarraian ikusiko dugun modura *Arzagudum* etxe-izen zein abizen lokatiboa agertzen baitzaigu XV mendeko agiri batean, beranduago Arzadun bezala ezagutuko dena. Zentzu honetan aipagarria da toponimo honen inguruan proposatu diren identifikazio guztiak Altzoko Arzadun etxea izan dutela jomuga.

Arzadun etxearen aipamenik zaharrena 1417ko agiri batean topatu dugu, Juan Fernández de Olazabal jaunak eta Altzoko herritarrek errota bat eraikitzearen inguruan sinatu duten kontratuan. Bertan, *Arzasudum* bezala agertzen zaigu, aipatutako identifikazioari fidagarritasun gehiago emanez. Kontratuan parte hartzen duten pertsonen zerrenda egiteko orduan, Altzoko etxerik



garrantzitsuenak aipatzen dira, hauetako bakoitza ze parrokiari eta, ondorioz, ze kolaziori dagokion zehatztuz:

En el nombre de Dios y de Sancta María, su madre, amén. Sepan quantos esta carta de contrato público vieron e oyeron como yo García de Ypença, senor de la cassa de Ypença; e yo Lope García de Çuaznabar, senor de la cassa de Çuaznabar; e yo Joan Lopez de Orendain, senor de la cassa de Çuaznabar; e yo Lope de Seyçaguirre, senor de la cassa de Seyçaguirre; y Joan Lopez de Jauregui, senor de la casa de Jaureguigaraica; e yo Miguel Martínez de [Orazperro], senor de la cassa de Jaureguiartecoa; e yo Joan Lopez de Alço, senor de la cassa [Illa]mada Jaureguibeheracoa, bezinos que somos de la villa de Tolossa de Guipuzcoa, moradores en la colación de la parrochial yglessia de San Salvador de Olaçaval. E yo Joan Iniguez de Ayzpe, hijo legítimo esento heredero de Ynigo Lopez de Ayzpe, senor de la cassa de Ayzpe; e yo Joan Lopez de [Alço], senor de la cassa llamada Echeverria; e yo Martín Lopez de Abalivide, senor de la casa llamada Yriarte; e yo Ochoa de Arrechea, senor de la cassa llamada Arrechea, e yo Ynigo de Arzasudum, senor de la casa llamada Arzasudum; e yo Ynigo de Ayzpe, senor de la cassa llamada Arzasudum, ///(3v) ottrosi vecinos que somos de la dicha villa y moradores que somos de la colación de la parrochial yglessia de Sancta María de Alço.

Nos, todos los sobredichos de las sobredichas colaciones, de la vna parte, e yo Joan Fernandez de Olaçaul, senor de la cassa solar de Olaçaul, ottrosi vezino de la dicha villa de Tolossa y morador en la colación de la sobredicha parrochial yglessia de San Salvador de Olaçaul, de la otra⁴².

Dokumentuaren pasarte honetan agerian geratzen denez, hainbat etxe Santa Maria parrokiarekin identifikatzen diren bitartean, eta ondorioz Altzo muinon kokatzen den kolazioarekin, beste batzuk, San Salbatore parrokiaren menpe agertzen dira, hau da, Altzo azpiko kolazioaren barruan.

XVI mendeko dokumentu batean, banaketa hau egiten jarraitzen dela ikus dezakegu.


...el concejo, alcalde, vecinos, homes hijosdalgo de la dicha universidad de Alço, de las dos anteyglesias de Alço-muñoa y Olazaual...⁴³

⁴² Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la iglesia. 44.10: 3r-3v. (eranskineko 5. dokumentua).

⁴³ AGG-GAO PT39: 261r. 1563ko dokumentua.



Lehenengo agiriko pasartean aipatzen diren etxeak mapa batean kokatzen baditugu, are nabariagoa suertatzen da bi espazio hauen arteko banaketa.



17. IRUDIA . 1417an aipatzen diren Altzoko etxeak dagozkien kolazioen arabera sailkatua
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)


Gauzak horrela, kuriosoa da Olazabalgo dokumentuan agertzen zaigun *Arzasudum* Santa Maria kolazioko parte izatea eta ez Olazabalgo San Salbatorekoa. Olazabalgo dokumentuan bertan aurki dezakegu honen azalpena. Honela dio testuak:

....vel de Ainarte de Areiznabar sub de Arzagudum usque Verasibia.

Testuak dioenera mugatzen bagara, eta hipotesi modura, pentsa genezake *Arzagudum* ez dela monasterioaren mugen barruan sartzen, erreferentzi geografiko bezala baino ez dela erabiltzen monasterioaren zedarritzea burutzeko orduan. Arzadun muino batean kokatzen dela kontutan hartzen badugu, eta honen oinean San Salbatore parroquia dagoela, “*Arzagudum-en* azpitik” esamoldeak zentzua hartuko luke.

Gipuzkoako Artxibo Orokorean *Arçagudun* abizen lokatiboa jasotzen duen dokumentu bat kontserbatzen da. Agiria 1577koa den arren, honen barruan 1513ko eskritura bat jasotzen da non Chartico de Arçagudum, Domingo de Arçagudun, Domingo de Arzagudun gaztea, eta Miguel de Arçagudun agertzen zaizkigun:





18. IRUDIA: "Arçagudum" abizena XVI mendeko dokumentu batean
AGG-GAO PT51: 603v-604r. 1577 urtea.

Aipatzekoa da, dokumentu honen sarreran, 1577an idatzia, testiguen artean *Arçadun* abizena topatzen dugula eta 1513ko pasartean aurkitzen dugula *Arçagudun* aldaera. Hortaz, *Arzagudunek*, gaur egun ezagutzen dugun *Arzadun* aldaera XVI mendean zehar hartuko zuela ondoriozta genezake, kontsultatutako beste dokumentuetan *Arçadun* bezala aurkitzen baitugu.

Bestetik, deigarria da dokumentu honen beste pasarte batean *Arzagudunen* atzizki bera daraman beste leku-izen batekin topo egiten dugula: *Ollagudun*.

... vecinos y moradores de la dicha tierra e universidad de Alço, dezimos que por quanto en la tala que se aze en los términos de Galarreta et de Arruti et de Huarma et de Aldarrista et de Ollagudun e de Gasteamayzperro et de Olaeta et de Çureta et de Oyaralde et de Ygoberardi, que son términos y exidos comunes de los dichos dos concejos, se haze mucho dano. E porque mejor sean goardados los dichos términos e montes y exidos comunes de los dichos dos concejos e ninguno nin algunos no sean osados de talar nin cortar en los dichos términos syn liçença e autoridad e mandamiento de los dichos dos concejos que debemos hordenar e asentar. Ordenamos y asentamos que de aquí adelante durante el término de cien años cumplidos primeros benideros contando a correr e corran de oy día que esta carta es fecha e otorgada, se cunplan e goarden e sean serbados e guardados los capítulos siguientes, e so las pennas de iuso contenidas. Primeramente en los dichos terminos de Galarreta e de Arruti e de Huarma, comenzando el dicho término de Huarma por la hermita de senor San Miguel por el arroyo a suso hasta el sel de Jazcue, e dende a lo alto de Larraluçe, e dende por el mojón e límites de los términos de Leyçarça hasta llegar Munobirivilla, e dende al camino de Basayaz que ban dende la dicha tierra de Alço para la dicha tierra de de Liçarça, e dende a la casa de Legarra. Yten en los dichos términos de Aldarrista et Ollagudun et Gastea de Mayzperro et Olaeta et Çureta et Oyaralde, confrontando et lindeando dende el río de Oria et dende por los confines de los términos de la villa de Tolosa a lo alto de Ollagudun e por la otra parte a los términos de la casa de Olaçabal. Y en el dicho término de Ygoberardi//(604v) qu'es pasado el río de Amaroz, que se confronta por una

parte a lo término de Ybarra, et por la otra parte et de suso a los términos de Leaburu, et por parte de juso al dicho río de Amaro. Ponemos et asentamos que en los sobre dichos términos ni en ninguno de ellos, ninguno nin algunos no sean osados de cortar ni corten de aquí adelante durante el dicho término de los dichos cien años sin liçençia e mandamiento de los dichos dos concejos, ningún roble, ni frezno, nin aya, ni enzina, ni olmo, ni tega, llamado en lengua bascongada *ezquia*, en los sobre dicho términos ni en ninguno d'ellos⁴⁴.

Dokumentu honetan Alegia eta Altzok partekatzen dituzten hainbat lur zerrendatzen dira, hauetan zuhaitz mozketa arautzeko helburuarekin. Ollagudun arazorik gabe identifika dezakegu Altzoko Ollagon mendiarekin, honen gailurra Ollaun izenarekin ezagutzen delarik. Itsas mailatik 367 m-ra aurkitzen da Ollaun, San Salbatorekiko 260 m-ko tartarekin. Irudian ikus daitekeenez, San Salbatore, mendi honen magalean aurkitzen da.



19. IRUDIA. San Salbatore eliza Ollagon mendiaren magalean
Google maps (mapa moldatua)

XVII mende hasierako dokumentu batean *Olladum* terminoa aurkitzen dugu, Olazabalgo Katalinari emandako errenta batean, Altzoko kontzejua fidatzaile bezala agertzen dela:

⁴⁴ AGG-GAO PT51: 604r-604v. 1577 urtea.


... y sobre las tierras castañales y Olladum y Olaeta, Çureta, Beobia, Albissuri y Sasiola y sobre los montes de Osabio y Artea, con todo lo que cae hasta llegar a la hermita de San Miguel de Huzarriaga, que todos son del dicho nuestro concejo.⁴⁵

3.7. Verasibia

Verasibia toponimoaren transkribapenak ez du inolako arazorik suposatzen, grafia ezberdintasunak soilik geratzen baitira agerian argitalpen batetik bestera. Identifikazioari dagokionean Berazubi terminoarekin erlazionatu izan da toponimo hau eta, ondorioz, Tolosa eta Alegiaren arteko mugan aurkitzen diren Berazubi baserriekin. Hala ere, badago kontutan hartu ez den bigarren aukera bat, Tolosako Berazubi auzoarena. Jarraian bi posibilitateak aztertuko ditugu.

3.7.1. Berazubi baserriak

Hiru dira guztira izen hori duten etxeak: Berazubi-Txiki, Berazubi Haundi eta Berazubi-Erdi. Bata bestearen ondoan aurkitzen diren arren, bi udalerrik muga egiten duten eremuan aurkitzen dira eta, hortaz, Berazubi-Txiki Alegian aurkitzen den bitartean, beste biak Tolosan kokatzen dira.




20. IRUDIA. Alegia eta Tolosako Berazubi baserriak
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

⁴⁵ AGG-GAO PT122: 34v. 1618 urtea.

Dokumentazioan etxe hauen inguruko erreferentziak topatzen ditugu XVI. mendeko bi dokumentutan. Hauetan Aldaba mendiko Madariaga terminoaren mugariak zehazten dira, eta helburu honekin aipatzen diren erreferentzien artean “Berasivia la Menor” edo “Berasivia Chipi”⁴⁶, eta “Berasibia la Mayor”⁴⁷ aipatzen dira. Garaikoa den hirugarren dokumentu batean ere agertzen da lehenengo etxe honen inguruko aipamena, “Verasibia Chipi” izenpean⁴⁸. Hortaz, agiri hauek Berazubi eta Berasivia terminoen arteko identifikazioa egiaztatzea ahalbidetzen dutela esan genezake.

Ondorengo mapan, Berazubi baserriak Altzoazpirekiko non kokatzen diren ikus dezakegu:



21. IRUDIA. Berazubi baserrien eta Altzoazpiren arteko distantzia Geoeuskadi (mapa moldatua)

3.7.2. Tolosako Berazubi auzoa

Bigarren aukera hau kontutan hartu ahal izateko, Tolosako Berazubi auzoarena, honen antzinatasuna frogatu beharko genuke, aurreko kasuan Berazubi etxeen aipamena XVI mendekoa dela ikusi baitugu. Ikerketa-lerro honi eusteko baliagarriak izan daitezkeen hainbat agirirekin egin dugu topo Gipuzkoako Artxibo Orokorean, Berasivia izenez aipatzen diren lursailak jasotzen dituztenak.

1640koa da lursail hauen inguruan artxiboan aurkitu dugun lehengo aipamen. Obligazio-gutun baten aurrean gaude non Berasibiako lursail bat maiztertzan

⁴⁶ AGG-GAO PT101: 793r. 1596ko dokumentua.


⁴⁷ AGG-GAO PT103: 770 r. 1598ko dokumentua

⁴⁸ Ordiziako Udal Artxiboa. *Judicial histórico. Asuntos judiciales civiles*. Legajo 2, 9 zbk., 2 r. 1598 urtea.

hartzen den bederatzi urtez, bertako sagarrondoak atera eta garia landatzearen truke. Honela dio:

... Que aya de sacar las heredades de Berasibia, que son de los suso dichos y están junto a Yurreamendi, ochocientos y cinquenta pies de mançanos⁴⁹

Yurreamendi zaitasunik gabe identifikatu dezakegu Iurramendi muinoarekin, Berazubi auzoaren ondoan. Hurrengo dokumentuan aipatzen den Iparragirre baserriak ere ez du azorrik eskaintzen mapan kokatzeko orduan. Hortaz, ondoriozta genezake, egungo Berazubi auzoak XVII mendean aipatzen diren Berasibia lursailarekin bat egiten duela.



22. IRUDIA. Iurramendi muinoa Berazubi auzoaren ondoan
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

Iparragirre baserriaren aipamena, Berasibia lurren mugarri bezala agertuz, Euskadiko Artxibo Historikoan kontserbatzen den XIX mende hasierako dokumentu batean aurkitzen dugu.

... Don José Manuel de Osinalde, escrivano numerario de la misma, en fecha de veinte y dos de febrero del año próximo pasado [1820] adquirió por compra la compareciente una tierra sembradía existente en los campos de Berasibia es esta expresada villa, de cavida y extensión de ochenta y cinco posturas de a quattrocientos quarenta y un pies quadrados superficiales cada una, confinante por el oriente con otra de Don Ramón Antonio de Goyvideta, por le mediodía con la de la casería de Yparragirre, y por el poniente y septentrión con las de Don Nicasio José de Belasco.⁵⁰

⁴⁹ AGG-GAO PT226: 243r. 1640 urtea.

⁵⁰ Euskadiko Artxibo Historikoa - Archivo de la Casa de Irulegui - Larreta. Larreta - Zavala. Zavalarraga. Expedientes judiciales y papeles de los Jáuregui. Legajo 129, nº legajo 3028. 1 r. Urteak: 1820/11/12, 1821/08/27.

Aipamena berantiarra izan arren, datu garrantzitsua da, espazio honen erabilera zelai edo baratze modura duela gutxi arte praktikatu dela agerian uzten baitu. M. Urteagak, honen harira, ondorengoa jasotzen du.

El campo urbano de esta población ocupa una extensa llanura formada en la confluencia de los ríos Araxes, Berastegi y Oria. A excepción del núcleo medieval, el conjunto edificado se ha configurado en apenas siglo y medio, colonizándose el área dedicada secularmente a cultivos de huerta. (URTEGA: 1992, 271).

F. Zabala eta J. Garmendiak, “Monografía histórica de Tolosa” lanean, hedapen urbano honen nondik-norakoak zehazten dituzte:

Por Real orden de 26 de diciembre de 1883 se aprueba la reforma general del plano de la población, y en el año 1923 se acomete el ensanche de la vega de Lascurain o Laskoain, con la construcción del Puente Nuevo, la Avenida de los Fueros y demás calles que hoy materialmente cubren esta vega. Los últimos ensanches de nuestros días se extienden entre el Paseo de San Francisco y la vía del ferrocarril, y por San Esteban. En la vega de Lascurain, junto a la Plaza de Toros, se construye un nuevo puente, el de Alfonso X el Sabio, que, al otro lado del río, origina un nuevo barrio en Berazubi, centrado sobre la Avenida de Pío XII. Nuevos barrios se construyen en Bidebieta y hacia San Blas. El número de calles se eleva a 39 y el de las plazas a 8⁵¹ (ZABALA; GARMENDIA: 2007, 13).

3.7.3. Tolosako Berasibia etxea

Ataungo Artxiboan kontserbatzen den 1409 agiri batean prokuradoreen izendapen bat jasotzen da. Izendapen hau Berasibia etxearen burutzen dela zehazten da.

Fecha e otorgada fue esta carta de poder, delante de la casa de Berasybia, que es en término e jurisdiccion de la villa de Tolosa, de Guipúzcoa, a veinte e siete días de octubre, anno del nascimiento del nuestro Salvador Ihesu Christo de mill e quatrocientos e nueve annos... (AYERBE; SAN MIGUEL: 2013, 16 dok.)

Garaikoa den beste dokumentu batean, Aralarko sarobeen inguruko auzi baten harira, ondorengoa jasotzen da.



Fecho e otorgado fue este público instrumento en el lugar que dizen Verasauia, que es en término y jurisdicción de la villa de Tolosa, de Guipúzcoa[a], a catorze días de nouiembre, anno del nascimiento del nuestro Salvador Ihesu Christo de mill e quattrocientos e nueve annos (AYERBE; SAN MIGUEL: 2013, 18 dok.)

Aipagarria da dokumentu berean Juan Ochoa de Olazabal aurkitzen dugula testiguen artean.

Testigos que presentes estauan al pronunciar e rrezar de la dicha sentencia: Juan Martines de Yuarra e Juan Ochoa de Olaçual, vecinos e moradores en la dicha villa de Tolosa, e otros (*Ibid.*)

Pentsa daiteke Alegia eta Tolosako mugan dauden Berazubi baserriei erreferentzia egiten diela, baina badaude arrazoik etxe hau Tolosan kokatzen dela esan ahal izateko. Zentzu honetan Gipuzkoako Artxibo Orokorean aurkitu dugun lehenengo aipamena 1635 urtekoa da. Kurioski, agiriak Altzoko Olazabal errrotan egindako berrikuntza lanen inguruko nondik-norakoak aztertzea du helburu, horretarako, hainbat aditu Tolosako oinetxearen ondoan biltzen direlarik:

... En el camino y calçada real de frente de la cassa solar de Berasibia, sita en la jurisdicción de la villa de Tolossa, a siete días del mes de octubre de mil y seiscientos y treinta y cinco años⁵²

Erret-Galtzadaren aipamenak Tolosako erdigunera garamatza, bertatik pasatzen baitzen Nafarroarantz zuzentzen zen bidea, Kale Nagusiak markatzen duen ardatza jarraituz (URTEAGA: 1992, 272). Hala ere, ezinezko zaigu etxe hau galtzadaren zein puntutan aurkitzen zen zehaztea.

Aipatzekoa da Berasibia etxeaz gain *Berasibia de Yuso* ere jasotzen dela agirietan. Pedro Berasibiaren ezkontz-kontratu honen kasua da, 1528an sinatura:

Dentro de la casa de Berasivia de yuso, terretorio e jurisdicción de la noble villa de Tolosa a treze días del mes de enero anno del nacimiento de nuestro salvador Ihesu Cristo de mill e quinientos e veinte e ocho annos en presencia de mí, Joan de Corrobiaga...⁵³

⁵² AGG-GAO PT179: 406r. 1635 urtea

⁵³ AGG-GAO PT1: 141r. 1528 urtea.



Isastik (1625, 104) *Verasivia-Garaicoa* eta *Verasibia-Azpicoa* etxeak jasotzen ditu, azken honek aipatutako *Berasivia de Yuso*-ri erreferentzia egiten diola esan genezakeelarik. XVIII mendean oraindik kontserbatzen da izen hau daraman etxea:

Hipoteco la casería llamada Berasibia de Iuso con todos sus pertenecidos sitos en la dicha villa de Tolosa⁵⁴

Bi aukerak aztertu ondoren, Tolosako Berazubi auzoarena iruditzen zaizu egokiena, Laskurainetik hain gertu egonik –ibairen alde bakoitzean- kokapen espazialari dagokionean logika handiagoa izango lukeela iruditzen baitzaigu.



23. IRUDIA. “Lascuren” topónimoaren proposamena eta Berazubi auzoa (Tolosa)
Google maps (mapa moldatua)

⁵⁴ AHPG-GPAH 5. lib., 164 zenb. ,102 or., 1775 urtea

3.8. Haralarre

Agerikoa da Haralarre toponimoaren irakurketa erraza suertatzen dela dokumentuaren bi kopietan, transkribapenei dagokienean erabateko adostasuna igartzen baita. J.A. Llorente da hemen ere salbuespena, ez baitu termino hau bere dokumentuan transkribatzen, honen arrazoia zein izan zitekeen ez dakigularik. Azalpen posible bezala, egile honek oinarri bezala beste kopia bat erabili izanaren teoriak zentzua hartuko luke. Jarraian bi transkribapen ezberdinen pasarteak jasotzen ditugu: lehenengoa J.A. Llorenterena, bigarrena M. Agudek proposatutakoa:

...in finem mazaneto de senior García Azenariz: alia parte Heri-Zabal; alia Heri-Zaray, cum Arandari Sansoiz; mazaneto de Ugarte Zuhaznabar...

...in finem mazaneto de Senior Garcia Acenariz, haralarre hezizazaual alia hezizaray, cum arrandari sansoiz mazaneto, de Ugarte Zuhaznabar...

Pasarte hauetan ikus daitekeenez, J.A. Llorentek *Haralarre* ez sartzeaz gain, honen lekuan *alia parte* esamoldea gehitzen du, ez Liburu Gotikoan ezta AHN-ko kopian ere agertzen ez dena. Bestetik nabaria da puntuazio zeinuek hartzen duten garrantzia, erabat aldatzen baita esaldiaren zentzua eta, ondorioz, toponimoen kokapen posiblea.

Haralarre toponimoak Aralar mendiarekin identifikazio nahiko argia eskaintzen duen arren, interpretazioari dagokienean hainbat gauza hartu beharko lirateke kontutan. Iruditzen zaigu, terminoa zabalegia dela ondasun izaera izateko, eta zentzu gehiago hartuko lukeela ondoren datozen toponimoak Aralarren kokatzen direla adierazteko argibide bezala erabili izanak.



3.9. Hezizazaual alia Hezizaray

S. Mugica eta F. Arocenak, *Heziray* toponimoak Ezeiza-Goena baserriarekin erlazioa izan zezakeela konsideratu eta, ondorioz, Tolosan kokatu zuten, hauen ondoren egin diren proposamenek bide bera jarraitu dutelarik. Salbuespen modura, A. Morazak proposatutako identifikazioa da azpimarragarria, egile honek Aralarreko Etitzegi parajearekin erlazionatzen baitu, honetarako argudioak zehazten ez dituen arren.

Alde batera utzita testuan aipatutako elementu batzuk non dauden jakitearekin zerikusia duten alderdiak, guri, hain zuzen ere, mendilerroaz egiten diren aipamen zehatzak interesatzen zaizkigu. “*Haralarre Heziza zaval, alia hezi caray*”. Dokumentuan aipatutako toponimoak guztiz identifikagarriak dira gaur egun ere Etitze eta Etitzegiko saroietan (Mankomunitatearen ipar-muturrean eta Amezketako mugetatik gertu), haietan zenbait eraikuntza-hondakin bereizten baitira, gehienbat artzaintzarekin zerikusia dutenak, nahiz eta dokumentuan aipamen espezifikorik ez izan jarduera horretaz (MORAZA: 2010, 26).

Gu ere bat gatoz azken proposamen honekin eta, esan beharra dago, kasu honetan dokumentazioak teoria hau babesteko proba ukaezinak eskaintzen dituela. XV mendeko agiri bat da kokapen zehatza finkatzen lagunduko digun giltza (AYERBE; SAN MIGUEL: 2013, 18 dok.), Ataungo artxiboa kontserbatzen den elkartasun-
itun bat da, 1409ko azaroan idatzia, Enirio-Aralarreko saroien aprobetxamenduaren inguruko auziari amaiera emateko. Itun honen sinatzaileen artean, batetik, Amezketako Oger, Lazkaoko eta Amezketako jauna, agertzen zaigu eta, bestetik, Amezketa eta Abaltzisketako kolazioak. 1410eko irailean, testiguen deklarazioak eta ondorengoko epaia gehitzen dira.

Agiri honetan saroi zerrenda luze bat jasotzen da, testiguek saroi horietako bakoitzaren jabetza nori dagokion zehazten dutelarik. Lau dira saroi hauek beren ondasunen artean sartzen dituzten jabeak: Lazkao leinua, Amezketa leinua, Abaltzisketako kolazioa eta Amezketako kolazioa. Aipatu beharra dago, Oger, Lazkao eta Amezketako jauna dela.

Jarraian, Amezketako leinu zein kolazioaren ondasunen zerrenda jasoko dugu, hauen artean agertzen baitira gure interesekoak diren bi toponimoak, *Ezizazahal* eta *Ezizaray*; Amezketako leinuan lehenengoa, Amezketako kolazioko ondasunen artean bigarrena. Bestetik, artxibo berean kontserbatzen den 1492ko kopian agertzen den aldaera ere gehitu dugu taulan.



4.TAULA. AMEZKETAKO LEINUAK XV. MENDEAN ARALARREN ZITUEN ONDASUNAK

AMEZKETA LEINUA		
1410 ⁵⁵	1492 ⁵⁶	Egungo identifikazioa
Narue	Narbes	
Fagabe	Sagabe	Pagabe
Veyçeguisaroea	Beyçegui saroea	
Otocor	Ez da transkribatzen	
Olaçaualsaroea	=	
Gorostiaga Mendocarte	Gorostiaga mendiçarte	Gorostiaga
Ayençagui	Hayençagui	
Guereciola	Guericiolaça	
Salin	=	Salingain
Arreyçaga	Areyçaga	Arritzaga
Burunçiçu	Burançiçi	Buruntizun
Heçiça çahalegui	Çaça çahalegui	Zabalegi

5.TAULA. AMEZKETAKO LEINUAK XV. MENDEAN ARALARREN ZITUEN ONDASUNAK

AMEZKETAKO KOLAZIOA		
1410	1492	Egungo identifikazioa
Muguerza	Muguiça	
Otalaçu	Otaola	Otaola
Arrayoreyna	Oreynarri	
Eçiçaondarra	Eçiça hondarra	Ondarre
Eçiçaydoya	Eçiça ydoya	
Elordia	=	Elordi
Aguinagueta	Aguinaga	
Areçe	Atea	
Ollarcabeeracoa	Hollarca beheracoa	
Ollarcagorycoa	Hollarca garaycoa	
Eçiçaray	Eçiçaray	
Burunçiçu	Burançiçin	Buruntuzin
Aguigurenaga	Haguin gurenaga	
Hormacaar	Hormaza	Ormatza
Maruçariolaça	Maurua çarioçola	
Çiçaloça	Alçolaça	
Leçaosbeeracoa	Leiçaos beheracoa	
Leyçaosgariaycoa	Leiçaos garaicoa	
Latosa	Latossa	Latosa
Pardalus	Pardelus	Pardeluts
Vrcoitia	Huriscoti garaicoa	Uzkuiti ¿?

⁵⁵ AYERBE; SAN MIGUEL:2013, 18. dok (sig.: 178-19)⁵⁶ *Ibid.* (sig.: 178-21)

1410eko kopiari erreparatzen badiogu, *Hezizaray* toponimoa Olazabalgo dokumentuan agertzen den bezala mantentzen dela ikusten den bitartean –grafia aldaketa txiki batekin soilik, hasierako “h” hizkia galdu baitu-, *Hezizazaval* izena *Ezizazabalegi* izatera pasa dela agerian geratzen da. Azken hau arazo handirik gabe identifika genezake egungo Zabalegi mendiarekin, Amezketan. Hortaz, *Ezizazabalegik Eziza-/Heziza-* aurritzia galdu duela agerikoa da. Honen harira, aipagarria da lau direla izenaren lehenengo zatian “Heçica” daramaten toponimoak: *Heçica cahalegui*, *Eçiçaray*, *Eçiçaondarra* eta *Eçiçaidoya*. Momentuz behintzat, honen esanahia zein den zehazterik ez dugun arren, etorkizuneko ikerketetan kontutan hartzeko aspektua dela iruditu zaigu. Kuriosoa da, bestetik, hainbat lekukok, saroiaik zerrendatzeko orduan, *Eçiça* eta *Çahalegui* bi paraje ezberdin balira bezala aipatzen dituztela. Agirian jasotzen den epaia argia da zentzu honetan:

...fallamos aver prouado el dicho Oger, segund las condiciones del contrabto, ser seles antyguos e pertenesçidos al su solar de Amézqueta en las sobre dichas sierras e términos de Aralar e de Henirio estos seles que se // (23r) siguen: primeramente el sel de Narbe, e el segundo el sel de Olaçualsaroea, e el terçero el sel de Gorostyaga, el quarto el sel de Aynçagui, el quinto el sel de Mendoçarte, el sexto el sel de Gueriçiolaça, el seteno el sel de Sallin, el otauo el sel de Arreysçaga, el noveno el sel de Burunciçin, el dezeno el sel de Eçiça, el honzeno e sel de Çahalegui⁵⁷.

Egungo toponimiarekin identifikatzeko orduan, lau hauetako bi izan zitezkeenak topatzen ditugu kartografian: Zabalegi eta Ondarre. Identifikazioa zuzena izatekotan bi kasuetan izenaren lehenengo zatia den “Eçiça” galdua izango lukete.

Bestetik, jasotzen diren testigantzen artean badago *Elordiaren* ordez *Eçiçaelordya* esaten duenik ere. Antzekoa gertatzen da *Eçiçaydoya*-rekin, kasu batzuetan *Ydoya* bezala agertzen baitzaigu.⁵⁸

Mapan ikus daitezkeen, eta dokumentuan jasotzen diren, beste toponimo batzuk Ormatza (Hormaçaar), Buruntzuzin (Burunciçu), Elordi (Elordia) eta Otola (Otaola) lirateke. Dokumentuan, guztiak agertzen dira Amezketako kolazioaren jabetza bezala, Zabalegi izan ezik, azken hau Amezketako leinuaren ondasuna baita.

⁵⁷ *Ibid.* 62 or.

⁵⁸ *Ibid.*, 62 or.





24.IRUDIA. Zabalegi saroia eta Aralarreko beste hainbat toponimo
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

Hezizazaahal egungo Zabalegiren bitartez mapa batean kokatzea posible baldin bada ere, Ezizaray toponimoaren azalpenak zailtasun gehiago eskaintzen ditu. Ikusi dugu nola 1492ko kopian aldaera berdina agertzen duen, mende guzti horietan zehar inongo aldaketarik jasan gabe.

Denboran aurrera jotzen badugu, 1699 urterarte alegia, Ordiziako artxiboko agiri batean toki-izen honekin antzekotasuna agertzen duen toponimo bat aurkitzen dugu: *Ezizaregui*.


Fue pregunttado diga y comfiesse si además de los dichos rebaños en dicha ocasión prendaron entre el dicho alcalde y su jente otro género de ganados, y de qué límites o pastos. Respondiendo dijo que además de los dichos rebaños, por los que refiere la pregunta, fueron prendados diez y seis cabezas de ganado zerdudo en el arroio del sitio llamado Ainzagui; y quatro cabezas del mismo género en el sitio llamado Salin⁵⁹ saroe a la parte de arriba que confina con el albergue de ganados que tiene don Ignazio de Sagastume; y las otras nuebe cabezas entre este dicho sitio y el de Azolaza.

Fue pregunttado diga y comfiesse por qué caminos y términos transitaron y pasaron los ganados así prendados y a dónde. Respondiendo dijo que el comfesante y sus compañeros condujeron dicho ganado por el sitio llamado Aldaun Murcaondo azia el sitio llamado Ezizaregui, y dende allí al sitio llamado Beorlar, y dende // (51 r) hallí al sitio llamado Aizcol Ysassi⁶⁰

⁵⁹ Ataungo artxiboko 1410 urteko dokumentuan ere agertzen da, Amezketako leinuaren ondasunen artean, Heçiça Çahalegui-rekin batera.

⁶⁰ Ordiziako Udaleko Artxiboa. Judicial histórico. Asuntos judiciales criminales. Legajo 3, 6 zbk: 51r-51v

Hezizazahal toponimoa *Ezizahalegui* bihurtzen dela ikusi dugun modura, zilegi litzateke pentsatzea *Hezizaray* terminoa dokumentu honetan aurkitzen dugun *Ezizaregui* izenean bilakatu izana. Dokumentuan jasotzen diren toponimoen identifikazioak arazoak ematen dituen arren, horietako bat, Salin, egungo toponimian identifikatu dezakegu, Salingain mendixkan. Ikusten dugunez, Etitzegi ez da Salingainetik distantzia handira aurkitzen, beraz, dokumentuan deskribatzen den parajea inguru hauetan kokatzea posible liteke.



25. IRUDIA. Etitzegi parajearen kokapena (Enirio-Aralar)
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

Gipuzkoako Artxibo Orokorean *Hezizaray* toponimoaren inguran beste aztarna bat erraztuko digun agiri bat kontserbatzen da. 1854eko kopia bat da eta, bertan, 1410eko dokumentua jasotzen da. Bi dokumentuetako pasarte bera aldetuz gero, toponimo hauek jasandako aldaketa agerian geratzen da.

6. TAULA. ARALARREKO TOPONIMOEN EBOLUZIOA XV ETA XIX MENDEETAKO BI DOKUMENTUREN ALDERAKETAN OINARRITUZ

AMEZKETA LEINUA	
1410 ⁶¹	1854 ⁶²
Narbe	=
Olaçualsaroea	Olazabal
Gorostyaga	=
Aynçagui	Aguinzagui
Mendoçarte	Mendicarte
Gueriçiolaça	Aguereizeolaza
Sallin	Salin
Arreysçaga	Arrizaga
Burunciñin	Burunizin
Eçiça	Eziza
Çahalegui	Zaalaegi

AMEZKETAKO KOLAZIOA	
1409 ⁶³	1854 ⁶⁴
Eçiçaray	Eizeregui Leizegarai
Eçiçahondarra	Eziza Ondarra
Eçiçaelordya	Eziza Idoia
Ydoya	Elordia
Aguinagaeta	Aguinaga atea
Burunciñi	Burunuzia
Aguiguregana	Aguinguregana
Orrmaça	Ermazar
Maruçariolaça	Marua Calicolaza
Çığaola	Olazalazar
Leçaosveeracoa	Lizaosberaza
Leçaosgariaycoa	Lizaros garaicoa
Ollarraveeracoa	Olazagaraicoa
Ollarragaycoa	Olazaiberacoa
Horenarry	Oienarri
Latosa	=
Pardaluscobanurre	Fardelus Cobaurre
Urrcoytia	Urrestobia

⁶¹ AYERBE; SAN MIGUEL: 2013, 18 dok., 66 or.

⁶² AGG-GAO JDIM 2/18/2, 1 v. 1854ko kopia.

⁶³ AYERBE; SAN MIGUEL: 2013, 18 dok., 67 or.

⁶⁴ AGG-GAO JDIM 2/18/2, 3 v. 1854ko kopia.



Goian ikusi dugu 1699ko agirian *Ezizaregui* toponimoa agertzen dela, eta hau *Hezizaray* terminotik etor zitekeela planteatu dugu. Oraingoan, 1854ko dokumentuan, *Eçiçarayen* baliokide bezala *Eizeregui Leizegarai* agertzen zaigu. *Eizereguik* antzekotasun nabariak ditu egungo *Etitzegirekin* eta, honez gain, *Hezizaray* terminoaren atzizkia, *-ray*, Leizegarai bilakatu dela plantea genezake.

Azkenik, aipagarria da 1410eko dokumentuan lekukoei dagokionean egiten den aipamena:

Testigos que presentes estauan al pronunciar e rrezar de la dicha sentencia:
Juan Martines de Yuarra e Juan Ochoa de Olaçual, vecinos e moradores de
la dicha villa de Tolosa, e otros.

Ez dugu ahaztu behar saroein artean *Olaçualsaroea* aurkitzen dugula.

3.10. Arrandari Sansoiz

Grafia arazoak alde batera utzita, toponimoaren transkribapena argia dela dirudi. Ez da berdina gertatzen, baina, identifikazioari dagokionean. S. Múgica eta F. Arocenak Amezketako *Arandi* toponimoarekin erlazionatu zuten, eta modu berean egiten du S. Aldanondok ere, azken honek bigarren aukera bezala Antzuola proposatzen duelarik –Arrandari erreka, Arrandaritorre eta Arrandariozaeta-.

Testuak dioenari erreparatzen badiogu, *Arrandari Sansoiz* Aralarren kokatzen dela esango genuke, aurreko bi toponimoekin bat eginez:

Haralarre: Hezizazaual alia Hezizaray, cum Arrandari Sansoiz.

Honen ondoren etorriko litzateke:

Mazaneto de Ugarte, Zuhaznabar cum Ossavio de medio mazaneto.



Hala ere, testuaren irakurketa ezberdinak planteatu daitezke, transkribapenen puntuazioan isla dutenak. Horrela, *Arrandari* eta *Sansoiz* bi errealtitate ezberdin bezala uler daitezke; edo *Sansoiz* bere segidan datorren *mazaneto* hitzarekin erlazionatu. Guk, hurrengo atalean argiago azalduko dugun modura, *mazaneto* hitza Ugarterekin doala ulertzen dugu eta, hortaz, *Arrandari Sansoiz* Aralarreko saroi bat izango dela.

Sansoiz toponimoarekin antzekotasunik izan zezaketenen artean Ataungo Udal Artxiboa gordetzen den agiri bateko *Sanchi saroya* aipa genezake⁶⁵. Egun toponimo hau kontserbatzen ez den arren, dokumentu horretan bertan agertzen diren beste bi termino identifikagarriak dira oraindik ere, *Pardeluts* (*Fardelus*) eta *Pagabe* (*Fagave*). Hala ere, hauek mapa batean kokatzerako orduan, Zabalegit hegaloaderantz, 3,5 bat kilometrora aurkitzen direla agerian geratzen da. Hortaz, Zabalegi eta Etitzegitik gertuago legokeen beste aukeraren batean pentsatu beharko genuke, oraindik topatu ez dugun arren.

Arrandari toponimoari dagokionean ere ez dugu azalpen posiblerik topatu, baina orain arte proposatu izan den Amezketako *Arandi* urrunegi geratzen dela iruditzen zaigu.

3.11. Ugarte

Ugarte toponimoa gure geografian oso ohikoa da, bereziki baserri edo etxeei lotua agertzen zaigularik. S. Múgica eta F. Arocenak Amezketan dagoen Ugarte auzoa proposatu zuten identifikazio modura, eta hala egin dute hauen atzetik lan honi ekin diotenek ere. Honela dio M. Agudek honen harira:


...Ugarte está demasiado lejos para ponerlo junto a *Zuaznabar*; además la comunicación a través de un bosque y de abundantes regatos no parece muy transitable (AGUD: 1969, 334).

⁶⁵ Ataungo Udal Artxibo Historikoa. Administración. Jurisdicción territorial. Enirio-Aralar. 179-01: 5r.



Zuaznabar eta Amezketako Ugarteren arteko distantzia -bi toponimo hauek pasarte berean sartu behar direla onartzen badugu- 4 km ingurukoa da lerro zuzenean.

Badago, baina, Zuaznabarretik gertuago dagoen Ugarte izeneko paraje bat, Altzoko udalerrrian bertan. Egun Ugarbesaiets izenarekin ezagutzen da, bertatik igarotzen delarik Ugarbe erreka.



26. IRUDIA. Altzoko Ugarbesaiets parajea
Geoeuskadi. Altzoko udal mapa topónimiko (2009)

Tolosako Jabetza Erregistroan aurkitu dugun Iursail baten inguruko dokumentuak *Ugarbe* toponimoa *Ugartetik* datorrela pentsatzera eramatzen gaitu. Honela dio pasarteak:

Finca rural. Ocho terrenos⁶⁶ radicantes en jurisdicción de Alzo y su descripción es como sigue:

...

El trozo de terreno argomal, herbal ruin y peñascal del término de Ugarte confinante por Norte con camino público, por Oriente con el mismo camino y regatilla de Ugarte, por Mediodía con la misma regatilla y camino carretil y por Poniente con terreno de don Matías Lizarribar. Es de cabida de ciento ocho áreas, sesenta y cinco centíreas, de las que setenta y cuatro áreas y sesenta y siete centíreas son de argomal y peñascal y treinta y tres áreas y noventa y ocho centíreas de herbal ruin; su valor es de doscientas cincuenta y siete pesetas y noventa y nueve céntimos⁶⁷.

⁶⁶ Ugartez gain, jasotzen diren gainontzeko lurrik ondorengokoak dira: Basayaz, Capainsoro, Goinsoro, Pagastigarreta, Artain-garaicoa, Ansupleardi o Goenaga, Yturbeguietaburua.

⁶⁷ Tolosako Jabetza Erregistroa (TJE). Tomo 241, finca 89, 193r-193v.



1884an Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatu zen lursail honen deskribapenak bat egingo luke Ugarbesaiets parajeak dituen mugenak: Iparraldean bide publikoa – Azkarateko bidea-, eta Ekieldean Ugarteko erreka. Mugak finkatzeko orduan erreferentzi gehiago ematen diren arren, kontutan izan behar dugu hemen deskribatzen dena ez dela Ugarteko eremu osoa, bertan dagoen lursail bat baino. Honek 108,65 area ditu, hau da, 10.865 m². Beheko mapan hedadura hau duen lursail batek okupatuko lukeen eremua adierazi dugu, Ekieldean Ugarbe erreka eta Iparraldean Azkarateko bidea dituela. Esan beharra dago, hala ere, lursailaren kokapen zehatza ez dugula ezagutzen.




27. IRUDIA. Ugarbe ibaiaren ibilbidea (Altzo)
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Goian adierazitakoan oinarrituz eta, egun, Altzon, Ugarbe izeneko erreka zein parajerik kontserbatzen ez dela kontutan hartuta, egungo Ugarbesaietsek Tolosako Jabetza Erregistroan jasotzen den Ugarteri erantzuten diola ondoriozta genezake.

3.12. Zuhaznabar

Zuhaznabar toponimoak ez du zaitasunik eskaintzen ez transkribapena egiteko orduan ezta identifikazioari dagokionean ere. Zuaznabar leinu garrantzitsua izan da Altzoko historian, 1417an Olazabal jaunak eta Altzoko biztanleek errotaren erabileraren inguruan sinatutako akordioan⁶⁸ agertzen da dagoeneko izen hau, abizen lokatibo zein etxe-izen modura: *yo Lope García de Cuaznabar, señor de la cassa de Cuaznabar.* Honez gain, zein kolaziotan bizi diren aipatzen denean, ondorengoa esaten da: *beznos que somos de la villa de Tolossa de Guipúzcoa, moradores en la colación de la parrochial yglesia de San Salvador de Olaçaval.* Hortaz, dokumentu honetan bertan *Arzagudum* Santa Maria parrokiako parte bezala agertzen zaigun bitartean –gorago aztertu dugun moduan–, Zuhaznabar Olazabalgo San Salbatore parrokiari dagokiola ikusten dugu.




28. IRUDIA. Altzoko Zuaznabar baserriak
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

XV mendean leinu eta etxe-izen modura agertzen zaiguna, Altzoko auzo bat da egun. Beheko irudian ikusten dugunez, Zuaznabar izena daramaten etxeek okupatzen duten espaziotik –borobil urdina– asko zabaldu da izen honekin ezagutzen dugun eremua, Zuaznabar aldea deitua.

⁶⁸ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la iglesia. 44.10: 3r-3v. (eranskineko 5. dokumentua).





29. IRUDIA. Zuaznabar aldea (Altzo)
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

Beheko irudian ikus dezakegun modura, espazio honen zati handi bat mendi lurrek osatzen dute, Ollagon mendiaren ia osoa hartzen baitu auzo honek. Zuaznabar etxeen inguruan dagoen eremua, aldiz, labore-lurrei zuzendua dago.



30. IRUDIA. Zuaznabar aldea (urdinez) eta Ollagon mendia
Google maps (mapa moldatua)



3.13. Otsabio

Ossavio toponimoaren identifikazioa –grafia aldaketak alde batera utziz- argia da, Otsabio mendiarekin duen antzekotasuna agerikoa baita. Mendi hau Altzoko udalerriaren ekialdean kokatzen da –beheko irudia biratuta dago-, 801 metroko altuera du eta Aralar mendilerroaren parte da.

Tolosako Jabetza Erregistroan gordetzen da Otsabio izena daraman lursail baten deskribapena:

El terreno erbal llamado Otsabio, confina por Oriente con terreno de don Pedro María Elosegui, por Mediodía con el de don Joaquín Antonio Zuloaga, por Poniente con el de don Pedro Antonio Gregorio Garayalde y por Norte con camino. Contiene cincuenta y tres áreas y cincuenta centíreas que valen cuatrocientos veintiocho pesetas⁶⁹.

Hala ere, ezinezkoa zaigu jakitea XI mendeko *Ossavioren* aipamenak mendi honetako zein parteri egingo liokeen erreferentzia. Ekar dezagun gogora Olazabalgo dokumentuaren pasarte hau:

Mazaneto de Ugarte, Zuhaznabar cum Ossauio de medio mazaneto.

Dokumentuak dioena oinarri bezala hartuta, pentsa genezake, batetik, Ugarteko sagastia aipatzen dela eta, bestetik, Zuhaznabar parajea –honen izaera zehaztu gabe- Osabioko sagastiaren erdiarekin batera, azken biak elkarrekin joango balira bezala.

Beheko irudiari errepasatzen badiogu, eta gorago aipatu dugun bezala, Zuaznabar etxeen inguruko eremuak apropoa dirudi nekazal-lurren ustiapenerako. Eremu lau honekin muga egiten Otsabio menda aurkitzen dugu. Hortaz, zilegi litzateke pentsatzea *Zuhaznabar* eta *Ossavio* toponimoek, bata bestearen jarraian, edo gertu, dauden bi espaziori erreferentzia egiten dietela.

⁶⁹ Tolosako Jabetza Erregistroa (TJE). Tomo 241, finca 82, f. 132.






31. IRUDIA. Zuaznabar aldea, nekazal lurrez osatutako eremua
Google maps (mapa moldatua)

3.14. Haya et Elcano

Haya eta *Elcanok* ez dute, printzipioz, identifikazio arazorik eskaintzen, Aia herria eta, egun azken honen auzoa den, Elkanorekin erlazionatzeak begi-bistakoa baitirudi. Kasu honetan ez da beharrezkoa izan artxiboetan hauen kokapena zehaztea ahalbidetuko digun informazioa bilatzea, erronka bestelakoa da, Olazabalgo dokumentuaren transkribapen eta interpretazio egokia egitea alegia.

Liburu Gotikoari erreparatzen badiogu *Ethelcanmo* irakurri daitekeela ohartuko gara, *Haya Ethelcanno*. Antza, kopistak, originala erabili zuenean “et” juntagailu lokatiboa *Elcano* hitzaren parte zela ulertu eta modura honetan transkribatu zuen, *Ethelcano* toponimo bat balitz bezala.




32. IRUDIA. Liburu Gotikoan jasotako “haya ethelcano” terminoa
Zaragozako Liburutegi Unibertsitarioa, Liburu Gotikoa. 75v-76r.

Baina AHN-ko kopiari erreparatzen badiogu, hau ere modu berean transkribatua izan dela ohartuko gara. Honek bi aukera posible planteatzen ditu, azken kopia hau Liburu Gotikoa oinarri hartuta transkribatu zela edo, bestela, dokumentu originalean *Ethelcanno* agertzen zela.

Kopistaren akatsa izan zela babesten duen teoria onartzen badugu ere, pasarte honen interpretazioak iluna izaten jarraitzen du.

*Enneco Garciaiz pro sua anima posuit partes de Munio Garziayz menore que
comparaui villa que dicitur Haya, et Helcanno, et mazanetos, VI bakas
comparaui suo uita*

Haya Ethelcanno izen bakarra izango balitz, Munio Gartzia izen hori zeraman herri bat erosi zuela ulertuko genuke, baina bi errealitye direla kontsideratzen badugu hainbat galdera sortzen dira: zein da Elkanoren izaera? eta, hori bezain garrantzitsu dena, ze erlazio du Aiarekiko? J.A. Llorentek proposatzen duen transkribapenean *Haya de Elcanno* jasotzen da. Baino honek ere ez luke auzia konponduko, Aia herria Elkano izenez ezagutzen zen espazio handiago baten parte zela ulertu beharko baikenuke. Udalerriek egun okupatzen duten espazioa alde batera utzi eta herriguneei erreparatzen badiegu, Aia eta Elkanoren arteko distantzia, lerro zuzenean, 5,3km ingurukoa dela ohartuko gara.



33. IRUDIA. Aia eta Elkaroneran arteko distantzia
Google maps (mapa moldatua)

Beste aukera bi errealitate ezberdinei erreferentzia egitea litzateke, elkarren arteko loturarik adierazteko asmorik gabe. Kasu honetan pentsa genezake bai Aia eta bai Elkano herriak izatea; agian, Aiaren herri izaera aipatu ostean, Elkanorekin ez zen berriro berdina egin ez errepikatzeagatik.

...comparaui villa que dicitur Haya, et [villa que dicitur] Helcanno, et
mazanetos, VI bakas...

Honek azaldu lezake kopistaren akatsa, *villa* bakarrari erreferentzia egiten zitzaiola ikustean toponimo bakarraz lagunduta joan behar zuela ulertzea eta, hortaz, *Haya Ethelcanno* herriaren izena zela konsideratzea.

Bestetik deigarria da *mazanetos* hitzarekin batera hau zehaztuko duen toponimorik ez eramatea, aurreko kasuetan ikusi dugun modura.

3.15. Ezquiaga

Bestetik Ezkiagako sagastia aipatzen zaigu. A. Santana (2003) eta S. Aldanondo (2013) dira identifikazio proposamen bat planteatu duten bakarrak, biek ere toponimia ikaztegietan kokatuz, egun izen hori daraman baserrian oinarrituz.



34 IRUDIA. Ikaztegiako Ezkiaga terminoaren kokapena
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura. Mapa moldatua

Aukera hau zilegi bada ere, lan honetan monasterioaren ekialdean geratzen diren bi aukera posible planteatuko ditugu.

Lehenengoak Lizartzako hegoaldera garamatza. Honek Altzoko monasteriotik urrunten bagaitu ere, Araxes ibaitik gertu kokatzen da, bertatik igarotzen delarik ibai honetara doan erreka bat.



35. IRUDIA. Lizartzako Ezkiaga toponimoa
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Bestetik, badago Gaztelun Ezkiagaenea izeneko etxe bat. Honen kokapena interesgarria da handik gertu aurkitzen baita Aznabar parajea. Lan honetan, bigarren kokapen hau aukeratuko dugu.



36. IRUDIA. Gazteluko Ezkiagaenea baserria
Google maps (mapa moldatua)

3.16. Iturrioz

Iturrioz izena identifikatzeko orduan, arazo nagusia izen hau daramaten etxe, baserri eta lur-eremuen kopuru handian datza. Gurria izenaren konplexutasuna aldiz bestelakoa da, honekin antzekotasunak aurkezten dituzten toponimoak ez baitira ugariak.

Baserriei dagokienean, hauek dira guk aztertu dugun eremuan aipa ditzakegunak: Iturriotz (Orexa), Iturriotz (Leaburu, Elbarren aldea), Iturriozaña baserria (Leaburu), Iturriotz (Tolosa, Santa Luzia auzoa).

Hauez gain, Gipuzkoako Artxibo Orokorreko hainbat agiriri esker, Ibarra aurkitzen zen, eta egun kontserbatzen ez den, Iturriotz toponimoa aurkitu dugu, lur eremu bati erreferentzia egiten diolarik. Hainbat dira honen inguruan hitz egiten diguten dokumentuak:

Aurkitu dugun lehenengoa 1569 urtekoa da.

...en el término de Yturrioz, que es en / terretorio de la dicha universidad
de Ybarra...⁷⁰

Bigarren batean, 1632ko agiria, Sebastian de Lapaça-k Gaspar de Çufiaurre-ri emandako ordainketa-agiria kontserbatzen da. Zeharka, Ibarrako *Yturrioz Andia* gaztainadiari egindako aipamena jasotzen da.

En la villa de Tolossa, a quatro días del mes de septiembre de mil y seiscientos y treinta y dos años, en presencia de mí, Joanes de Liçardi, escrivano de su magestad y del número de ella, y de los testigos de yuso escriptos, pareció presente don Sevastián de Lapaça, presvítero beneficiado de la parrochial de la tierra de Leaburu, e dixo que él abía dicho las misas matinales en la yglesia parrochial de la tierra de Ybarra el año passado de mil y sesientos y beinte y cinco años, siendo alcalde Joanes de Barrenechea, y que del estipendio de las dichas misas se le quedaron a deber nueve ducados y cinco reales. Y abiendo pedido ante el alcalde de hordinario de esta dicha villa exención por ellos, y enbargada la renta de la maquilla del molino de la dicha tierra, se hicieron seis reales de costas, de forma que todo montó diez ducados, los quales le hordenaron los becinos de la dicha tierra le pagase a Andrés de Vrreta, alcalde que a sido el año passado de mill y seiscientos y treinta y uno, y él a Gaspar de Çubiaurre, por el fruto del castañal llamado Yturrioz Andia, que es del concejo de la dicha tierra. Y que el dicho Gaspar le a dado y pagado los dichos diez ducados en bienes, de los quales renunció, por no parecer de presente la paga, qualquiera excepción de la *non numerata pecunia* y leyes de su prueba como en ellas se contiene, le daba carta de pago e finiquito al

⁷⁰ AGG-GAO PT 40: 298v. 1569 urtea.



dicho Gaspar de Çubiaurre y en su nombre al concejo de la dicha tierra de Ybarra para agora y siempre jamás. Y la otorgo así siendo testigos Pedro de Loidi y Joanes de Çabala y Francisco de Munoa, vecinos y estantes en esta dicha villa, y el dicho otorgante a quien yo, el dicho escrivano, doy fe e conozco, la firmo de su nombre.⁷¹

Hurrengo dokumentuan ere aurkitzen dugu aipatutako toponimoa.

...un castañal que abemos y tenemos en la dicha tierra llamado Anchosildi, perteneciente a la mia casa de Goya, que linda por la parte de abaxo con castañal del dicho concejo llamado Yturrioz, e por el un lado con castañal de Francisco de Munita, vecino de la villa de Tolossa, e por el otro lado castañal de la casa de Elduarayen, e por la parte de arriba con castañal de la casa de Barrenechea, el qual dicho castañal de suso declarado emos vendido e bendemos al dicho concejo con todas sus entradas e salidas...⁷²

XVI mende bukaerako beste dokumentu batean azaltzen zaigu berriro ere:

... bos damos y bendemos sobre los propios, rentas y aver del dicho concejo y nuestros propios bienes muebles e rayzes, derechos e acciones avidos e por aver. Especial y espresamente sobre el molino del dicho concejo e su pressa, anteparas ruedas, piedras y rodeznos, y su renta y maquilla, y sobre los castañales de Yerraran, Yturrioz y Exidu Andia y Exidu Chipia y Yemabia, que son del dicho concejo, conoçidos e savidos por el dicho nombre, e sus límites e linderos claros y distintos.⁷³

XVIII mendeko beste hiru dokumentuetan ere topatzen ditugu Iturriozen inguruko erreferentziak.

...una tierra castañal de ciento y treintta y cinco posturas y quartta sitta en el término de Yturrioz, jurisdicción del lugar de Ybarra, examinada en ochocientos once reales y medio de dicha moneta de plata⁷⁴

Iturriotz izeneko eremua dokumentazioan sarri agertzen den arren, honen kokapen zehatza finkatzea lan konplexua da, mugak ez direlako sarri aipatzen eta, zehazten direnean, baserri edo pertsona baten lurrik izaten direlako, azken hauek mapa batean kokatzea zaila suertatzen delarik. Atera dezakegung infomazioari

⁷¹AGG-GAO PT176: 202v. 1632 urtea.

⁷² AGG-GAO PT130: 771r. 1594 urtea

⁷³ AGG-GAO PT100: 1v, 1595 urtea.

⁷⁴ AGG-GAO PT526: 88v. 1750 urtea.



dagokionean, Iturriozt Ibarrako kontzejuaren propioa dela aipa genezake eta XVII eta XVIII mendeetan zehar gaiztanadi bezala erabilia izan zela.

XVIII mendeko bigarren dokumentuan, 1769 urtekoa, Villafuerteseko kondesa den María Vitoria Velasco andreak, bere alabak Iturrioz parajearen duen gaztainadi bat Apateko eremuan dagoen beste batekin trukatzen du, lehenengoa urrunegi aurkitzen dela argudiatuz.

(17r) Doña María Vitoria de Velasco, condesa viuda de Villafuertes y vecina de esta villa de Tolosa, madre, así bien tutora y curadora y administradora de las personas y bienes de doña María del Rosario, y doña María Josepha de Aramburu y Velasco, poseedora aquella de los mayorazgos de su apellido y agregaciones a ellos hechas en aquella vía y forma que mejor lugar aya en derecho; parezco ante vuestra merced y digo que a dichos mayorazgos toca, y pertenece, y es propia de ellos una porción de tierra castaños, sita en el término llamado Yturrioz, jurisdicción del lugar de Ybarra. Y porque se proporciona el poder cambiar, y permutar dicha porción de tierra castaños por otra también tierra castaños, sita en el término llamado Apatte, jurisdicción de dicho lugar de Ybarra, propia de Martín de Zaldúa vecino del referido lugar...

(18v) ...dos porciones de tierra castaños, la una propia de los mayorazgos de Aramburu, sita en el término llamado Yturrioz; y la otra de el referido Martín de Zaldúa, en el término llamado Apate; y haviendolas medido, ha hallado que dicha porción correspondiente a los referidos mayorazgos, consta de ciento y diez y nueve posturas de pies de manzanos de a quatrocientos y quarenta y un pies cuadros cada postura.

(19r) ...Que sin género de duda entiende el deponente que, de efectuarse la permuta de estas dos tierras, ha de redundar conocida utilidad y ventajas a los referidos mayorazgos, assí por la proximidad, que la porción de dicho Martín tiene con otras propias de los referidos mayorazgos.

(20r) Y que tiene por mui cierto, que de ponerse en practicarlo así tratado, resultará a dichos mayorazgos notable utilidad y ventaja, porque de este modo consiguen y logran la de aproximar y quasi unir dicha porción que recibirán en permuta, a otra considerable que a dicho deponente se está aplicada por dicha condesa su ama, en el mismo término de Apate. Y que es también cierto que por la mucha distancia a la tierra castaños del término de Yturrioz, se aprovecha mui poco de sus frutos⁷⁵.

⁷⁵ AGG-GAO. PT608: 18v. 1769 urtea.



XVIII mendeko azken pasartean Iturriotzeko lursail baten mugak aipatzen dira.

...una porción de tierra castañal de cavida de ciento y diez y nueve posturas de pies de manzanos, de a quatrocientos y quarenta y un pies quadros cada postura, sita en el término llamado Yturrioz, jurisdicción del dicho lugar de Ybarra, y confinante por el Oriente, Mediodía, Poniente y parte de Setemptrión con tierras concegiles del referido lugar, y por el resto del dicho Setemptrión con tierras de la mencionada casa de Zupriti y la de Zubiaurre.⁷⁶

Ikusten dugunez, paraje hau Ibarrako kontzejuarenak diren lursailez inguratuta aurkitzen da, iparraldeko eremuaren zati batek Zupriti eta Zubiaurre etxeen lurrekin muga egiten duelarik. Hala ere, hurrengo dokumentuan agerian geratzen denez, Zubiaurre etxeak hainbat lursail ditu jabetzan, hortaz, zaila da hauen kokapena zehaztea, eta aurreko dokumentuak Zubiaurre etxearen zein ondasunei erreferentzia egiten dion jakitea.


E yo, el dicho Esteban de Çubiaurre sobre la mi casa llamada Çubiaurre que e y tengo en la dicha tierra de Ybarra, junto a la casa de la Abadía, conocida por el dicho nombre e sobre su huerta e tierras sembradías que están detrás de la dicha casa e apegantes a ella que por los otros lados lindan con la dicha casa de la Abadía e con el dicho mançanal de vos, el dicho don Sebastián. Y sobre todas las demás heredades, mançanales e castañales, prados y montes pertenecientes a la dicha cassa de Çubiaurre, que todos ellos son conocidos y de límites conocidos.⁷⁷

Hurrengo mapan Ibarrako udalerriaren lurak agertzen dira. Eremua zabalagoa den arren, gainontzeko lursailak Uzturre mendian aurkitzen dira eta, hortaz, Iturriotz espazioren batean kokatu beharko bagenu eremu horretan egin beharko genukeela konsideratzen dugu. Gainera hemen aurkitzen ditugu dokumentuetan agertu zaizkigun hainbat erreferentzia, hala nola, Zupriti eta Zubiaurre etxeak – hauen lurak non kokatzen ziren zehazterik ez badugu ere-, edo Apataerreka – dokumentuetako batean Apateko lursail bat Iturriotzen aurkitzen zen beste batekin trukatzen zela ikusi dugu-.

⁷⁶ AGG-GAO PT608: 12r. 1769 urtea.

⁷⁷ AGG-GAO PT129: 430v. 1593 urtea.





37. IRUDIA. Ibarrako Zubiaurre etxea eta Leaburuko Gurreaga baseria
Geoeuskadi (mapa moldatua)

3.17. Gurtia

Gurtiari dagokionean, transkribapenetan erabateko adostasuna ikusten dugun bitartean, esan beharra dago ez dela identifikazio posiblerik proposatu.

Goiko mapan ikusi dugun Gurreaga izena maiz agertzen da Gipuzkoako Artxibo Orokorean kontserbatzen diren protokoloetan. Aipatzeko da, gainera, XVI mende bukaera eta XVII mende hasierako dokumentuetan aldaera txiki batekin topatzen dugula, Gurreagaren ordez, Gurriaga bezala azaltzen zaigalarik, etxe-izen zein abizen lokatibo modura.

...la mi casa de Gurriaga e su tierra, huerta e tierras sembradías e mançanales e castanales e montes e pertenencias que son en terretorio de la dicha tierra de Leaburu, e confinan la dicha casa e tierras e mançanales a las tierras de las casas de Artabe e al exido público, e los otros bienes a las heredades de otros bezinos de la dicha tierra de Leaburu...⁷⁸

...E yo el dicho Domingo de Gurriaga menor en días, sobre la mi casa de Gurriaga e sus tierras, huerta sembradía, mançanales e castanales e pertenencias pertenecientes a la dicha casa que confinan con tierras e términos de las casas de Artabe e Aguirre y exidos públicos de Leaburu e Belaunça.⁷⁹

⁷⁸ AGG-GAO PT61: 103v. 1583 urtea

⁷⁹ AGG-GAO PT68: 13v. 1587 urtea

Honez gain, Tolosako Jabetza Erregistroan jatorri bera duten beste bi izen jasotzen dira, biek Leaburuko soroei erreferentzia egiten dietela, *Gurreako ataria* eta *Gurrealdea*⁸⁰. Datu hauekin, pentsa genezake izen hauen jatorria *Gurea* edo *Guria* izan litekeela, antzekotasun nabariak izanik Olazabalgo dokumentuko *Gurtiarekin*.



38. IRUDIA. Gurriaga terminoaren kokapenea Leaburun
(Iturriotzen kokapena gutxi gorabeherakoa da)
Google maps (mapa moldatua)

⁸⁰ Tolosako Jabetza Erregistroa (TJE). Tomo 490, finca 176, fol.72

4- MONASTERIOAREN LURRALDE LOGIKA

Behin toponimoen kokapen posiblea aztertu ondoren, espazio hauek mapa batean finkatzea izango da hurrengo lana, hauen artean logika-espazial bat igarri daitekeen edo elementu solteek osatzen duten frogatu aldera.

Hala ere, hainbat gauza izan behar dira kontuan. Batetik, atal honetan, monasterioaren eremuaren hedadura eta mugak ezagutze aldera, lurralte hau hainbat lerro irudikatuz definitzen saiatuko garen arren, ezin dugu ahaztu Erdi Aroko jabegoaren kontzeptua ez dela gure garaikoa: usadioek eta erabilera konkretuek sustatzen dituzte pertsona baten, kolektibo baten edo erakunde baten eskubideak. Muga-lerroak deskribatzen direnean, eskubideak noraino iristen diren esaten da, eta gauza bera egin daiteke lerroak deskribatu gabe, hainbat eremu aipatzen direnean, haien arteko konexio topografikoa ez badago ere. Deskribapena eguneroko edo sasoiko usadioetan eta lanetan ulertzen da, ez gure lursailen kontzepzioan, plano batean zehatz-mehatz zedarritu daitezkeenak⁸¹.

Baina kontzeptu hauek are konplexuagoak dira mapa batean islatu ahal izateko, ez baitugu haien usadio eta erabilera konkretuak ezagutzeko modurik. Arrazoi honegatik, eta praktikoak izateko, espazio geografikoen arteko logika hartuko dugu oinarritzat, hauen artean egon daitezkeen muga naturalak kontutan hartuz.

Bestetik, paraje hauek egun ze ustiaketa motara zuzenduak dauden aztertuko dugu, modu honetan monasterioak espazio hauetatik atera zezakeen etekinera hurbilpen xume bat egiteko asmoarekin. Iza ere, ezin dugu ahaztu Gipuzkoako eta Bizkaiko nekazaritza eta basozaintza asko aldatu direla Erdi Arotik hona eta,

⁸¹ Elisabeth Bille, "Remarques sur les modes de spatialisation des droits et des pratiques sur les vacants en Cerdagne aux XII^e-XIV^e siècles," in *Les ressources naturelles des Pyrénées du Moyen Âge à l'époque moderne. Exploitation, gestion, appropriation*, ed. Aymat Catafau (Perpignan: Presses Universitaires de Perpignan, 2005), 239-52; Alain Guerreau, "Quelques caractères spécifiques de l'espace féodal européen," in *L'État ou le Roi. Les fondements de la modernité monarchique en France (XIV^e-XVII^e siècles)*, ed. Neithard Bulst, Robert Descimon, and Alain Guerreau (Paris: Maison des Sciences de l'Homme, 1996), 85-101; Michel Lauwers, "De l'incastellamento à l'inecclesiamento. Monachisme et logiques spatiales du féodalisme," in *Cluny, les moines et la société au premier âge féodal*, ed. Dominique Logna-Prat et al. (Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 2013), 315-38; Michel Lauwers and Laurent Ripart, "Représentation et gestion de l'espace dans l'Occident médiéval," in *Rome et l'État moderne européen*, ed. Jean-Philippe Genêt (Rome: École Française de Rome, 2007), 115-71; Luciano Lagazzi, *Segni sulla terra: determinazione dei confini e percezione dello spazio nell'alto Medioevo* (Bologna: CLUEB, 1991); Anne Mailloux, "Le territoire dans les sources médiévales : perception, culture et expérience de l'espace social. Essai de synthèse," in *Les Territoires du médiéviste*, ed. Benoît Cursente and Mireille Mousnier (Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 2005), 223-35



hortaz, egun burutzen diren labore-lanek edo aurkitzen dugun landarediak ez duela zergatik zerikusirik izan behar XI. mendean aurki genezakeen paisaiarekin.

4.1. Monasterioaren lurraldearen zedarritzea

Olazabalgo monasterioko lurren zedarritza modu honetan hasten da:

Illud monasterium quod dicitur Ollazabal, cum hereditate sua ut terminabit senior Garcia Acenariz et domina Gayla: des scilice superiore Garaharra, Orerurte, alias Uzturre super Lascuren.

Lehenengo pasarte honek goiko partean dauden parajeei egingo lieke erreferentzia, hau da, monasterioaren iparraldean kokatzen direnei.

La simple lectura nos hace sentir la falta de palabras. Las presuntas correlaciones quedan truncadas (*des...superiore... de alia parte inferiorem* (sic)...); las descripciones de límites no responden a un orden lógico, sino que se mencionan los lugares saltando de uno a otro de forma desordenada, lo contrario de cuanto se ve en documentos de donación similar (p. ej. La donación de la Catedral de Pamplona, y demarcación de su obispado en el 1027, en el Cartulario Magno de Comptos). (AGUD: 1968, 331-332)

M. Aguden baieztapen hau, toponimoak era desordenatu batean agertzen direla esaten duenean, Galarragaren kasuan ikus dezakegu argi eta garbi, egile honek berak adierazten duen moduan, Galarragara Adunan egongo balitz, urrutiegi geratuko litzatekeelako gainerako toponimoekiko.

Guk lan honetan bi kokapen posible proposatu ditugu, lehenengoa Lizarrako erdigunean aurkituko litzateke, bigarrena, Belauntzan. Pasarte honek monasterioaren goiko aldeari erreferentzia egiten diola onartzen badugu, Belauntzako Galarraga konsideratzen dugu aukerarik egokiena, Lizartzakoa monasterioaren hego-ekialdean aurkitzen baita.

Galarragaren kokapen geografikoari erreparatzen badiogu, espacio hau muga natural baten ondoan kokatzen dela ohartuko gara. Galarraga baserriaren iparraldean geratzen den Iursaila, 123 metroko aldea duen malda handi batek mugatzen baitu. Maldaren behealdetik Elduarain erreka igotzen da, Oria ibaira zuzenduz, hau da, Tolosara.





39. IRUDIA. Belauntzako Galarraga baseria
Google maps (mapa moldatua)

Belauntzari dagokionean aipagarria da 2009an, J.M. Perezen zuzendaritzapean, San Juan Bataiatzailearen elizan burututako indusketa arkeologikoa. Bertan aurrera eramandako lanek 1,10 x 0,70 m-ko kareharrizko harlanduxkan egindako eta kareorez lotutako bloke-aldare bat agerian utzi zuten, datatze radiokarbonikoak XI. mendearren lehen erdian kokatzen duena; ez zen honi lotuta joan beharko lukeen eraikuntza erlijiosoaren aztarnarik topatu (SARASOLA, MORAZA: 2011, 109).

Galarragaren ondoren datorren toponimoa *Orerurte/Orerarte* litzateke. Espazio hau mapa batean kokatzen lagunduko ligukeen erreferentziarik topatu ez dugun arren, gainontzeko toponimoak finkatzeak –jarraian ikusiko dugun modura-, eremu honen kokapen posiblearen ideia emango liguke, Elduarain ibaiadarrak Oria ibaiarekin bat egiten duen espazioaren inguruan.


Azken espazio honetatik gertu aurkituko genuke *Lascuren*, egungo Laskoain, Tolosako Alde Zaharraren mendebaldean zabaltzen den espazioan. Hala ere, aurreko atalean aipatutako hipotesiari eutsiz, espazio hau ez litzateke monasterioaren eremuaren parte eta muga izango, erreferentzi geografiko bezala aipatuko litzateke soilik, honen gainean Uzturre aurkitzen dela adierazteko: *alias Uzturre super Lascuren*.



40. IRUDIA. San Salbatoreko dokumentuan agertzen diren hainbat toponimoren kokapen posiblea: Verasibia, Laskuren, Uzturre eta Galarraga
Google maps (mapa moldatua)

Alius-ek, “bestetik” adieraziko luke, hau da, behin monasterioaren iparraldeko muga markatu ondoren -Galarratik *Orerurte/Orerarte-ra* joango litzatekeena-, mendiko espazio hau gehitzen zaiola, monasterioaren jabetza izanda ere honen mugetatik kanpo aurkituko litzatekeena. Uzturre mendiaren hedadurak azalduko luke mendi honen barruan eremu zehatz bat zehazteko beharra, hau *super Lascuren* formularekin lortuko litzatekeelarik, hau da, egungo Tolosaren goialdean aurkitzen den eremuari erreferentzia eginez.

Galarragatik Orerurte/Orerartera doan iparraldeko muga Elduarain ibaiak markatu zezakeela kontsideratzen dugu, Galarragaren azpitik Tolosarantz zuzentzen dena, Oria ibaira iritsi arte.



41. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren iparraldeko muga posiblea
IGN-ko mapa moldatua (mapa moldatua)

Behin goiko zatia definitua, monasterioaren beheko partea deskribatzen da.

...de alia parte inferiorem, uel de Ainarte de Areiznabar, sub de Arzagudum,
usque Verasibia, in finem mazaneto de senior Garcia Acenariz.


Pasarte hau *Ainarte de Areiznabarren* hasten da. Aipatu dugu ezinezkoa izan zaigula *Ainarte* toponimoa jasotzen duen dokumenturik zein egungo toponimiarik topatzea, baina *Areiznabarri* dagokionean, kokapen posible bat finkatu dugu. Leaburuko mendi eremu bati buruz ari gara, egun oraindik Aznabar izena kontserbatzen duena eta Tolosako Jabetza Erregistroan identifikatu duguna. Agiri honetan agertzen den deskribapenak bertako landarediaz hitz egiten digu, lur hauetan haritzak, garoa eta ote zuria jaiotzen direla zehatzuz. Honek mendi-ustiapeneko espazio batean pentsatzera eramatzen gaitu, behean ikus dezakegun irudiak ere hipotesi hau berresten duelarik.



42. IRUDIA. Leaburuko Aznabar mendi eremua (irudiaren ezkerraldean Belauntza)
Google maps (mapa moldatua)


Aipatutako agirian eremu honetan aurkitzen den lursail bat aipatzen zaigu – Aiznaar- eta, honen mugak zehazteko orduan, ekialdean Gazteluko lurrak dituela aipatzen da: *por Oriente an los terrenos del lugar de Gaztelu.*

Beheko mapan ikus dezakegun modura, Baratzerreka da Leaburu eta Gazteluko udalerrien arteko mugarri lanak egiten dituena.



43. IRUDIA. Leaburuko Aznabar terminoa Baratzerreka ibaiaren ondoan
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Berdina gerta zitekeen monasterioaren hegoaldeko mugarekin, hau da, honek ere Baratzerreka zedarri modura izatea. Beheko mapan ikus dezakegun bezala, Baratzerreka, Magdalena errekaren adar bat da eta azken hau, aldi berean Araxes ibaiarena.



44. IRUDIA. Baratzerreka ibaia, Araxes ibaiaren ibaiadarra
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Modu honetan Altzoraino iritsiko ginateke, Araxesen beste ibaiadarra den Sasiain errekaren bitartez.

Puntu honetan, Olazabalgo dokumentuak markatuko liguke hurrengo urratsa: *sub de Arzagudum*. Aipatu dugu toponimo hau egungo Arzadunekin identifikatu behar dugula eta hau, XV. mendeko dokumentazioan, Altzo muinoko Santa Maria parrokiari atxikita agertzen dela, ez San Salbatorekoari. Honek azalpen logiko bat izango luke *Arzagudum* –Lascurennetik gertatzen zen modura- erreferente geografiko modura hartzen badugu, hau da, monasterioaren muga *Arzadugumen* azpitik pasako litzatekeela konsideratzen badugu, espazio hau monasterioko lurren jabetzatik kanpo geratuz.



45. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren hegoaldeko muga posiblea, Leaburuko Aznabar terminotik San Salbatoreraino
Geoeuskadi (mapa moldatua)


Olazabalgo dokumentua irakurtzen jarraitzen badugu, hurrengo toponimoak Verasibiaraino eramatenean gaitueta ikusiko dugu.

...usque Verasibia, in finem mazaneto de senior Garcia Acenariz

Aurreko atalean aipatu dugu nola Alegia eta Tolosako mugan dauden Berazubi baserriak baino, Tolosako izen bereko auzoa konsideratzen dugun, kokapenari dagokionean, aukera aproposagoa. Gauzak horrela, Arzadugumen azpitik Berasiviaraino doan bide natural batekin topo egiten dugu: Oria ibaia.

Zalantza, hemen, Verasibiari egiten zaion erreferentzian legoke. Testuak *usque Verasibia* dio, baina zehazteke geratuko litzateke monasterioaren luren barruan sartzen den edo soilik muga bezala aipatzen den; azken kasu honetan monasterioaren lurrik Verasibiaraino iritsiko lirateke, baina hau barne hartu gabe.

Honi, gainera, *in finem mazaneto de senior Garcia Acenariz* esaldia gehitu beharko genioke. Honek, hala ere, auzia konpontzetik urrun are konplexuagoa egiten du. Non egongo litzakete jaun Gartzearren sagastia? Aukera bat sagastia Berasiviako lurretan bertan aurkitzea litzateke. Horrela, monasterioaren zedarritza Verasibiaraino iritsiko litzateke, zehazkiago esateko, jaun Gartzearrak lur hauetan duen sagastiraino, eremu hau monasterioarenak diren lurretatik ezberdinduz.



46. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren hegoaldeko mugaren jarraipena,
San Salbatoretik Verasibiaraino
IGN-ko mapa (mapa moldatua)

Zentzu honetan, interesgarria deritzogu Berasiviako atalean jaso dugun dokumentu bat gogora ekartzea, Gipuzkoako Artxibo Orokorreko agirien artean Berasiviako lursailei buruz hitz egiten dutenen artean topatu dugun lehenengoa, 1640 urtekoa. Obligazio gutun honetan Berasibiako lursail bat maiztertan ematen da 9 urtez, errenta bat ordaintzearen ordez, bertako sagastiak atera, horiekin egurra egin eta hauen lekuan zerealak –garia eta artatxikia- landatzearen truke, hauetatik zati bat maizterrei eman beharko dielarik. Honela dio:

... Que aya de sacar las heredades de Berasibia, que son de los suso dichos y están junto a Yurreamendi, ochocientos y cinquenta pies de mançanos y los demás que se hallaren y echos leyna los aya de poner en casssa de la dicha doña María... Y desde luego para cuando sacare los dichos mançanos y cumpliera con lo que queda referido, las dichas heredades las toma y recibe en el arrendamiento para tiempo de nuebe años. Con condición que por el primer año no aya de pagar cosa alguna y se le aya de descontar demás de los dichos dos reales de a ocho de renta del dicho primer año por el trabajo de sacar y hacer leyna los dichos mançanos. Con condición que en los otro años les aya de dar a los dichos don Martín y doña María catorze anegas de trigo y doce de mijo en cada año⁸².

⁸² AGG-GAO PT226: 243 r. 1640 urtea.

Testu honek Berasibako lur baten ustiapan aldaketa agerian uzten du, ordurarekin landatuta zeuden sagastiak atera eta hauen lekuak zerealak landatuz. Hortaz, lur hauek sagastiak landatzeko espazio aproposa izan zitezkeela ikusi dugu.

4.2. Aralarreko ondasunak


Monasterioaren lurrardearen zedarriztearen ondoren Aralarren kokatu behar dugun pasarte bat dator segidan.

Aralarre: Hezizazaual, alia Hezizaray cum Arrandari Sansoiz.

Zehaztu dugu dagoeneko non aurkitzen diren esaldi honetan jasotzen diren *Hezizazaual* eta *Hezizaray* toponimoak, egungo Zabalegi eta Etitzegi mendietan hain zuzen ere; baina hainbat aspektu geratu zaizkigu azterzeke, hala nola, espazio hauen kokapena monasterioarekiko edo bertan burutu zitekeen ustiapan mota.

Beheko irudian Etitzegi eta Zabalegiren kokapena ikus dezakegu. Batetik bestera 2,3 bat kilometroko distantzia dago Ierro zuanean.






47. IRUDIA. Aralar mendiko Etitzegi eta Zabalegi parajeak
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Bi paraje hauen artetik Arritzagako ibaia igarotzen da, bide luze bat egin ondoren, Alegiatik gertu, Oria ibaiarekin bat egiten duena.

Zabalegitik San Salvatorera dagoen distantzia 8,5 km ingurukoa da lerro zuzenean.



48. IRUDIA. Aralarreko Etitzegi eta Zabalegitik San Salvatorera dagoen distantzia
Google maps (mapa moldatua)

Espazio hauek abeltzaintzari lotuak egon dira tradizionalki, ugariak direlarik paraje hauetan aurki daitezkeen borda eta saroia. Etitzeko saroia, Etitzegiko mendixkaren eta Bizutsako saltoaren artean aurkitzen dena, Uzkuiti mendiaren iparraldean. Egun hondakinak baino ez dira kontserbatzen. 975 metroko altueran aurkitzen da (LIZARRALDE, MILLÁN: 1982, 42).

Etitzegiko saroia, izen bereko mendixka baina lehenago aurkitzen da, honen mendebaldean. Pixka bat gorago, ia muinora iristean, beste txabola batekin topo egingo dugu. 1.145 m-ko altueran aurkitzen da (*Ibid.*).

Zabalegin ere badaude hainbat txabola eta saroe. Horietako batzuk mendiaren ekieldean aurkitzen dira, 1.070 m-ko altueran (*Ibid.*, 43). Hauez gain, Larrondo izeneko eremu malkartsu batean, hainbat larre aurkitzen dira, Zabalegi mendiaren iparraldean, hainbat borda ere ikus daitezkeelarik. Hemendik gertu Otaskar aurkitzen da, Inpernuko errekaren hasieran, betiere Zabalegi mendiaren iparraldean (*Ibid.*, 178).

Honekin guztiarekin pentsa genezake XI mendean ere monasterioaren lur hauek abeltzaintzara zuzenduak egongo zirela.

Horrenbestez, Erdi Aroraino egin behar dugu atzera jarduera horren [artzaintza] aurreneko froga egiaztagarriak eskuratzeko. Hain zuzen, XI. mendearren hasieran (1025) San Juan de la Peña monasterioari egindako hainbat ondasunen dohaintza azaltzen da agirietan, eta hor kokatutako hainbat ondasun aipatzen dira ("Haralarre heziza zaval, alia hezi çaray). Ondasun horiek bat datozen gaur egungo Etitzegi azpia eta Etitzegi parajeekin. Dokumentuak ez du zehazten egiaz artzain-saroia direnik, baina zalantza gutxi dago horren gainean (MORAZA: 2010, 53 or).



4.3. San Salbatore inguruko lursailak

Hurrengo pasarteak Altzora garamatza berriro ere, bertan aurkitzen baitira *Ugarte, Zuaznabar eta Ossavio.*

Mazaneto de Ugarte, Zuaznabar cum Ossavio de medio mazaneto

Toponimoen identifikazioari dagokion atalean ikusi dugu Ugarteren kokapena egungo Ugarbesaietsen bilatu beharko genukeela. Beheko irudiari erreparatzen badiogu, baso eremu bat dela ohartuko gara. Honi, espazio hau maldan aurkitzen dela gehitzen badiogu, bertan nekazal produktuak lantzeko eremu desegokia dela agerian geratzen da. Olazabalgo dokumentuan Ugarteko sagastiaz hitz egiten zaigu, ustiapen mota aproposagoa paraje honetan landatzeko.



49. IRUDIA. Ugarbesaiets mendi-eremua (Altzo)
Google maps (mapa moldatua)

Ikusi dugu nola egungo Zuaznabar aldea auzoak Altzoko udalerriaren eremu handi bat hartzen duen. Honetatik espazio zabal bat baso-lurrik dira, Ollagon mendiaren gehingoa eremu honetan sartzen baita. Baino XI. mendeko Zuhaznabarrek izan zezakeen kokapena ulertze aldera, egun Zuaznabar izena daramaten etxeek okupatzen duten eremua aztertu beharko genukeela konsideratzen dugu,

toponimoaren kokapen originala bertan egoteko aukera handiagoak eskaintzen dituelako.



50. IRUDIA. Altzoko Zuaznabar auzoko etxeen kokapena (laranjaz)
Google maps (mapa moldatua)


Goiko irudian agerian geratzen denez, Zuaznabar etxeen inguruko eremua nekazal-lurren ustiapenera bideratua dago. Zentzu honetan azpimarratzekoa da Olazabalgo dokumentuak *Zuhaznabarrek* izan zezakeen izaerari buruz ez duela aipamenik egiten:

Mazaneto de Ugarte, Zuaznabar cum Ossavio de medio mazaneto

Argi dago Ugarte sagasti bat dela eta, interpretazio konplexua eskaintzen duen arren, badirudi Otsabioko sagasti erdi bat ere aipatzen dela. Ze ustiapen mota burutzen zen *Zuhaznabarren*? Testuak ez digu aztarnarik ematen. Labore lanak burutuko ziren dagoeneko eremu honetan XI mendean? Hala ere, kontutan izan behar dugu Olazabalgo dokumentuko pasarte honetan jasotzen den esaldia ez dela batere argia eta beste interpretazio posibleak ere zilegi direla.


Bestetik, aipagarri da monasterioaren lurrardearen mugarekiko hurbiltasuna. Esan beharra dago proposatu dugun muga hau behin behinekoa dela, lan-hipotesi baten ondorio, eta ez dugu baztertzen etorkizuneko ikerketek zedarritze hau aldatu edo zehaztea. Hala ere, monasterioaren muga hau hegoalderago finkatzeak ez luke, gure ustez, zentzurik izango, *Zuhaznabarreko* lurrak barne hartuko lituzkeelako eta, hortaz, *Zuhazanabarri* egindako aipamenak ez lukeelako zentzurik izango.

Beheko irudian ikusten dugun bezala, agerikoa da nekazal-lurren eremuaren eta Otsabio mendiaren lurren arteko muga. Gauzak horrela, zentzua hartuko luke Zuhaznabar cum Ossavio de medio mazaneto esaldiak, Zuhaznabarreko espazio lauari, mendi eremuko sagasti baten erdia gehitzen zaiola ulertzen badugu.



51. IRUDIA. Otsabio mendiaren bista orokorra
Google maps (mapa moldatua)

Beheko mapan, aipatutako Ugarte, Zuaznabar eta Otsabioko sagasti erdiaz gain, zedarritzean zeharka aipatzen diren Uzturre eta Gartzia azenarizen sagastia gehitu ditugu ere, monasterioaren inguruko lurrik bere osotasunean ulertzeko.



52. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren inguruko lurra
IGN-eko mapa (mapa moldatua)


4.4. Semeen dohaintzak

Aurreko ondasunak Azenariz senar-emazteak dohaintzan ematen baditu bere arimen salbazioa lortzeko, modu berean egingo dute hauen semeek ere, Munio eta Enekok, aztertzena goazen pasarte honetan. Tradizio historiografikoari begirada bat botatzen badiogu, egile guztien adostasuna lortu du semeak dagoeneko hilda daudela esaten duen teoriak eta hauen ama, andre Gailak, dela dohaintza hau haien izenean egingo duena. Hala ere, testua ez da batere argia zentzu honetan.

Senior Enneco garciaiz pro sua anima posuit partes de Munio Garziayz menore, que comparaui villa que dicitur Haya, et Helcanno, et mazanetos, bakas comparaui suo uita, tradidi dona Gailla de anime Enneco Garziayz alias mazaneto de Ezquiaga, et terra Iturrioz de Gurtia.

Aia eta Elkanori dagokionean bi herri erreferentzia egiteko aukera proposatu dugu; *villa que dicitur Haya, et Helcanno*, esaldia hartzen badugu zaila da testuan esaten denean oinarrituz Elkanoren izaera zein izan zitekeen zehaztea, baina konplexua litzateke Haya Ethelcanno herri bakarra denaren teoria onartzea edo Llorentek aipatzen

duen “Haya de Elcano” mapa batean islatzea. Bestetik hainbat sagastiri egindako aipamena gehitzen da, baina hauek non kokatzen diren zehaztu gabe, dokumentuaren deskripzio-logika hautsiz, gainontzeko sagastiak izen batez (*mazaneto de Ugarte, mazaneto de Ezquiaga...*) edo jabetzaren aipamenaren bidez (*mazaneto de senior Garcia Acenariz*) zehazten baitira. Kuriosoa da, bestetik, jarraian datorren aipua, “VI bakas” bezala transkribatua izan dena, baina hainbat zalantza sorrarazi dituena.



53. IRUDIA. Liburu Gotikoan gortzen den kopian jasotzen den “VI bakas” aipua Zaragozako Liburutegi Unibertsitarioa, *Liburu Gotikoa*, 75v-76r.

No creemos que deba transcribirse bakas (Llorente: *sex vacas*). Aparte de que sería la única mención de ganado en el documento (limitado a indicación de territorios) existe un signo de abreviación evidente tras la *b* inicial, tanto en el Libro Gótico como en el del AHN (AGUD: 1968, 326).

Ohikoa izaten da monasterioek urrutiko ondasunak jasotzea, sarri kudeatzeko oso problematikoak izaten direnak. Hauek emalearen borondatea adierazten dute, eta baita erosketen programa bat ere, baina honi erantzuna ematetik urrun gaude oraindik.

Aia eta Elkanoren aipamena egin ondoren, Olazabalgo monasterioaren inguruan jarraitzen du deskribapenak, hemendik gertu aurkitzen baita Ezkiaga sagastia. Aurreko atalean bi kokapen posible planteatu ditugu toponimo honentzat, Lizartzaren hegoaldean aurkitzen den parajea eta Gaztelun dagoen Ezkiagaenea baserria.

Gainontzeko toponimoen kokapena aztertu ondoren, bigarren aukera iruditu zaigu aproposena, Aznabarrekiko duen kokapena oso adierazgarri iruditu baitzaigu.

Beheko mapari reparatzen badiogu, bi espazioak, Aznabar eta Ezkiagaenea, monasterioaren muga izan zitekeela planteatu dugun Baratzerrekak banantzen dituela ohartuko gara.



54. IRUDIA . Aznabar parajea (Leaburu) eta Ezkiagaenea baseria (Gaztelu)
Geoeuskadi (mapa moldatua)

Beheko irudian agerian geratzen denez, Ezkiagaenea mendi eremua da, baso eta nekazal lurrik tartekatzen direlarik. Espazio honetan konsideratzen dugu kokatu beharko genukeela Ezkiagako sagastia.



55. IRUDIA: Ezkiagaenea baserriko (Gaztelu) mendi ingurua
Google maps (mapa moldatua)

Ondasunen deskribapenenaren amaieran *Iturrioz de Gurtia* aipamena topatzen dugu. Toponimo hau besteetatik ezberdintzen da *tierra* izenaz lagunduta joateagatik, *tierra Iturrioz de Gurtia*.


Tradizionalki Aiako udalerrian aurkitzen den Iturriotz parajearekin identifikatu izan da, dokumentu honetako ondasunak transhumantzia bidearekin erlazioan jartzen duen teoria indartuz.

A pesar de la abundancia del topónimo “Iturriotz” en toda la zona vasca, y a pesar del desconocimiento que por el momento se tiene sobre la localización de “Ezquiaga” y de “Gurtia”, nos inclinamos a fijar esta tercera porción de la donación al monasterio de San Juan en la zona donde los pastores trashumantes efectúan su parada, antes de dividir los rebaños para el aprovechamiento de los pastos invernizos de la franja litoral, condicionados por la bifurcación que presentan los nervios montañosos desde el Macizo de Hernio hacia el norte. La tipología de los datos que nos han inclinado a esta identificación es muy variada (BARRENA: 1989, 82-83).

Gure apustua, baina, bestelakoa izango da, aurretik ikusi dugun modura Gipuzkoako Artxibo Orokorreko hainbat agiriren azterketak Olazabalgo monasteriotik gertuago aurkitzen den Iturriotz izeneko eremu bat identifikatzea ahalbidetu baitu eta, are garrantzitsuagoa dena, espacio honetatik gertu *Gurria* izeneko paraje baten existentzia planteatzea posible egin du.


Iturrioz de Gurria bezala ezagutu zitekeen paraje hau Galarraga eta Aznabarren artean kokatuko litzateke, hau da, monasterioaren zedarriztearen goiko eta beheko parteak hasten diren lekuenean artean. Espazio honetan hutsune bat legoke, monasterioaren mugak ez liratekeelarik erabat finkatuta gertatuko, baina *Iturrioz de Gurria* bertan kokatzeak arazoa konpon lezake.





56. IRUDIA. "Iturrioz de Gurtia"-ren kokapen-proposamena
Google maps (mapa moldatua)

Hala ere, esan beharra dago zaila dela honen kokapen zehatza non finkatu beharko genukeen zehaztea eta, batez ere, zein hedadura izango lukeen jakitea. *Tierra* terminoak zein errealitate ezkutatzen duen ere erantzuteke geratuko litzateke.




57. IRUDIA. Semeek dohaintzan emandako lurra
IGN-ko mapa (mapa moldatua)



4.5. Monasterioaren lurraldea eta inguruko ondasunak

Aztertu ditugu toponimo bakoitzak eskaintzen dituen kokapen posibleak eta hauen artean monasterioaren lurralte-logikaren barruan hoheren txertatzen direnak aukeratu ditugu.

Monasterioaren eremuaren zedarrizteari dagokionean, goiko -iparraldeko- eta beheko -hego eta mendebaldeko- muga zehazteak ondoren ikusi dezakegun espazio definitu du.



58. IRUDIA. San Salbatore dokumentuko toponimoen kokapen-proposamena eta monasterioaren zedarrizte posiblea

Aipatzekoa da dokumentuak jasotzen dituen toponimo kopuru handiaren aurrean, gutxi batzuk baina ez direla monasterioaren muga definitzeko erabiltzen. Hauen artean *Galarraga* eta *Orerurte* –hau ezin izan dugu mapan kokatu- dira monasterioaren iparraldeko muga definitzen dutenak; eta *Ainarte de Areiznabar*, *Arzagudum* eta *Verasibia* monasterioaren hegoaldeko eta mendebaldeko mugak zedarritzen dituztenak. Azken hauen artean esan beharra dago *Arzadugum* ez dela monasterioaren parte, erreferentzi geografiko bezala soilik erabiltzen dela, antzekoa gertatuko litzakeelarik seguruenik *Verasibiarekin*, kokapen hau aipatzen

baita beheko mugaren azken puntu bezala, baina ez da zehazten hau ere barne hartzen duen ala kanpoan geratzen den.

Deigarria da, bestetik, monasterioaren goialde eta behealdeko mugak ez direla erabat ixten. Alde batetik Verasibako espazioa geratuko litzateke ondo definitu gabe, baina litekeena da dokumentuan aipatzen den jaun Azenarizen sagastia izatea zedarri hau finkatzen lagunduko lukeen erreferentzia. Antzekoa gertatuko litzateke *Gaharraga* eta *Ainarte de Areiznabarren* artean geratzen den espazioarekin, kasu honetan badirudi Eneko Gartzaren lursail bat izango zela eremu honetan mugarri lanak egingo zituena, *Iturrioz de Gurria*.



59. IRUDIA. Gartzia Azenarizen sagastiak eta Iturrioz de Gurtiako lursailak osatzen duten eremuaren zedarritzea
IGN-ko mapa (mapa moldatua)

Gainontzeko ondasunen artean beste hiru sagasti aipatzen dira, *Ugarte*, *Ossavio* – sagasti erdia- eta *Ezkiaga*. Hiru kasuetan egun baso-lurrik direla ikusi dugu, toki aproposak izan zitezkeelarik bertan sagastiak landatzeko. *Zuhaznabar*, aldiz, nekazal ustiapenerako egokiagoa izan liteke.

Uzturreko eremua abeltzaintzari zuzendua zegoela pentsa genezake. Honi Aralarreko saroeak gehitu beharko genizkioke, urtaroren arabera animaliak mendi batera ala bestera eramanez. Honen harira, aipagarria da J.R. Díaz de

Durana eta J.A. Fernández de Larreak Behe Erdi Aroko Gipuzkoako abeltzaintzaren inguruan argitaratutako lana.

...el caso guipuzcoano, ejemplo representativo de las áreas de influencia cantábrica, que se caracteriza por una ganadería no trashumante, trasterminante, apoyada en movimientos de corto radio entre los seles veraniegos e invernizos, dentro del propio valle o de sus inmediaciones (DÍAS DE DURANA, FERNÁNDEZ DE LARREA: 2002, 43).

Honez gain, egile hauek, garaiko dokumentazioan oinarrituz, abeltzaintzaren oinarrizko animaliak behiak izango liratekeela konsideratzen dute, ardiaren presentzia arraroagoa izanik.

El ganado era fundamentalmente vacuno: las referencias documentales son abrumadoras a su favor. Son abundantísimas las menciones documentales a los robos de ganado vacuno en la frontera navarro-gipuzcoana desde el siglo XIII (*Ibid.* 45 or).

Zentzuzkoa litzateke pentsatzea bi mende lehenago ere behi-azienda izatea abeltzaintzaren oinarri.

Hala ere, beti gogoratu behar da askotan lur baten gainean zenbait erabiltzailerentzako eskubideak elkarri gainjartzen zaizkiola. Hau da, Osabioraino iristek, adibidez, ez du esan nahi mendiko parte batean Olazabalek soilik dituela eskubideak, baizik eta han eskubideak dituela, baina agian ez berak bakarrik. Agian Olazabalek artaldeak (edo behitaldeak) eraman ditzake, baina ingurukoek eskubidea dute egur hila eta gaztainak hartzeko, edo egurra mozteko, edo denek eraman dezakete ganadua baina batzuek ilundu baino lehen batu behar dute eta beste batzuek saroia izan ditzakete, edo batzuek luberriak egin ditzakete eta beste batzuek ez. Milaka errealitate ekonomiko egon daitezke mugaketa baten azpian.

Hori bai, hemen horrez gain beste osagai bat badagoela pentsatu behar dugu: Olazabalen mugek badute izaera “sakratua”⁸³ ere bai, Kristorenak (San Salbatore dan lehen adbokazioa) eta santuenak baitira. Eta hori gutxi balitz, monasterioaren kudeatzaileak jende garrantzitsuak dira, lagun interesgarriak eta etsai arriskutsuak. Bada beraz eragile bat lurrealde mailan gainerako nekazariek edo herriek baino zerbait gehiago daukana.

⁸³ cf. Didier Méhu, *Paix et communautés autour de l'abbaye de Cluny (X^e-XV^e siècle)* (Lyon : Presses Universitaires de Lyon, 2010)



Azkenik, Olazabalgo dokumentuan herriei egiten zaizkien erreferentziak dira aipagarri. Segurua den bakarra Aiakoa da, baina aipatu dugu Elkanok ere habitat izaera izan zezakeela. Bestetik, zeharka agertzen diren *Arzagudum* eta *Lascuren* ekarri behar ditugu gogora, erreferentzia geografiko bezala soilik aipatzen direnak, monasterioaren parte izan gabe. Egun Altzo eta Tolosako herriak aurkitzen ditugu espazio hauetan baina zaila da, beste aztarnarik ezean, XI. mendean dagoeneko existitzen zirela frogatzea.



5. ALTZOKO OLAZABAL LEINUA ETA SAN SALBATORE PARROKIAREN PATRONATUA

5.1. Altzoko errotak

Altzoko Olazabal leinuaren inguruan dugun lehenengo erreferentzia 1417koa da, 1620 kopia batean kontserbatzen den arren⁸⁴. Dokumentu honetan, *Arzagudum* toponimoaren atalean adierazi dugun modura, Altzoko familia nagusiak agertzen dira bi taldean banatuak, haietako bakoitzari dagokion parrokiaren arabera (Santa Maria edo San Salbatore). Auziaren hirugarren partea Olazabal etxeko jaunak osatuko luke, Joan Fernandez de Olazabalek hain zuen ere. Aipagarria da, bestetik, udalerriko bi eremuak ezberdintzeko ez direla oraindik Altzo muino eta Altzo azpi terminoak erabiltzen, parrokiak direla momentu honetan erreferentzia. Honez gain testuko pasarte batean *los dichos lugares Alço e Olaçabal* aipatzen da.

Testuan, Olazabalgo jaunak, alde batetik, eta Altzoko bi parrokietako biztanleak, bestetik, sinatutako akordio bat jasotzen da. Honen arabera, Joan Fernandez de Olazabalek errota bat eraiki zuen bere etxearen aurrean; Altzoko biztanleak errota hori baliatu nahi zuten ehotzeko, Altzon ez baitzegoen beste errotarik. Trukean Altzoko biztaleek beren ale guztia Olazabalgo errortan ehotuko zutela adostu zuten, jarduera honek sortuko zituen errentak erdibana partekatuz Olazabalgo jaunaren eta errotara ehotzera joaten ziren biztanleen artean.

Akordioa adostu eta 43 urte beranduago, 1460an, auzi berri bat jasotzen da erroten inguruan⁸⁵. Bigarren itun hau 1506ko kopia baten bidez jaso dugu. Aldi honetan, Olazabalgo etxearen ordezkari bezala Ochoa Fernandez de Olazabal aurkituko dugu, aurreko dokumentuko jaunaren, Joan Fernandez de Olazabalen, semea. Biztanleei dagokienean, Olazabalgo San Salbatore eta Altzoko Santa Maria kolazio eta elizateko biztanle modura aurkezten dute euren burua:

...beznos y moradores y abitantes que somos de las colaciones e
anteyglessias de San Salvador de Olaçaval y Santa María de Alço, bezindades
que son de la villa// de Tolossa.

⁸⁴ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la iglesia. 44.10: 3r-3v. (eranskinetako 5. dokumentua).

⁸⁵ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la iglesia. 44.10. 21r-35v. (eranskinetako 6. dokumentua).




Dokumentu beraren beste pasarte batean *vniuersidades de Alço y de Olaçabal* aipatzen da.

Lehenengo akordioan finkatzen ziren baldintzen artean, Olazabalgo jaunak, egoerak hala eskatuz gero, errota gehiago eraikitzeko konpromezua hartzen du. Bigarren dokumentuan aipatzen denez, Altzoko biztanleriak gora egin zuen eta hasierako errota ez zen nahikoa jendearen eskariari erantzuteko. Gauzak horrela, Ochoa Fernández de Olazabalek bigarren errota bat eraiki zuen, Amaosina ibaian. Biztanleak, baina, kexu ziren, bertara ehotzera joateak gastu eta neke asko suposatzen zuelako eta, honez gain, Olazabalgo jauna hainbat auzitan sartuta ibili zelako errota honen kontura, Alegiko kontzeju eta jaunekin zein beste hainbat pertsonekin.

Honekin guztiarekin, Altzoko biztanleek Olazabalgo eremuan bigarren errota bat eraikitza eskatzen dute, modu horretan haien produktuak ehotzea erratzuz. Olazabalgo jaunak eskariari erantzutea agintzen du.

Aipatutako bi agiriak (1417 eta 1460ko akordioak jasotzen dituztenak) *Molinos de Alzo* izenburutzat daraman liburu batean jasotzen dira.



60. IRUDIA. “Molinos de Alzo” izenburua daraman liburua, Altzoko patronaturen inguruko XV eta XVI mendeko dokumentuak gordetzen dituena
Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA. Relaciones con la Iglesia. 44.10)

Liburu honek hirugarren dokumentu bat ere gordetzen du, 1547koa⁸⁶. Bertan Joan Ochoa de Olaçabal-ek, San Salbatoreko patroi bakar bezala aurkeztua, bere anaia,

⁸⁶ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la Iglesia. 44.10. 56r-56v (eranskineko 10. dokumentua).

Joan de Olaçabal, proposatzen du hutsik geratutako bikario postua betetzeko. Momentu honetarako, hortaz, Olazabal leinuak San Salbatore parrokiaren patronatuaren gaineko eskubidea duela agerian geratzen da, baina, ze momentutan egin ziren honen jabe?

5.2. Olazabalgo patronatua

Auzi honen inguruan kontserbatzen dugun dokumentu zaharra da⁸⁷. Zabala etxeko artxiboan aurkitzen da, jarraian ikusiko ditugun beste hainbat dokumenturekin zein hemen jasotzen ez ditugun beste hainbatekin batera, San Salbatore parrokiaren patronatuaren inguruko agiriak biltzen dituen dokumentu-sorta batean. Liburuaren azalean hurrengo azalpena irakur daiteke: *tratan del patronato de Alzo, y de las obligaciones del rector y del beneficiado.*

1466koa liburu honetako lehenengo dokumentua ez den arren, bertan jasotzen direnen artean zaharra da. Dokumentu sorta 1498 agiri batekin hasten da, bertan Juan Ochoa de Olazavalek bere semea den Oger de Olazaval izendatzen du San Salbatore elizako errektore, azken honek, Pascoal de Arramele defuntuaren lekua bete dezan. Izendapena San Salbatore parrokian burutu zen, Altzoko eliztarren aurrean. Dokumentuan ukaezina dirudi Olazabaldarren eskubidea elizaren patronatuari dagokionean:


Et que al dicho Joan Ochoa, como vnico patrón et presentador de ella, competía et pertenecía la nombración et presentación del dicho rector futuro, subcesor del dicho don Pasqual, at así mismo competía et pertenescía al dicho Juan Ochoa, et a sus herederos et subcesores.

Olazabaldarren estatus hau, baina, urte batzuk lehenago zalantzhan jarria izan zen hainbat Altzotarren aldetik.

Bertan biltzen diren eliztarren abizenei erreparatzen badiegu Altzoko zortzi etxe identifika daitezkeela ohartuko gara: Yzaguirre, Yarza, Jauregui, Jauregui Goyena, Jauregui Barrena, Zuaznabar, Oyarbide eta Ypentza. Gorago ikusi dugun modura, 1417an erroten inguruan sinatzen den akordioan etxe hauetako gehienak aipatzen ziren dagoeneko. Bi etxe gehituko dizkiogu 1417ko datuekin osatuta geneukan mapari: Yarza eta Oyarbide. Nagera etxea ez dugu identifikatu.

⁸⁷ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la Iglesia. 44.11 (eranskineko 7. dokumentua).





61. IRUDIA. Olazabalgo patronatuaren inguruko XV mendeko dokumentuetan agertzen diren eliztarren etxeak
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)

Mapan agerian geratzen denez, aipatutako eliztarren zerrenda eta, ondorioz, hauen etxeak, Olazabalgo eremuan aurkitzen dira. Hala esaten da testuan bertan:

Estando ajuntados a su junta e concejo, a voz de vecindat, et universitat, et vecinos de la dicha Olazabal, et de la dicha tierra de la dicha Alzo.

Pasarte honetako daturik garrantzitsuena, aldiz, eliztar hauen inguruan egindako aipamenean dator:

...vecinos de la dicha vecindad de Olazabal et Alzo, parrochianos otrosí de la dicha yglesia de señor San Salvador, patronos que por tiempo se quisieron decir et digeron de la dicha yglesia.

Ikusten dugunez, San Salbatore parrokiaren patronatuaren inguruko auzian, dokumentuan esaten denaren arabera, Olazabal eremuko leinu garrantzitsu guztiekin parte hartu zuten, eliztar hauek ere patronatua bere egin nahi izan baitzuten. Datu hau beste agiriren batekin osatu beharko litzake zehazki jakin ahal izateko zeintzuk izan ziren haien burua San Salbatoreko patronu izendatu nahi izan zutenak, baina honek erakusten du gai honen inguruan desadostasunak egon zirela eta, jarraian ikusiko dugun modura, Olazabal leinuaren nagusitasuna San Salbatoreko parrokiaren gainean ez zela XV. menderarte finkatu.

Aurreko aipamenaren ondoren, eliztarrek onartzen dute jakin badakitela afera Zaragozako artzapezpikuaren kontsistorio metropolitikora eramana izan zela, eta oraindik itxi gabea izanik, berriro ere auziari ekin zitzaiola:



...seyendo el dicho pleito reasumpto por los dichos universidad, vecindad et vecinos et parroquianos, especialmente por los que se usó por sus nombres son nombrados, et cada uno de ellos pretendiendo et deciendo ser patronos de la dicha parroquial yglesia, e de la otra parte, los dichos Ochoa de Olazabal et don Pascoal de Arramele, apelantes, todos vecinos de la villa de Tolosa.

Baina, jarraian, eliztarrek beren eskaeran atzera egiten dute:

...et por quanto digieron los sobredichos, como concejo et vecindat et vecinos, especialmente los suso nombrados por sus nombres et cada uno de ellos, que ellos, havido deliberado consejo con letrados, havían seído informados de cierta et verdadera ynformación que ellos non havían, nin les pertenescía derecho alguno al dicho *yus* patronago, et que injusta et non devidamente litigarán el dicho pleito en el // dicho consistorio...

Ez da zehazten zein den iritzia aldatzera eraman zituen informazio hori, *havido deliberado consejo con letrados, havían seído informados de cierta et verdadera ynformación que ellos non havían*. Aurreko dokumentu batean ikusi dugunez, sei urte lehenago, 1460an, erroten inguruko bigarren akordio bat sinatzen dute Altzoko biztanelek Olazabalgo jaunarekin, Amaosina ibaian zegoen errota lekuz aldatzeko eskatuz. Izan liteke eskaria onartzeko baldintza bat patronatua eskuratzeko auzian atzera egitea?

Bestetik, auzi honetan ez da Olazabalgo dokumentuaren aipamen zehatzik egiten, baina dokumentuan beran, AHN-ko kopiaren atzealdean, *donatio molendini de Ollazabal* agertzen da agiriaren azalpen modura. XIII-XIV mendeetan kopia tua izan zen dokumentu hau erabilia izan ote zen mende inguru beranduago erroten inguruko jabetza finkatzeko? Edo bestela, XV mende aurretik egon al zen erroten inguruko beste liskarrik?

Hortaz, irizi aldaketaren arrazoia zein izan zen zehaztea zaila den arren, argi geratzen dena da momentu horretatik aurrera aho batez onartuko dutela eliztarrek Ochoa de Olazabal dela San Salbatore parrokiko patroi bakarra, eta berak soilik izango duela eliza honetakoa karguak izendatzeko eskumena.

...seyendo único, solo et verdadero patrón de la dicha yglesia el dicho Ochoa por sí et por sus antecessores.

Urte bat beranduago, 1467an, Altzoko *Ollagudum* (egungo Ollagon) izeneko eremuan bildu ziren, aurreko auzian finkatutakoa berresteko asmoarekin.



...seyendo y presentes don Martín de Zuaznabar, clérigo preste de missa et Miguel de Estanga, capero, et Joan López de Legarra, et Martín de Ypenza, parroquianos de la yglesia parroquial de San Salvador de Olazabal, que es en la dicha tierra de Alzo, patronos que por tiempo se quisieron decir et digieron al la dicha yglesia de San Salvador, de la una parte.

Kasu honetan badirudi Joan López de Legarrari eta Martin de Ypenzari egozten zaiela San Salbatoreko parrokiaren kargua bere egin nahi izatea, baina honek ez du esan nahi beraiek izan zirenik bakarrak. Ochoa de Olazabal eta Pascoal de Arramele ere bilkura honetan aurkitzen ziren.

Agirian, 1466ko dokumentuan aipatutako auzia azaltzen da berriro ere, dokumentu horretan agertzen zen edukia berriro ere jasoz. Nabaria da, hortaz, dokumentu publiko honen helburua, aurreko dokumentuan Olazabalgo eliztarrek esandakoa berrestea dela.

...don Martín de Zuaznabar , et Miguel de Estanga, et Joan López de Legarra, et Martín de Ypenza, parroquianos de la dicha yglesia de San Salvador de Olazabal, digieron han corroboración et firmeza del reconocimiento del yus patronago de la dicha yglesia de San Salvador, por ellos, et por cada uno de ellos es hecho, conociendo et confesando ser único et verdadero patrón de la dicha yglesia el dicho Ochoa de Olazabal, por sí et por sus antecesores, et le pertenesce el derecho de presentar rector cada que la dicha yglesia vacare...

Momentu honetatik aurrera Olazabaldarrak San Salbatore parrokiaren patroi bakar bezala agertuko dira dokumentazioan, 1569ko agiri honetan ikusten dugun modura:

...Es a saber yo el dicho Joan Ochoa // de Olaçaval la dicha mi casa y solar de Olaçaval con su patronazgo, juros y rentas y molinos y caserías a la dicha casa principal perteneçientes en qualquier manera.⁸⁸

Parroquia honen patronatuaren inguruko auzia XIX mendean agertuko da berriro ere agirietan. 1806 urtean erretore etxearen inguruko lanak direla eta patronatuaren eskubidea zeini dagokion zehazten da dokumentu batean⁸⁹. Agiriaren egilea zein den aipatzen ez den arren, badakigu mezuaren hartzaileak San Salbatoreko eliztarrok direla. Hauei patronatua zeini dagokion gogorazten zaie:

⁸⁸ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Administración del Patrimonio. 44.3. 294r-294v. 1569 urtea.

⁸⁹ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la Iglesia. 44.11 (eranskineko 11. dokumentua).



Estoi persuadido que la citación fue en nombre de los patronos de esa iglesia, y hallándome bien asegurado que, a lo menos, desde el año 1445, son los únicos, solos, y verdaderos patronos de esa iglesia, los dueños y poseedores de la casa de Olazabal...

Pasartean esaten denez, patronatua 1445 urtean edo lehenago finkatua izan zen. Guk ez dugu urte hortako dokumenturik topatu, goian adierazi dugunez patronatuaren inguruko auziari dagokionean aurkitu dugun dokumenturik zaharrena 1466 urtekoa da. Hortaz, ezin dugu ondorioztatu agiri honetan aipatzen den data okerra den ala 1445 dokumentua ez den gure eskuetaraino iritsi.

Aipagarri da, bestetik, patronatua Olazabal etxearen jabeari dagokiola zehazten dela, ez Olazabal leinuari; izan ere, momentu honetarako Villafuertes-eko kondea da Olazabal etxearen jabe. Pentsa genezake, leinu aldaketak hainbat eliztarrengan patronatua eskuratzeko nahia sor lezakeela eta arrisku honek bultzatuta gogorazten zaiela eliztarrei zeini dagokion parrokiaren gaineko eskubidea. Honen kontra egingo lukeenak jasoko lukeen zigorra ere zehazten da agirian.

Confío que Vuestras Señorías procederán con este conocimiento y no darán lugar a la acción que en virtud de instrumento público otorgado por todos los vecinos y parroquianos de esa iglesia el año 1508, ante Sebastián de Ysasa, número de Alegría, me compete para pedir 200 doblas de oro para cada uno, y cada vez que a los dueños de Olazabal contradigan [vecinos] sobre el patronato y administración de esa iglesia.

Aipatutako leinu aldaketa nabariagoa suertatzen da 1820ko hurrengo dokumentuan, errektore aldaketa finkatzeko helburuarekin idatzia⁹⁰:

... don Manuel José de Zavala Ydiacaiz Alzolaras y Aramburu, Conde de Villafuertes, dueño de la casa y solar de Olazaval, y como tal patrono único y presentador de la iglesia parroquial de San Salvador de Alzo-abajo...

⁹⁰ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la Iglesia. 44.11. (eranskineko 12. dokumentua).



5.3. XII-XIII mendeetako Olazabal: toponimoa ala leinuaren adierazle?

San Salbatore parrokiari erreferentzia egiten zaionean Olazabal izenarekin batera aipatu ohi da. Hala ere, hasierako atalean ikusi dugunez, monasterio honi erreferentzia egiten dioten XI. mendeko lau agirien artean, dohaintzarenean soilik agertzen da *Ollazabal* aipua –*monasterium quod dicitur Ollazabal-*, besteetan *Sancti Salvatoris de Ippuzca* bezala izendatzen da.

Gauzak horrela, ze errealitye ezkutatuko litzateke Olazabal terminoaren atzean? Aurretik aztertu ditugun XV. mendeko dokumentuetan ikusi ahal izan dugunez, Altzo muino eta Altzo azpi izendapenak ez ziren garai hartan oraindik erabiltzen. Honen lekuan: *los dichos lugares Alço e Olaçabal* (1417), *vnibersidades de Alço y de Olaçabal* (1417), *vecinos de la dicha Olazabal* (1466), *vecinos de la dicha vecindad de Olazabal et Alzo* (1466)... Ikusten dugunez, Olazabal terminoak leku bati egiten dio erreferentzia, mugak zehaztea ezinekoa zaigun eremu bati.

Zentzu honetan aztarnaren bat eman diezagukeen XIX. mendeko agiri bat kontserbatzen dugu:

El día 20 de mayo de 1814, se entregaron para aserrar a José de Muñoa, vecino de Alegría los árboles que se hallan cortados en el monte de Olazaval, y se pagará por cada estado lo que regulare Ugartemendia padre.

...

El día 3 de abril de 1815, ajuste cuenta con el mismo Muñoa del segundo aserreo y jornales ocupados en el arreglo de la tabla. Y se pagó en cuenta total con 1.398 reales y 29 maravedís. Y quedó para hacerle la cuenta de lo que ha trabajado para la huerta. Y firmé a 4 de abril del expresado año de 1814.

La porción immediata al río se condujo a Borda.

La porción de arriba, junto a la yglesia.

La última, en la heredad de Olazaval Aundia.


Son , en todo, 393 errados y 29 pies⁹¹

Honen bitartez Olazabal izeneko mendi baten inguruko aipamena jasotzen dugu eta baita hiru erreferentzia ere espazio hau mapa batean kokatu ahal izateko: Borda (ibaitik gertu), eliza eta Olazabal Haundiren lurra.

⁹¹ Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Archivo de la Casa de Zavala. Zavala. Transmisión de bienes. 82.23, 8r. 1814-1815 urteak.



Ondoko mapan ikusten dugunez, badago Borda izeneko eraikuntza bat Altzon, Alegirekin muga egiten duen eremuan, eta, testuan esaten den modura, ibaiaren ondoan aurkitzen da. Olazabal Haundi etxearen kokapenak ez du arazorik planteatzen. Bi puntu hauek erreferentzia bezala hartuta, pentsa genezake dokumentuan aipatzen den eliza San Salbatore parroquia dela.



62. IRUDIA. San Salbatore eliza, Olazabal Haundi etxea eta Borda izeneko eraikuntza
B5map.Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura (mapa moldatua)


Dokumentuan, ibaitik gertu zegoen egurra Bordara eraman zela esaten da, eta gaineko partean zegoena, elizara. Hirugarren zatia non zegoen zehazteko ez da daturik ematen, baina aurreko bi aipamenekin pentsa genezake, parrokiaren zein Bordaren gainaldean geratzen den eremuari deitzen zaiola Olazabal, Ollagon mendiaren magalean.

Hala ere, agiria XIX mendekoa izanik, zaila da finkatzea ze momentutik aurrera deitzen zaion espazio honi Olazabal, baina zentzuzkoa litzateke pentsatzea XII-XIII mendeko kopian San Salvador de Olazabal esaten denean, Olazabalek espazio geografiko bati erreferentzia egiten diola. XV menderarte Olazabal leinuaren nagusitasuna parrokiarekiko finkatua ez egoteak, hipotesi hau indartuko luke.

F. Guevara Ezquiagak (1949) indentifikatu zuen dagoeneko Olazabal terminoa eremu honekin, eta honez, gain, XI. mendeko monasterioa leku honetan kokatzen zela konsideratzen zuen:



Este Monasterio de San Salvador estaba situado, al pie y al poniente, de la colina llamada Ollaon, centro del valle de Tolosa y no lejos de la actual Parroquia de Alzo, de abajo, o de Ollazabal, en el lugar donde se halla una cantera actualmente en explotación: su solar ha desaparecido y sólo se conservan la pila, el pórtico, las puertas y ventanas, repartidas entre las dos Parroquias y caserías de los dos pueblos de Alzo. (GUEVARA: 1949, 90)




63. IRUDIA. Olazabalgo parajean aurkitzen den harrobia.
Google maps (mapa moldatua)

Egile hau ez da XI. mendeko monasterioak beste kokapen bat zuela uste duen bakarra, Llorentek berak ere antzeko zerbait aditzera ematen baitu, dokumentuaren transkribapenaren ondoren gehitzen dituen oharretan:

La iglesia que se trata es san Salvador de Olazabal en la ribera oriental del río Oria, cerca de Alegría de Guipúzcoa. La parroquia de Alzo se titulaba san Salvador, acaso por traslación de la antigua de Olazabal. (LLORENTE: 1807, 353)

Egungo toponimoan ez da Olazabal terminoa kontserbatzen, baina bai Olazabalburu, kasu honetan San Salbatore parrokiaren hegoaldean:



64. IRUDIA. Olazabalburu terminoa (Altzo)
Geoeuskadi. Altzoko udal mapa toponimikoa (2009)

F. Guevara urrunago doa eta, Olazabal, aipatutako eremua baina askoz zabalagoa izan zitekeela kontsideratzen du:


Pero, pasando de conjeturas topográficas a terreno histórico documental, es indudable que el valle del Oria, cerca del actual emplazamiento de Tolosa, se llamó Ollaon u Ollazabal (GUEVARA: 1949, 89).

Hipotesi hau baieztago edo ezeztatzeko zantzurik topatu ez dugun arren, aipatu beharra dago ugariak direla Altzon Ola- aurizkiarekin hasten diren toponimoak. Lehenengoa eta behin aipagarriak dira Olagon mendi eta honen gailurra den Olaun, baita izen bera daraman erreka ere. Altzo muinoren hegoaldean, Alegiko mugaren inguruan: Olaburua, Olagain (Alegia), Olabaso (Alegia) eta Olakaltealdea (Alegia). Ollagon mendiaren hegoaldean: Olaeta (Olaetaldea).



6. ONDORIOAK

Hemen aurkeztu dugun ikerketa lanak Gipuzkoako Goi Erdi Aroko erreferente den Olazabalgo San Salbatore monasterioaren lehen historian sakontzea izan du helburu. Izan ere, honen egoerak, historiagintzaren ikuspuntutik, arazo asko erakusten zituen. Ikuspegi konkretutik, monasterioaren lurraldearen hedadura harrigarriro zabala izateaz gain, dislokatua agertzen zen, hau da, antzeman litekeen egiturarik gabea.



65. IRUDIA. Monasterioaren eremuaren bi proposamenen alderaketa
IGN-ko mapa moldatua


Iturrien perspektibatik, agiriaren bi bertsioen orain arteko edizioak akastunak dira. Horretan, lan paleografikoa eta diplomatikoa gauzatzen ahalegindu gara, baina gogoan izan behar da leku-izenen identifikazio zalantzagarriak berak testuaren irakurketa egoki bat eragozten zuela. Azkenik, tratamentu historiografikoak ere arazoak erakusten zituen: azken azterketa sakonak zenbait urte izan ez eze, egun historiagileen kontzeptu-aparatutik desagertu den paradigma gentiliziotik egina zen.



Impasse egoera honetatik atera ahal izateko, metodo eta informazio-harrobi berri batzuen beharra agerikoa zen. Gauzak horrela, Gipuzkoako Behe Erdi Aro eta Aro Berriko agirietan kontserbatzen den informazioak ikerketa-lerro berri bat ireki zezakeela konsideratu genuen. Espazioen zehazte egokiago batek pistak emango zituelakoan bai monasterioaren lurraldetzea ulertzeko, bai dokumentuaren beraren berrirakurketa errazteko. Aldi berean, Olazabalgo geroko bilakaerak testuinguru kronologiko berri bat emango ligukeelakoan jokatu dugu haren errealitate historikora hurbiltzeko asmoz. Uste dugu helburu hauek bete direla neurri handi batean.

Alde batetik, Olazabalgo dokumentuan agertzen diren toponimo gehienak identifikatzea posible izan da. Zentzu honetan, gure apostu metodologikoaren pertinentzia eta beraz, Gipuzkoako Artxiboetan kontserbatutako informazioa aurreko garaietako arazoak tratatzeko baliagarria dela, egiatzatuta geratu da. Identifikazioaren ondorioz monasterioaren menpeko lurraldearen zentzua hobeto ulertzen da. Aipatu beharra dago, artxiboetako agiriez gain, egungo kartografia aplikazioak berebiziko papera jokatu dutela aspektu hau lantzeko orduan. Monasterioak orain osagai bikoitzeko lurralte-egitura bat aurkezten du. Erdigunean, lurraldea nabarmen murriztu da eta aldi berean koherenteago eta bilduago agertzen da: honek euskal lurraldeen beste errebisioen emaitzakin parekatzen du (Arabako Tobillasen kasua da) eta gainera bestelako konparaketak ahalbidetzen ditu: Olazaben hedadura ez dago oso urrutti, adibidez, Nafarroako Isusako monasterioaren lurraldetik, azken hau X. mendearren bigarren erdialdeko fundazio-uhin baten adibide bezala identifikatu delarik. Erdiguneari periferia bat artikulatzen zaio, bai Aralarreko belardietan –hots, Goi Erdi Aroko ziklo laburreko trashumantzia iragarriz–, bai patrono eta klienteek ondarea zabaldu duten tokietan, Aian eta Elkanon.





66. IRUDIA. Monasterioaren menpeko luren egitura espaziala
IGN-ko mapa moldatua

Bestetik, Olazabalgo monasterioa ikuspegi diakroniko batetik aztertu dugu. Monasterioaren ibilbidea ez delako dohaintzako dokumentuan amaitzen, hasi baino ez delako egiten, eta hastapen hauek eragina izango dutelako hurrengo mendeetan. Baieztapen hau XV. mendeko hainbat agiriren azterketatik ondoriozta dezakegu. XI. mendeko Olazabalgo San Salbatoreren atzean, azken finean, patronatu laikoaren figura aurkitzen dugu, eta berdina gertatuko da XV. mendean ere. Gainera, kasu honetan, aipatu bi mendeen arteko lotura Olazabalgo dokumentuaren kopian bertan islatzen da –*Archivo Histórico Nacional*-eko kopian-, agiriaren atzealdean idatzita datorren *donatio molendini de Ollazabal* aipuaren bitartez. Honek berebiziko garrantzia dauka transmisió dokumentala ulertzeko. Ikusi dugu XV. mendean Altzon hainbat auzi irekita zeudela, batetik, Olazabalgo jaunarenak ziren erroten erabileraren ingurukoa, bestetik, Olazabalgo leinuak San Salbatore parrokiaren patronatua eskuratzeko zuen lehiaren harira. Azkenik, Olazabalgo jaunak patronatuaren gaineko eskubidea lortu zuen eta, Altzoko biztanleek, jaunarenak ziren errotetan ehotzeko aukera. AHN-eko kopian errotei egiten zaien aipuak, kopia hau auzi honetan erabilia izan zela pentsatzera



eramatzen gaitu. Bitartean ordea Olazabalen nola kontserbatu zen San Juan de la Peñarekiko harremanaren oroitzapena ez dakigu: gerorako galdera irekia da.

Izan ere, lan honek hasieran planteatutako galderai erantzutea lortu duen arren, beste hainbat ikerketa-ildo berri ireki ditu, etorkizuneko ikerlarien eskura jarri ditugunak. Honekin guztiarekin, Olazabalgo monasterioaren inguruan sortutako tokiko arkitektura-sozialera lehen hurbilketa bat proposatu dugu, mendeetan zehar izan zuen garapena ulertzeko hainbat zantzu agerian jarriz, heltzean dauden azterketa berrieik osatuko dituztenak.



7. ERABILITAKO DOKUMENTUAK

Gipuzkoako Artxibo Orokorra (AGG-GAO)

AGG-GAO PT1: 141r

AGG-GAO PT4: 268r

AGG-GAO PT32: 253r

AGG-GAO PT32: 396r

AGG-GAO PT37: 551r

AGG-GAO PT39: 261r

AGG-GAO PT40: 298v

AGG-GAO PT44: 617r

AGG-GAO PT51: 603v-604r

AGG-GAO PT51: 604r-607r

AGG-GAO PT60: 518r

AGG-GAO PT 61: 103v

AGG-GAO PT68: 13v

AGG-GAO PT82: 223r

AGG-GAO PT96: 61v

AGG-GAO PT99: 1r-2r

AGG-GAO PT100: 1v

AGG-GAO PT100: 5v

AGG-GAO PT101: 793r

AGG-GAO PT102: 51v

AGG-GAO PT110: 65v

AGG-GAO PT114: 298r

AGG-GAO PT120: 66r

AGG-GAO PT122: 34v

AGG-GAO PT122: 530r



AGG-GAO PT129: 430v

AGG-GAO PT129:506r

AGG-GAO PT130: 771r

AGG-GAO PT176: 202v

AGG-GAO PT178: 187v

AGG-GAO PT179: 406r

AGG-GAO PT226: 243r

AGG-GAO PT247: 315r

AGG-GAO PT526: 88v

AGG-GAO PT608: 12r

AGG-GAO PT608: 18v-20r

AGG-GAO JDIM2/18/2:1v-3v

Gipuzkoako protokoloen artxibo orokorra (AHPG-GPAH)

AHPG-GPAH, 5. lib.,164 zenb., 102r

Ataungo Udal Artxiboa

Administración. Jurisdicción territorial. Enirio-Aralar. 179-01: 5 r.

Ordiziako Udal Artxiboa

Judicial histórico. Asuntos judiciales criminales. *Legajo 3, 6* zbk.: 51r-51v.

Zabala Etxeko Artxiboa

Administración del Patrimonio. 44.3: 294r-294v.

Transmisión de bienes. 82.23: 8r.

Relaciones con la iglesia. 44:10

Relaciones con la iglesia. 44:11



Euskadiko Artxibo Historikoa

Irulegui-Larreta Etxeko Artxiboa

Larreta - Zavala. Zavalarraga. Expedientes judiciales y papeles de los Jaúregui.
Legajo 129, legajo zbk. 3028: 1 r

Tolosako Jabetza Erregistroa

TJE. Tomo 141, finca 49, fol. 82

TJE. Tomo 141, finca 65, fol. 170

TJE. Tomo 241, Finca 82, fol. 132

TJE. Tomo 241, Finca 89, fol. 193

TJE. Tomo 490, finca 176, fol. 72



8. BIBLIOGRAFIA

- ACHÚCARRO LARRAÑAGA, M. (1984) "La tierra de Guipúzcoa y sus "valles": su incorporación al Reino de Castilla", *La España Medieval, IV, Estudios dedicados al profesor D. Ángel Ferrari Núñez*, Nieto, J.M. (dir.), Madrid, 13-45 or.
- AGUD, M. (1968) "Donación del Monasterio de San Salvador de Olazabal (Guipúzcoa, 1025)", B.R.S.V.A.P., 24 zbk., Donostia, 323-339 or.
- BALPARDA, G. de (1923) *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*, 1go alea, Madrid.
- BARANDIARAN, I. (1975) "Novedades sobre la Alta Edad Media en Guipúzcoa. Datos arqueológicos", *Estudios de la Edad Media de la Corona de Aragón*, 10. alea, Zaragoza, 549-580 or.
- BARRENA OSORO, E. (1989) *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*, Cuadernos Universitarios Mundaiz, 5 zbk., Donostia.
- BARRENA OSORO, E. (1991) *Historia de las vías de comunicación en Guipúzcoa (I.-Antigüedad y Medievo)*, Donostia.
- BRIZ MARTÍNEZ, J. (1620) *Historia de la fundación y antigüedades de San Juan de la Peña*, Zaragoza.
- CURIEL YARZA, I. (2009) *La parroquia en el País Vasco-Cantábrico durante la baja Edad Media (c. 1350-1530). Organización eclesiástica, poder señorial, territorio y sociedad*, Bilbo.
- DÍAZ DE DURANA, J.R., FERNÁNDEZ DE LARREA, J.A. (2002) "Economía ganadera y medio ambiente. Guipúzcoa y el Noreste de Navarra en la Baja Edad Media", *Historia agraria*, 27 zbk., 43-64 or.
- ELOSEGUI, J. (1968) *De toponimia vasca. Dos topónimos muy usados, sujetos a revisión: Araxes y Insalus*, Donostia.
- GARCÍA CAMINO, I. (2002) *Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII: la configuración de la sociedad feudal*, Bilbo.



GARCÍA DE CORTÁZAR, J.A. (1982) “La sociedad guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián”, *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época*, Donostia, 89-111 or.

GARCÍA DE CORTAZAR, J.A. et alii (1979) *Introducción a la Historia Medieval de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*, Donostia.

GARCÍA DE CORTAZAR, J.A. y PEÑA COBOS, E. (1987) “La atribución del espacio ganadero en el Norte Peninsular en los siglos IX a XI”, *Estudos Medievais*, 8 zbk., Oporto.

GARCÍA DE CORTAZAR, J.A.; RUIZ DE AGUIRRE. (1975) “La economía rural medieval: Un esquema de análisis histórico de base regional”. *Actas de las I Jornadas de Metodología Aplicada de las Ciencias Históricas. II: Medieval*, Acuña, F. (ed.), Santiago de Compostela, 29-60 or.

GOROSABEL, P de. (1862, 2006ko ed.) *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa*, Valladolid.

GUEVARA EZQUIAGA, F. (1949) *De Yurre a Izazcum: investigación de Nª Sª de Izazcum*, Tolosa.

LAPEÑA, A.I. (1989) *El monasterio de San Juan de la Peña en la Edad Media*, Zaragoza.

LARREA CONDE, J.J. (1998) *La Navarre du IVe au XIe siècle. Peuplement et société*, Paris-Brusela.

LARREA CONDE, J.J. (2007) “Construir iglesias, construir territorio: las dos fases altomedievales de San Román de Tobillas (Álava)”, *Monasteria et Territoria. Elites, edilicia y territorio en el Mediterráneo medieval (siglos V-XI)*, Oxford, 321-336 or.

LARREA CONDE, J.J. (2007) “La herencia vasca: acción política y arquitectura social en Vizcaya y Álava antes de su incorporación al reino de Alfonso VI”, *Alfonso VI y su época. I. Los precedentes del reinado (966-1065)*, León, 69-119 or.



LEMA PUEYO, J.A. (2004) "Evolución política de los territorios históricos: Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Edad Media", *Historia del País Vasco. Edad Media*, Donostia, 111-153 or.

LIZARRALDE, A; MILLÁN, L. (1982) *La sierra de Aralar*, Oiartzun.

LORING, M.I. (1987) "Nobleza e iglesias propias en la Cantabria alto-medieval", *Studia Histórica, Historia Medieval* 5, 89-121 or.

LLORENTE, J.A. (1807) *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas, Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*, III. alea, Madril.

MAGALLÓN Y CABRERA, M. (1903-1904) *Colección diplomática de San Juan de la Peña*, Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos (eranskina). Madril.

MARTÍNEZ DÍEZ, G. (1975) *Guipúzcoa en los albores de su Historia (siglos X y XIII)*. Donostia.

MORAZA BAREA, el alii. (2010) *Enirio-Aralarko mankomunitatearen 600. urteurrena (1409-2009)*, Donostia.

MÚGICA, S., AROCENA, F. (1931) "Un documento importante, San Salvador de Olazabal", *R.I.E.V.*, 22 zbk., 367-371 or.

MUJIKI URDANGARIN, L. M. (1989) *Euskal toponimiazko materialek*. Donostia.

PETERSON, D. (2004) "Primeras referencias a Guipúzcoa", *Fontes Linguae Vasconum* 36, 597-608 or.

SANTANA, A. (2003) *Igartubeiti: Gipuzkoako baserri bat: ikerketa, zaharberrikuntza, zabalkundea*. Donostia.

SARASOLA, N. eta MORAZA, A. (2001) *Erdi Aroko arkeología Gipuzkoan*. Donostia.

UBIETO ARTETA, A. (1963) *Cartulario de San Juan de la Peña*, Textos medievales 6, Valentzia.

URTEAGA ARTIGAS, M.M. (1992) *Guía Histórico Monumental de Gipuzkoa*. Donostia.



URZAINQUI MIQUELEIZ, A. *Comunidades de montes en Guipúzcoa: Las Parzonerías*, Cuadernos Universitarios Mundaiz, 7 zbk., Donostia.

ZABALA, F. de; GARMENDIA LARRAÑAGA, J. (2007) *Monografías históricas de la villa de Tolosa*, Donostia.

ZAPIRAIN, D. *el alii* (2003) *Altzotik Altzora: ibilaldi historikoa Altzon zehar*, Tolosaldea historia bilduma, 2 zbk. Tolosa.

Argitaratutako dokumentazio funtsak

AROCENA, F. (1958) *Colección de documentos inéditos para la historia de Guipúzcoa*. Donostia.

AYERBE, M.R.; SAN MIGUEL, A. (2013) *Archivo Municipal de Ataun (1268-1519)*. Donostia.

MARTINEZ DÍEZ, G; GONZÁLEZ DÍEZ, E; MARTÍNEZ LLORENTE, F.J. (1991) *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas (1200-1369)*, Donostia.

ROLDÁN GUAL, J.M. (1991) *Colección diplomática del Archivo Municipal Tolosa*, 1.go alea, Donostia.



9. ERANSKINAK

1

1025, [s.l.]

Jaun Gartza Azenarizek eta bere emaztea den Gayla andreak Olazabalgo San Salbatore monasterioa ematen dute dohaintzan, beste hainbat ondasunekin batera.

(B) ZLU⁹², *Liburu Gotikoa*. 75v-76r. XII-XIII mendeetako kopia.

(C) AHN, San Juan de la Peña. Karp. 695, 8. zbk. XIII-XIV mendeetako trasladoa.

Iturria: AGUD, M. AGUD, M. (1968) "Donación del Monasterio de San Salvador de Olazabal (Guipúzcoa, 1025)", *B.R.S.V.A.P.*, 24 zbk., 325 or.⁹³ Liburu Gotikoan oinarritzen da.

(Krismoia) Sub nomine sancte Trinitatis, ego quidem, senior Garcia Acenariz et domna⁹⁴ Gayla, pro remedio anime nostre, tradimus Deo donante [ad monasterium Sancti Iohannis Babbiste de Pinna, illud]⁹⁵ monasterium quod dicitur Ollazabal, cum hereditate sua ut terminabit senior Garcia Ace/e/nariz⁹⁶ et dona Gayla. Des scilicet superiore Gaharraga, Orerurte⁹⁷ alias Uzturre⁹⁸ super Lascuren; de alia parte inferiorem, vel de Ainarte de Areiznabar, sub de Arzagudum, usque Verasibia, in finem mazaneto de senior Garcia Acenariz. Haralarre: Hezizazaual alia Hezizaray, cum Arrandari Sansoiz. Mazaneto de Ugarte, Zuhaznabar cum Ossauio de medio mazaneto. Ipsos tradimus pro anime nostre, senior Garcia Acenariz. Senior Enneco Garciaiz⁹⁹, pro sua anima, posuit partes de Munio Garziayz menore, que comparaui villa que dicitur Haya et Helcanno, et mazanetos, VI b'akas¹⁰⁰ comparaui suo uita, tradidi dona Gailla de anime Enneco Garziayz alias mazaneto de Ezquiaga, et terra Iturrioz de Gurtia de la imma de oblatione. Tradimus istus in atrio sanctorum Salvatoris Domini nostri Ihesu Christi et Sancte Crucis et Sancti Iohannis Babbiste et Sancte Prudencius et Sancti Saturnini et Sancti Jacobi apostoli fratis Domini et Sancti Iohannis apostoli et Sancte Columbe, Ollazabal uocitatur, ut post obitum meum

⁹² Zaragozako Liburutegi Unibertsitarioa

⁹³ Hainbat aldaketa sartu ditugu, hauen artean letra larrien eta puntuazioaren erabilera zein oin oharretan aipatzen diren beste hainbat.

⁹⁴ M. Agudek *domina*.

⁹⁵ Esaldi hau behin testua bukatua dagoenean gehitzen da, ohar baten bidez.

⁹⁶ Liburu Gotikoan ikusten da "e" bat gehiago sartu nahi izan zutela beranduago eta hitzaren gainean letra hau jarriz adierazi dute.

⁹⁷ M. Agudek bi toponimo bezala transkribatzen dituen arren, toponimo bakartzat hartzea konsideratu dugu eta, hortaz, elkarrekin idaztea.

⁹⁸ Lanean adierazi dugun modura, M. Agudek transkribatutako *Aluizture-reñ* ordez *aliuzture* irakurri dugu eta ondorioz *alias Uzturre* izan daitekeela konsideratu.

⁹⁹ Zuzenketa bat ikus daiteke izen honetan. Hasiera batean *Garceaz* idatzia izan zen eta ondoren, "e" bokalaren gainean "i" bat jarriz *Garciaiz* bihurtu zuten.

¹⁰⁰ Transkribapen hau zalantzagarria da. B hizkiaren ondoren interpretatzen jakin ez dugun laburdura zeinu batez doa lagunduta.



pro intercione uestra uel omnium sanctorum merear hic elui a sorde nostrorum facinorum et misericordia Christi concedente uobiscum frui regna celorum. Si quis sane - quod fieri credo minime- hanc nostram deuocionem conatus fuerit disrum pere filiis a nepotis siue aliqua subrogata persona, sit a cetu christianorum confusus et in presenti binas careat lucernas, postquam auerni non euadat penas. Votum tanem¹⁰¹ nostrum firmum et inconuulsum permaneat in eternum. Facta Karta traditionis era millesima¹⁰² LXIII. Prefatus ego quidem Sancio rex regnans in Pampilonia et sub imperio senior Garsia Acenariz de Ipuscuia dum hoc testamentum decreuimus confirmare. Ego Comiz de Urra prefati exarabi hoc pactum et manibus meis feci id signum (*zeinua*). Testibusque¹⁰³ scilicet tradidi ad roborandum: domino¹⁰⁴ Sancio de Arrozuide, testis, senior Fortunio Gomiz, testis, Nunuso Narriateiz, testis.

¹⁰¹ Tamen bezala transkribatuta dago baina *tanem* izan beharko lukeela deritzogu.

¹⁰² M. Agudek *Ml.* jartzen du, guk laburudura garatzea egokiago konsideratu dugu.

¹⁰³ M. Agudek bananduta idazten ditu *testibus que*, guk elkartu egin ditugu.

¹⁰⁴ M. Agudek *domino*.



1048, [s.l.]

Yputzako Galga andreak San Juan de la Peñako monasterioari Lakidaingo Santiagokoa ematen dio dohaintzan.

- (A) AHN, San Juan de la Peña. Karp. 695, 9. zbk. Originala edo kopia garaikidea.
(B) ZLU, Liburu Gotikoa. 41v-42r. XI-XII mendeetako kopia.
Iturria: UBIETO ARTETA, A. (1963) Cartulario de San Juan de la Peña, 96 dok.

In nomine sancte et individue Trinitatis. Ego humillima Galga de Ipuçha servorum Domini ultima ancilla, facio hanc cartam oblationis ad honorem Sancti Iohannis Babtiste de Penna, tibi Belasio eiusdem monasterii abbatи, una cum fratribus omnibus tecum in timore et amore maiestatis perseverantibus atque sub vinculo caritatis simul comorantibus. Placuit siquidem michi atque devotissime convenit ut ex hoc quod Deus michi gratis contulit licet exiguum pro remedio anime mee et parentum meorum vivorum ac defunctorum libentissime concederem et offerrem hoc quod possem ad altare Sancti Iohannis Babtiste de Penna. Itaque sic offero et concedo supradicto altario illum meum monasterium quod abeo in Pampilona, quod vocatur Sancti Iacobi de Luquedeng, cum omnibus que ad illum pertinent, id est cum terris et vineis, et cum uno malguelo quod ego ibi plantavi, et cum suis ingressibus et regressibus ad omni integritate, ita sicut parentes mei et germani mei omnes michi eum dederunt et inieuaverunt pro animas suas, pro eo quia sororem me ibi feci, et quia ad Sanctum Iohannem me commendavi. Sic ego nunc cum toto illo quod ipsi eum michi dederunt, sive cum omni quod ego usque hodie augmentare ibi Deo donante potui, vei deinceps ipso iuvante ganare potero, sive in domo sive in agro, sive in omni re quod ad sustentationem humane fragilitatis pertinet, tam mobile quam et inmobile, sanamente puraque devotione trado atque concedo Deo et Sancti Iohannis de Penna, ad utilitatem fratrum ibidem comorantium et Deum laudantium, ut pro meis offensis iugiter. Deum exorent et si immerito quandoque merear pleniter gratulari cum Christo. Hoc itaque quod sponte vovi Deo et Sancto Iohanni cum omni auctoritate iure habendi concedo et confirmo. Si quis vero ex meis successoribus propinquuis sive nepotibus aut aliquis extraneus instinctu diabolico hanc meam conaverit convellere devotionem et oblationem, perpetuam et diram hic et in eternum obtineat damnationem et cum Datam et Abiron et Iuda traditore abeat porcionem amen, et sic meum votum rite confirmatum inconclusum permaneat.

Facta scripture testamenti era T. LXXX. VI., regnante Domino nostro Ihesu Christo et sub eius imperio regnante rege domno Garsea in Pampilona et rege domno Ranimiro in Aragone et rege domno Fredinando in Castella, Sancius episcopus in Irunia, et Garsea episcopus in Alava, et Gomesanus episcopus in Naggera.



1049, [s.l.]

Blascok, San Juan de la Peñako abatea, auzi baten ondoren , Binieseko Santa Eufemia monasterioa Blasquita andrea eta honen senarra den Sancho Fortuñones-i ematen dio, azken hauek bizi diren bitartean. Blasquitak, dokumentu honi atxikita doan bigarren pasarte batean –datarik gabea-, Santa Eufemia monasterioa San Juan de la Peñakoari itzultzen dio.

ZLU, Liburu Gotikoa. 10r-10v. XI-XII mendeetako kopia.

AHN, San Juan de la Peña. Karp.698, 13 zbk.

AHN, San Juan de la Peña. Karp.698, 12 zbk.

Iturria: UBIETO ARTETA, A. (1963) Cartulario de San Juan de la Peña, 96 dok.

De Sancta Eufimia de Biniesse et eius scedula.

Fuit quidam monacus in cenobio Sancti Ihoannis nomine Sanctius, ex vico qui appellatur Biniesse, in cuius termino edificavit ipse ecclesia in honore sancte Eufimie, quem secum subdidit sub dictione abbatis domno Paterno predicti cenovii.

Postea vero domna Galga, ex regione Ippuzka, rogavit abbatem eius ut eum dirigeret ad suam regionem, ubi erat ipsa. Et posuit eum domno Sancio in monasterio Sancti Salvatoris de Ippuzka. At ille, ubi venit, oblitus professionis sue, imposuit sibi nomen abbatis sine iussione sui abbatis; et abstulit prefatum monasterium suum Sancta Eufimia de Sancti Iohannis, et possuit eum in Sancti Salvatoris, prevaricatus ordinem regularem, quia inlicitum est monaco sine sui abbatis iussum aliquid dare vel accipere. Tanem postea, penitentiam ductus, reconciliabit se suo abbat, et ad oram obitus sui, qui illi evenit in iam dicta Sancta Eufimia, iussit defunctum portare ad Sancti Iohannis; et reduxit illuc Sancta Eufimia quod ita factum est.

Mortua est et suprafata domina Galga, et succedit in loco eius filia illius domina Blasquita et senior Sancio Fertungonis suus vir; volueruntque educere Sancta Eufimia de Sancti Iohannis. Et non prevalerunt, quia resistit eis abba domno Blasco de Sancti Iohannis. Set quia erant et ipsi traditi de Sancti Ihoannis, dedit eis de sua volumtate supradictus Blasco abba Sancta Eufimia monasterium, ut tenerent tamtam in vita sua, et amplificarent illum in substantia, tam in terris quam in vineis, pascuis, aquis et pecoribus et iumentis. Et post obitum eorum reverteretur ad Sancti Ihoannis, ut ipsi teneantque eum iure perpetuo.

Facta kartula era T. LXXX.VII., regnante in Aragone rex Ranimiro, et in supradicto monasterio abba domno Blasco, episcopo domno Garsea in Aragone.

In Dei nomine. Hec est carta quam facio ego domina domina (sic) Blasquita de Sancta Eufimia, quam tenui pro manu de abbate don Blasco et de illos seniores de Sancti Iohannis cum sua hereditate de terris et vineis. Pro anima mea et de meo seniore Sancio



Fertungonis et de meos parentes, redo illam ad Sanctum Iohannem, ut neque ego, nec ullus de mea tribu, requirat illam, ut abstrahat illam de Sancti Iohannis. Et illu malquelo de saso et illut aliut malquelo de Sancta Cruce de Tolosana, de post meos dies, pono illos ad Sancti Iohannis, ut non ex parentella nostra, neque ullus abstrahat illos de Sancti Iohannis; et sunt fermes Mango Garcianes de Vinies et Garsea Fertungones.



1056-1064, [s.l.]

Sancho Fortuñones-ek eta bere emaztea den Blasquitak, Agoncillo herria (Errioxa) eta beste ondasun batzuk dohaintzan ematen dizkiote San Juan de la Peñari. Honez gain, Gipuzkoako San Salbatoreko dohaintza berresten da.

(B) ZLU, *Liburu Gotikoa*. 41r. XI-XII mendeetako kopia.

(C) AHN, San Juan de la Peña. Karp. 699, 7. zbk. XIII. mendeko kopia.

Iturria: UBIETO ARTETA, A. (1963) *Cartulario de San Juan de la Peña*, 175 dok.

Et ego Sancio Furtunionis, simul cum uxore mea domna Blaskita, propter redemptionem animarum nostrarum, facimus hanc cartam ad Sanctum Iohannem de Penna de ista populatione Sagonzello quam emimus de nostro seniore rege domno Sancio de nostro proprio abere, et de illos palazos quos comparavimus in Luquiane, cum illa vinea de Zamaka, et cum illo campo de Zerrato, et omnia que pertinent ad ista populatione supra scripta, sic dimitimus eam ad istum Sanctum Iohannem supra nominatum, sine ulla voce de nullo homine, et sine nulla querela; et ingenua permaneat ad istum locum supra scriptum, ut faciant de ea sicut facit homo de sua propria alode. Et similiter istos palazos supra nominatos, et omnia que ad eos pertinent, ita dimitimus in potestate de hoc locum supra scriptum Sancti Iohannis.

Et ego Blasquita, filia de domna Galga et de senior Garcia Azenarez, confirmo et auctoritatem pono ad istum locum Sancti Iohannis de monasterio Sancti Salvatoris de Ipuzka de nostra propria hereditate, ut quomodo dimiserunt eum meus pater et mater, ita laudo et confirmo ego eum adhuc locum Sancti Iohannis, cum spontanea voluntate et firma karitate. Si autem aliquis ex nostra progenia aut alias homo hanc cartam voluerit disrumpere aut disrumperit, non habeat partem in regno Christi, sed cum Datam et Abiron et Iuda traditore habeat portionem in inferno inferiori, in secula seculorum.



1417, Tolosa.

Joan Fernandez de Olazabal jaunak, alde batetik, eta Altzoko Santa Maria eta Olazabalgo San Salbatoreko biztanleak, bestetik, jaunarena zen errota erabiltzeko akordio bat sinatzen dute, hainbat baldintza zehatzuz.

(C) Zabala Etxeko Artxiboa (ZEA). Relaciones con la iglesia. 44.10: 3r-20v. 1620ko traslado kontserbatzen da, aldi berean, 1506ko beste traslado batetik kopiatua izan zena.

En el nombre de Dios y de Sancta María, su madre, amén. Sepan quantos esta carta de contrato público vieren e oyeren como yo Garçia de Ypença, señor de la cassa de Ypença; e yo Lope García de Çuaznabar, señor de la cassa de Çuaznabar; e yo Joan Lopez de Orendain, señor de la cassa de Çuaznabar; e yo Lope de Seyçaguirre, señor de la cassa de Seyçaguirre; y Joan Lopez de Jauregui, señor de la casa de Jaureguigaraicoa; e yo Miguel Martínez de [Orazperro], señor de la cassa de Jaureguiartecoa; e yo Joan Lopez de Alço, señor de la cassa [Illa]mada Jaureguibeheracoa, bezinos que somos de la villa de Tolossa de Guipuzcoa, moradores en la colación de la parrochial yglessia de San Salvador de Olaçaval; e yo Joan Iniguez de Ayzpe, hijo legítimo, esento heredero de Ynigo Lopez de Ayzpe, señor de la cassa de Ayzpe; e yo Joan Lopez de [Alço], señor de la cassa llamada Echeverria; e yo Martín Lopez de Abalivide, señor de la casa llamada Yriarte; e yo Ochoa de Arrechea, señor de la cassa llamada Arrechea, e yo Ynigo de Arzasudum, señor de la casa llamada Arzasudum; e yo Ynigo de Ayzpe, señor de la cassa llamada Arzasudum, // (3v) otros vecinos que somos de la dicha villa y moradores que somos de la colación de la parrochial yglessia de Sancta María de Alço. Nos, todos los sobredichos de las sobredichas colaciones, de la una parte, e yo Joan Fernandez de Olaçaual, señor de la cassa solar de Olaçaual, otros vecino de la dicha villa de Tolossa y morador en la colación de la / sobredicha parrochial yglessia de San Salvador de Olaçaual, de la otra.

(....)

(4v) Por ende nos los sobredichos de suso contenidos ottorgamos y conozemos que entramos a nos y a todos nuestros herederos y subcesores y toda nuestra voz y de cada uno de nos // (5r) y a nuestros vienes y solares de las nuestras cassas y cassserías, y de a uno de nos que los abemos y obieremos de aquí adelante en los dichos lugares Alço e Olaçabal, y los dichos nuestros herederos y subcessores sean e obieren en los dichos lugares perfectuamente, y a los nuestros solares de las nuestras casserías e cassas de cada uno de nos perfectuamente, y por *secula quenta (sic)* so cargo y carga de todo lo que en este contrato será contenido, combiene a saber por razón que bos el dicho Joan Fernandez de Olaçabal fazedes un hedifficio de un molino nuevo dentro de vuestra heredad por delante la dicha vuestra cassa solar de Olaçaval, sictuado dentro de las dichas vuestras heredades propias, el qual dicho molino es vuestro proprio y por quantro nos los sobredichos de suso nombrados nin alguno de nos non abemos \ni tenemos/ de nuestro propio molino, ni molinos, nin rueda, nin ruedas algunas para moler nin en que moler las



nuestras ceberas para nuestro mantenimiento e provisión de nuestras // (5v) cassas, para nos y nuestras compañías, y nos es de neçessidad y nezessario a nos los sobre dichos de suso nombrados, y cada uno de nos para nos e para lo que con cada un año de nos tubieren, los ovieren de hacer su bida e abitación en nuestro tiempo, e eso mismo será necesario a los herederos y subcessores de qualquier de nos que subcedieren empués de nos y heredaren las dichas cassas y bienes en su tiempo, aber molienda en el dicho vuestro molino a los que al pressente fazemos nuestra morada y abietacion en las dichas colaciones. mientras que busquieremos¹⁰⁵ esso mismo les sera nezessario, y los descendientes de nos y de cada uno de nos que obieren de heredar las dichas nuestras cassas y bienes en su tiempo aber la dicha molienda y el dicho vuestro molino y cada uno en su tiempo.

